

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2013-06-14
EGUBAKOITZA
557. ZENBAKIA
13. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

"Lanposturik ez dago enpresarik ez badago"

Jose Migel Aiertza

Adegiko idazkari nagusia | 8



"Aretxabaletan sarritan izan naiz oporrek pasatzen"

Leo Harlem

Umorista eta monologista | 32



Fermin Etxegoienek bigarren eleberria aurkeztu du: 'Zinegotzia' | 31



Kanpoko igerilekuak zabalik Bergaran eta Eskoriatzan | 18



Laixan elkarteak bere ondasuna likidatu eta desegin egingo da | 19



DEBAGOIENEN IHESLARIEN BIZIPENAK

Bihar, zapatua, Herria dugu arnas lelopean ekitaldia egingo dute Biarritzen iheslariek; debagoiendarrek ere parte hartuko dute ekimenean | 2

Ezkerretik hasita, Oxel Azkarate, Lorea Zeziaga, Arantxa Sasian, Juan Kruz Maiztegi, Kristina Larrañaga, Anjel Iturbe eta Miren Aierbe, Baionan. | JULEN IRIONDO

Elgetako maisuak eta gurasoak, kezkatuta murrizketekin

Besteak beste, 3-4 urteko umeak batera egongo dira | 27

Jesus Elortza: "Ez nengoen sasoiaren"



Bergarako alkateak dimisioa aurkeztu du asteon; ekainaren 24ko udalbatzarrean beteko da. | 16



UBANE MADERA

Arrasateko jaien atarian, umeen danborrada | 12

SINADURAK



ENEIDA ITURBE | 6



ARRITXU BARUSO | 6



AINTZANE DIARBIDE | 40

DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESSELAK 36 | EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38

"Konponbidea" ikusita soilik itzuliko lirateke

- ▶ Bailarako iheslariekin izan da Goiena, Iparraldean
- ▶ "Bide" berrirako ekarpena azaltzera doa kolektiboa



ANJEL ITURBE

Arrasatearra
1974an utzi zuen etxea

"Santo Domingon barroterik gabeko kartzela batean geunden"



ARANTXA SASIAIN

Arrasatearra
1974an utzi zuen etxea

"Asko joan ziren Hego Amerika, Iparraldean jotzen hasi zirenean"

JULEN IRIONDO | BAIONA

Juan Kruz, Oxel, Miren, Kristina eta Arantxa dira -Anjel eta Lorea falta dira eskuineko argazkian Goienarekin egindako hitzordura joan zirenetatik-, Baionako karrika batean. Debagoiendarrak dira, Arrasate, Bergara eta Oñatikoak; Debagoienekoak, Baionako karriketean. Urte asko daramatzate etxetik kanpo: batzuek 40; ia hamar, dagoeneko, gutxien daramatzanak.

Batzuentzat gaizkile; batzuentzat, agian, bide okerra hartutako ameslari; eta beste batzuentzat "Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokalari"; horrela definitzen dute eurek euren burua. Etxetik ihes egin zuten behin, Iparraldera. Eurek moduan beste hainbatek. Hainbeste urteren ondoren, orain, nortzuk diren azaldu nahi dute, izen eta abizen, aurpegia erakutsi. Zapatu honetan, hilak 15, ekitaldia egingo dute Biarritzen, *Herria dugu arnas* leloarekin, eta diote bertan azalduko dutela ze "ekarpen" egiteko asmoa duten bizi dugun egoera politikoari.

Egun horren aurretik izan da Goiena eurekin; azaldu nahi izan dute iheslari izatea zer den, ihes egiteko ze arrazoi ikusi zituzten bere garaian, zer dakarren edo ekar dezakeen iheslari izateak eta nola ikusten duten itzulera, ze baldintza eman beharko liratekeen eurek erabaki hori hartzeko. Lerrootan doaz solasaldiko zenbait pasarte.



Bost iheslari debagoiendar, Baionan, hormairudi baten alboan. | J.I.

Ihes egiteko momentua

"Etxetik ihes egiten duzun momentuan apurketa bat gertatzen da zure ordura arteko bizitzan. Bide berri baten hasiera da". Oxel Azkarate arrasatearraren -denetan gazteena, 31 urte- hitzei, Lorea Zeziaga herrikideak eman die jarraipena: "Bide berri bat hasi behar duzu, baina etxetik alde egiten duzunean, nik uste dut lehen gauza dela sufrituko duzun errepresiotik ihes egitea; lehen momentuan ez dakizu zer duzun aurrean".

"Hala uste dut nik ere; lehenengo helburua, handik ondo ateratzea"; Juan Kruz Maiztegi oñatiarra sartu da solasaldian, bere kasua kontatzeko: "Garai hartan gertatu ziren Francoren azken fusilamenduak, Txiki eta Otaegirenak eta abar. Izan ziren

Ekitaldia bihar Biarritzen

Bihar, zapatua, egingo dute Biarritzeko Irati erakustazokan -5.000 lagunentzako lekua du- *Herria dugu arnas* lelodun ekitaldia. Iheslarien kolektiboak iragarri du "konponbiderako" ekarpena eta bere konpromisoak aurkeztuko dituela -11:30ean da ekitaldi nagusia-. Kale animazioa, herri bazkaria eta kontzertuak ere izango dira. Debagoienetik autobusak izango dira Biarritzera joateko.

manifestazio bortitzak, eta egoera nahiko gaizki jarri zen. Horren ondotik leherketa bat izan zen herrian, eta hasi ziren jendea eraman eta eraman. Denok edo gehienok genuen beldurra. Egun batez etorri ziren nire bila ere. Ahal izan nuen, haien eskuetan geratu gabe, alde egitea".

"Haien eskuetan geratu gabe, alde", beraz. Baina atzean ez zuten beldur zehatz hori soilik uzten, askoz gauza gehiago; honela diote: "Gure etxea utzi dugu, lagunak, lana, ikasketak... Afektiboki oso gogorra da, batetik, eta beldurrez jositako bidea, bestetik", dio Lorea Zeziagak, zera gehituz: "Gazteagoak ere baginen guztiok hastapenean".

"Ni, oso gazte nintzela, 19 urterekin etorri nintzen hona", dio Kristina Larrañagak -beste

arrasatear bat-. "Borrokan jarraitzeko zen, beste izpiritu bat genuen, beste mundu baten sartu ginen. Gure bizitza berezia izan da; momentu txarrak pasa genituen, baina onak ere bai".

Eta Zeziagak jarraipena: "Gogorra izanik ere, bide honek badiu irakurketa positiboak. Nik pentsatzen dut pertsona bezala eraiki garela". Erbestearen alde txarrak zerrendatzen ditu ondoren: "Sentitzen zara eskubiderik gabeko pertsona, ez duzu nortasunik, ez edozein herritarrek duen paperik, ez gizarte segurantzarik, lan egiteko zailtasunak, osasun eskubiderik ez [nahiz eta gogora ekarri, izan zela garai bat, Franco bizi zela hasi eta beranduagoa arte ere irau zuena, Frantziak, adibidez, estatus politikoa aitortu eta iheslariak babestu izan zitueneko]".

Eta berriz ere gauza positiboetara: "Eskertu behar ditugu familiak, lagunak, herritarrak. Askok erbestea bizi izan dugu beste herrialde batzuetan, eta gobernu horiek, nolabait, frantziar eta espainiar gobernuarekin bat egin badute ere, herritarren babesari esker aurre egin diegu egoera gogor askori. Hori ere badu erbestea, eta elkartasun hori oso inportantea izan da erbesteari aurre egin ahal izateko".

Deportazioa eta beste

Beste herrialde batzuk aipatu ditu Zeziagak. "Gerra zikina hasi zenean, Batallón Vasco Español,

iKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR





KRISTINA LARRAÑAGA

Arrasatearra
1974an utzi zuen etxea

"Beste izpiritu bat genuen; sartu ginen beste mundu baten, borrokan segitzeko"



JUAN KRUZ MAIZTEGI

Oñatiarra
1975ean utzi zuen etxea

"Konponbiderako urratsak ikusi arte ez gara itzuliko, ez dugu alferrik itxoin"



LOREA ZEZIAGA

Arrasatearra
1989an utzi zuen etxea

"Alde positiboak badira; uste dut pertsona bezala eraiki garela"



MIREN AIERBE

Bergararra
1996an utzi zuen etxea

"Inoiz bueltatzen baldin bagara etxera, izango da denok batera"



OXEL AZKARATE

Arrasatearra
2004an utzi zuen etxea

"Etxetik ihes egiten duzunean apurketa gertatzen da ordura arteko bizitzan"

AAA... Iparraldean jotzen hastean, hainbat errefuxiatu joan ziren Hego Amerikara, beldurra zutelako", dio Arantxa Sasiainek, Arrasatekoa hura ere. Batzuek "beldurrez", hortaz; beste batzuek, ostera, deportatuta gurutzatu zituzten itsaso eta ozeanoak.

Anjel Iturbe arrasatearra: "1987a zen. Agiri bat berritzera joan nintzen Biarritzeko komisariara. Atxilotu ninduten eta deportatuko nindutela esan. Hegazkin batean sartu eta Aljeriara. Han urtebete inguru egin eta

Aljeriako negoziaketak apurtu zirenean Dominikar Errepublikara eraman gintuzten. Han pasatu ditut ia 11 urte. Urtero aldatzen gintuzten etxez, auzokoekin harremanik ez egiteko. Debekatua genuen eurekin hitz egitea. Sei ginen eta bakarrik ahal genuen, astean behin, erosketak egitera joan, bikote bat, beti polizia gurekin zela. Beste polizia bat geratzen zen beste laurekin. Eta erakunde armatuak egurra ematen zuenean, guri soka gehiago lotzen ziguten. Santo

DATUA

500

IHESLARI

Etiketarik ihes eginda dauden euskal herritarren kopurua da hori. Horietako 100 inguru daude Iparraldean, eta horietatik hamar bat dira gure bailarakoak, debagoiendarrak.

Domingo bertako poliziari esaten genion han egonda gure bizitza berrekin nahi genuela, bizimodu normala egin. Batek esan zigun: 'Gurea balitz erabakia, berehala; baina gure gainetik espainiarrak daude'. Barroterik gabeko kartzela batean geunden. Fisikoki han geunden, baina juridikoki ez geunden han". Deportazioa oinarrian epairik ez duen "salbuespen neurri bat, zigor bat" dela diote iheslariek.

Baina iheslariek ez dute betiko iheslari izan nahi, etxera

bueltatu nahi dutela diote, edo bueltatzeko aukera eduki, baina: "Konponbide baterako urratsak ikustean; hori gabe ez gara itzuliko, ez gara alferrik egon bizitza osoa horren zain"; Juan Kruz Maiztegi esana. "Eta bueltatzekoan, denok batera", Miren Aierbe bergararrak.

Bideoa ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



SIMS

SERVIMASA

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

BERGARA
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa
Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49
E-posta: bergara@servimasa.com

LEZO
103 industria poligonoa
Tel: 943 52 05 00 Faxe: 943 515757
www.servimasa.com

Renove Plana 2013
Aprobetxa ezazu.

375 €-rainoko dirulaguntzak!

Birziklatzeko erraztasunak ematen dizkizugu.

Zatoz eta informa zaitez!

Bake bidean Legebiltzarra "agente aktiboa" izango da

Bakartxo Tejeria Legebiltzarreko presidentea Oñatin izan zen herenegun, eguaztena

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL | Alderdikideekin iritziak eta informazioa partekatze helburuarekin izan da Bakartxo Tejeria asteon Oñatiko Batzokian. Hark aitortu zuenez, ez du oso ongi ezagutzen Oñati eta ezta Debagoiena ere, eta halako bilerak bertako errealitatea gertuagotik ezagutzeko aukera ematen diote. Besteen artean, Oñatin eta ibarrean, puri-purian dagoen hondakinen gaien inguruan egin zuen berba. Legebiltzarrean ere gaia landu dela gaineratu zuen, eta sistema inposatzearen aurka azaldu zen.

Akordioetarako proposa

Bestalde, herritarren kezketariko bat izaten da bizikidetzeta eta bakea horren inguruan ere egin zuen berba. Tejeriak Euskal Herrian bakea lortzeko bidean Legebiltzarra agente aktiboa

izango dela esan zuen. "Horrek ez du esan gura gainerako taldeek ez dutela parte hartu behar. Baina aspaldian ez bezala, egun Legebiltzarrean alderdi guztiak gaude eta tokirik aproposena da akordioetara iristeko".

Amaitzeko, krisialdi ekonomikoaren ganean, Tejeriak azaldu zuen egunero lantzen dela gaia Legebiltzarrean, eta akordioetara iristen saiatzen direla, "nahiz eta lortzen ez diren akordioak izaten diren albiste normalean".

Euskaltzaindiako ordezkaria

Bestalde, datorren asterako beste hitzordu bat egin dute Oñatiko Batzokian. Oraingo honetan Erramun Osa gonbidatu dute, Euskaltzaindiako idazkariordea. Euskara, hezkuntza eta LOMCE legearen ganean jardungo du, 19:00etan. Hitzaldia irekia da.



Bakartxo Tejeria Lourdes Idoiagarekin, Batzokian. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL



Atzoko konferentzian izan ziren eragileak, adierazpenarekin. | IURE EIZAGIRRE

Lan mundua euskalduntzeko "garaia" da

Konferentzia egin zuten atzo Garaian, lan mundua euskalduntzeko beharra eta aukeren ganean

IURE EIZAGIRRE | ARRASATE

"Lan munduaren euskalduntzean urrats esanguratsuak ematea beharrezkoa dela, garaia dela eta posible dela pentsatzen dugu. Ezin da ahaztu lan munduaren euskalduntzeak herritarrok eguneroko bizitzan duen eragin luze-zabala. Bertan langile bezala igarotako orduengatik edota lan

mundutik datozkigun zerbitzu eta produktuen kontsumitzaile izateagatik, sakoneko eragina du lan munduak gu guztion eguneroko bizitzan eta hizkuntza jardunean. Halaber, inoiz baino euskaldun gehiago eta prestatuagoak daude gure herrian".

Berba horiekin hasten da Lan Mundua Euskalduntzeko Kon-

tseiluaren Adierazpena. Atzo, eguena, Arrasaten aurkeztu zutena, hain justu ere, Lan Mundua Euskalduntzeko Konferentziaren amaieran.

Urte eta erdiko lana

Garaia Berrikuntza Gunean egin zuten jardunaldia. Euskalgintzako zenbait eragile izan ziren bertan. Lan munduan euskarak duen lekua aztertu du azken urte eta erdian Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak, arlo horretan zeresana duten lau aktoreren laguntzarekin: sindikatu, enpresari, kontsumitzaile eta administrazioarena, eta guztiak izan ziren ordezkaturak Garaia konferentzian.

Ondorioetako batzuk

Ondorioztatu dutena, honakoa: enpresek ezinbestekoa dute euren hizkuntza politika propioa lantzea. Langileek euskaraz bizitzeko nahia praktikara eraman behar dute eta komenigarria litzateke lan hitzarmentean euskara sartzea. Bezeroen zeregina da euskaraz lan egiten duten enpresak lehenestea. "Eta administrazioari dagokio herritarren eskubideen bermatzailea izatea, bai eta bide horretan eredugarria ere".

Kontseiluak berak ere lan munduaren euskalduntze prozesuan erantzukizunez jokatzeko konpromisoa hartuko duela adierazi zuen eta eskua luzatu zien zeregin horretan jardungo duten eragile guztiei. Denen artean lortuko dute, Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusiaren esanetan, lan mundua euskalduntzea.

Dena dela, Arrasateko konferentzia "lehen urratsa" dela azpimarratu gura izan dute; "inflexio-puntua, etorkizunearan urrats eraginkorrak non eman behar diren definitzeko".



Begira
argazkilaritza

ILARGI PLAZA 1,
ARETXABAleta
tlf: 943 53 49 45

www.fotobegira.com

URRIAREN 18an 19an ETA 20an

B!E!C!-EKO EXPO BODAS-EN
EGONGO GARA.

2014AN EZKONTZEN ZARETENEN

ARTEAN **12.000€**
ZOZKETATUKO DITUGU!!

Erizaintzako laguntzaileek euren jarduneko beharren berri eman diete adituei

Arizmendi Ikastolako ikasleek arloko enpresa eta erakundeetako adituekin foroa egin dute

U.M. | ARRASATE

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketak antolatuta, bertako erizaintzako laguntzaile ikasleekin batera foroa egin dute asteon, arloko adituekin elkarlanean: GSR, Aptes, Arrasateko Udaleko teknikariak, Aita Meniko ordezkariak, Debagoieko ospitalekoak, Etorbizi (Jaurarritza), Ikerlan, Mondragon Health eta Saludnovakoekin, hain justu.

Beharrak eta proposamenak Labur esanda, Arizmendiko erizaintzako laguntzaileek euren zereginen ikusten dituzten beharrak eta euren zaintzen dituzten pertsonenak identifikatu, eta behar horiek asetzeko behar dituzten laguntza tekno-

logikoak identifikatu dituzte. Eta hortik abiatuta, 12 ideia aurkeztu dizkiete aipaturako erakundeetako ordezkariari oraingo asteko foroan. Eta haiek entzundakoaren gaineko balorazioa egin dute ostean.

"Beharrezkoak"

Eta balorazio hori "oso-oso positiboa" izan da Edurne Erauskinen, Arizmendiko Lanbide Heziketaren arduradunaren esanetan. "Halako foroak benetako beharren berri izateko beharrezkoak direla esan dute. Gure ekimen hau sortu delako beharretatik abiatuta. Eta oso ondo baloratu dute, besteak beste, ikasleek denbora guztian oso aintzat hartu izana zaintzen dituzten pertsonak".

Kirola Euskaraz programaren amaierako topaketan 300 ume

U.M. | DEBAGOIENA

Bihar, zapatua, Arrasateko Mojatetik futbol-zelaietan 300 bat neska-mutiko elkartuko dira, haien guraso eta laguntzaileekin batera. Arrazoiak: Kirola Euskaraz programaren ikasturte bukaerako topaketa. Hain justu, futbola euskalduntzea helburu hartuta, Debagoieko futbol eskoletan aurten landutako egitasmoari amaiera ematea dute helburu biharko topaketek.

15 futbol partidutik gora

10:00-13:00ak bitarteko ekimena izango da. Hasteko, 15 futbol partidutik gora jokatu dituzte Mojatetik. Bergara, Oñati, Arrasate eta Aretxabaletako futbol eskoletakoek jokatu dituzte partiduok, eskola horiek dabilta-eta Kirola Euskaraz egitasmoan parte hartzen.

Horiekin batera, Antzuola, Arrasate, Aretxabaleta eta Bergarako alkateak eta kirolekoak eta euskarako zinegotziak ere

gonbidatu dituzte. Hala, besteak beste, 11:00etan geldialdia egingo dute. Arrasateko alkateak agurra egingo du, horren ostean Igor Arenaza UDako kirol zuzendariak egindako lanaren balorazioa egingo du, eta, azkenik, sari banaketa egingo dute. Sorpresak ere izango dira, antolatzaileen arabera.

Mondraren 100. urteurrena

Entrenatzaileen eta koordinatzaileen formazioa (euskara, adimen emozionala, ingurumena eta beste hainbat gai); umeentzako hitzaldiak edo bestelako saioak, topaketak... egin izan dituzte Kirola Euskaraz egitasmoaren barruan.

Topaketei dagokienez, esaterako, lehenengo Bergaran egin zuten iaz azaroan. Bigarrena abenduan egin zuten, Aretxabaletan. Eta orain, berriz, Arrasate aukeratu dute topaketa, kasu horretan, Mondraren 100. urteurrena delako aurten.

Gizonezko aramaior bat hil egin zen atzo errekararorita, bildotsa jasotzera zihoanean

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Inazio Urizar 76 urteko aramaiorra hil egin zen atzo, errekararorita, bildotsa jasotzera zihoanean.

Eguzkierripa auzoan izan zen gertaera. 11:40ak aldera eman zuten auzotarrek abisua.

Baina Gasteizko suhiltzaileek zein Ertzaintza heldu zirenerako errekararorita zuten gorpua Seguritasun Sailaren arabera, errekararen albo batean eskailearra jarri zuen Urizarrek, eta argitu ez diren arrazoiengatik, erori eta bertan hil egin zen.

Bergarako Elikagaien Bankuak gero eta eskari gehiagori aurre egiten die

Eroskin eta Aste Zapatistan (Eskoriatzan) jakiak batu dituzte, BAGerako

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

"Sarri dator jendea gauzak ekartzera. Oraingo astelehenean, adibidez, Eskoriatzatik etorri ziren, Aste Zapatistaren barruan batu dituzten 252,5 kilo elikagai ekartzera. Bihar (barikua) berriz, Eibarko suhiltzaileak etorri behar dira, azkeneko greban kobratu bako dirua gure ankuari ematea erabaki dutelako. 4.000 euro pasa ekarriko dituzte, eta guk elikagaiak erosteko erabiliko ditugu. Eta eskatzera ere, asko etortzen dira. Martitzenean, adibidez, Ermuko Udaletik etorri ziren eta 1.000 kilo jaki eman genizkien, eta eguaztenean Azkoitiko Caritasetik etorri ziren beste horrenbeste kilo elikagaien bila".

Bergarako Elikagaien Bankuaren (BAG) erretratu hori egin digu Jose Antonio Agirrebeña bergararrak, Gipuzkoako elikagaien bankuko arduradunak. Joan den asteburuan Debagoienean BAGerako egin diren bi elikagai bilketa kanpaina (Eroski eta Eskoriatza) aitzakia hartuta jo dugu BAGen osasunaren berri jakin guran. Eta datuen arabera, eurenaganaino iristen diren beharrei ondo erantzuteko moduan daude.

200dik 2.000 pertsonara

"Batez beste, 12.000-14.000 kilo genero ditugu BAGen. Denerakoak, pasta, batez ere. Babak falta zitzaizkigun, baina justu eskari berezia egin dugu Eroskiko bilketan, beraz, pentsatzen dugu babak ere nahikoa izango ditugula. Eta orokorrean ez gabiltza gaizki. Adibidez, joan den apirilean Carrefourren (Olabarrian) kanpaina egin genuen eta ia 4.000 kilo elikagai batu genituen. Horri Carrefourrek berak beste horrenbeste gehitu zizkion, beraz...Eta orain Arrasateko eta Eibarko Eroskin ere bilketa egin dugunez...".

Eta hori guztia kontuan hartuta Europatik atzerapen handiarekin dabilta elikagaien bankuetarako bidalketetan, zenbait elikagai bankutan buruhauste eta gabezia handiak eraginez: "Egia da. Iazko azken banaketa aurten go apirilean egin dute; eta aurten go eskaera egin genuenean mezua jaso genuen aurten go lehengo banaketa ekainean egingo dutela jakinarazten. Gainera, lehen lau bider ematen ziguten jana, eta orain, berriz, hirutan. Baina bueno, gu nahiko ondo gabiltza".

Gauzak horrela, hala ere, soberan ez dute ezer izango Bergarako Elikagaien Bankuan. Hura abiarazi zutenetik (2011ko apirilaren 10ean) jasotzen duten eskaera kopurua dezente handitzen eta handitzen joan delako: "Orduan, zortzi erakunde hartzaile zeuden eta 282 bat pertsona. Eta orain momentuan, adibidez, 34-35 bat erakunde hartzaile daude eta 2.643 pertsona", jakinarazi du Agirrebeña.



Boluntarioak herritarrek emandako elikagaiak batzen, Arrasaten. | IMANOL SORIANO

ESANAK

"282 laguni arreta ematetik 2.643ra pasa gara bi urtean"

J.A. AGIRREBEÑA | ELIKAGAIEN BANKUA

DATUA

6.000

KILO

la 6.000 kilo jaki batu dituzte Arrasaten; Eroskik 1.200 gehiago emango ditu

Oñatin hazi, Arrasaten ataskatu

Debagoienari buruz galdetuta, "Oñatin hazi egin da apur bat eskaera kopurua, eta Arrasate ataskatuta dago, ez zaigu-eta ez-lako eskaerarik iristen, ez udal-txetik eta ezta Caritasetik ere. Udal-txetik esan ziguten zerbaitegiteko asmoa bazutela, baina oraindik ez digute ezer esan", dio Agirrebeña. Gainontzeko udal-errietan, aldaketa nabarmenik ez dutela igarri dio hark.

la-ia guztiak bergararrak

Bergarako Elikagaien Bankuak Debarroko, Urolako, Goierriko eta Tolosaldeko udal-errietan dihardu lanean, 50 boluntarioekin. "Arrasateko bi eta Elgetako lagun bat izan ezik, gainerako guztiak bergararrak gara, erretiratua ia-ia guztiak. 09:00etatik 13:00etara hemen gaude egunero".



Grupo ULMA, S. Coop.

Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIA

Eguna: 2013ko ekainaren 21a.

Ordua: 10:30ean lehen deialdia eta 11:00etan bigarrena.

Tokia: MU-Enpresagintzako auditorioa - Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

1. Aurreko akta onartzeari buruzko txostena eta bi bazkide izendatzea batzar honetako akta onartzeko
2. 2012ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea eta 2013ko Gestio Plana eta kostu mankomunatuak jardura eta zerbitzuen aurrekontua berrestea
3. 2012ko ekitaldiko urteko kontuak onartzea
4. 2012ko ekitaldiko emaitzak banatzeko proposamena
5. ULMA Taldeko kooperatibetako POGU III, Estatutu Sozialak eta Barne Araudi Kooperatiboa aldatzea onartzearen berrespina, hala badagokio
6. ULMA Talde mailan aplikazio orokorreko eta araudi izaerako gaiei buruz kooperatiba bazkideen Ohiko Batzar Nagusiek hartutako erabakiak berrestea
7. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea
8. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
9. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
10. Ahalmenak eskuordetzea
11. Galde-eskeak

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri ditzuzten urteko kontuak eta emaitzak aplikatzeko proposamena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan dituzten. Bazkide guztiei jakinarazten zaie eskubidea dutela, Grupo ULMA, S. Coop.eko helbide sozialean proposatutako estatutuen, Barne Araudiaren eta POGU IIIaren aldaketan testu osoa aztertzeke, eta doan emateko edo bidaltzeko eska dezaketela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2013ko ekainaren 7a

ZABALIK

ENEIDA ITURBE
http://goiena.net/iritzia/



2.740 litro ur egunero

Dutxan edo bazkaltzen, noiz kontsumitzen duzu ur gehiago? Lehen begiratuan, dutxatzerakoan askoz ur gehiago erabiltzen dugula dirudi; izan ere, minutuko 15 eta 25 litro bitartean gastatzen ditugu. Baina jaten dugunean edo janzen garenean ere ura kontsumitzen dihardugu. Ez naiz barazkiak garbitzeko eta egosteko erabiltzen dugun urari buruz ari, jakiak eta jantziak ekoizteko behar denaz baizik.

Jatordu baterako guk uste baino askoz ur gehiago gastatzen dugu. Esaterako, 2.400 litro ur behar dira hanburgesa bat ekoizteko eta 200 litro baso bat esne lortzeko. Kotoizko kamiseta bat egiteko, 4.000 litrotik gora.

Hanburgesa jaterakoan ez dugu 2.400 litro horien aztarnarik sumatzen, baina kalkulu horrek kontuan hartzen ditu abeltzaintza eta laborantza, eraldaketa, garraioa eta produktu bakoitzaren elaborazioa. Hala, *ur birtuala* kontzeptua sortu dute. Kontsumitutako produktuen ur birtualaren kopuru osoari, aldiz, aztarna hidrikoa esaten zaio.

Horrela, pertsona baten edo gizarte baten aztarna hidrikoa kalkulatzeko aukera dago. Estatu espainiarrean, esaterako, pertsonako 2.325 metro kubikoa da eta horren %36 kanpoan sortutakoa da; hau da, beste herrialde batzuetatik ekarritako produktuak ekoizten erabilitakoa. Gezurra badirudi ere, gutako bakoitzak 2.740 litro ur xahutzen ditu egunean.

Ez da erraza gure aztarna hidrikoa txikiagotzea, argi baitago hortzak garbitzerakoan iturria ixtea ez dela nahikoa. Batzuek, adibidez, begetariano izatea erabaki dute, haragia ekoizteak barazkiak hazteak baino askoz ur gehiago kontsumitzen duelako. Beste era bateko aldaketak ere beharrezkoak dira, sistema ekonomikoan, esaterako.

Debagoienean ura besterik ez daukagunean aztarna hidrikoaz aritzeak tontakeria dirudi, baina etorkizuneko gatazkak uraren ingurukoak izango direla diote, edateko ura gero eta eskasagoa baita munduan.

"Jatordu baterako guk uste baino askoz ur gehiago gastatzen dugu"

USTEAK USTE

ARRITXU BARRUSO | abarruso@goiena.com

Beatrizen amesgaiztoa

Badirudi bukatu dela Beatrizen amesgaiztoa; hori espero dut. Egunak pasa ditu San Salvadoroko ospitale batean larri. Osasun arazo larriak zituen eta haurdunaldiak arriskuan ipini zion bizitzara. Umea burmuin gabe jaio da, azkenean ere, medikuek aurrez iragarri bezala. Haurdunaldia etetea eskatu zuen. "Bizitzen jarraitu nahi dut", zioen. Harrigarria dirudien arren, El Salvadoroko Auzitegi Konstituzionalak ezezkoa eman zion. Beatrizen kasuak abortuaren gaineko eztabaida azalerratu du. Espainian ere puri-purian dagoen gaia. El Salvadoroko Gobernuaren jarrera lotsagarria iruditu zait eta argi ikusi da hor ere entzun nahi ez duen gorra baino okerragorik ez dagoela.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

Estepan Plazaola

Joxe Aranzabal
http://blogak.goiena.net/farao/

Hamahiru urte eginda Goienako lehendakari moduan, Estepan Plazaolak utzi egin du kargua.

Txapela kentzeko modukoa izan da Estepanen lana.

Goiena asmo bat zenetik, jo eta ke aritu zen lanean, Debagoieneko herri komunikabideek elkartu eta proiektu bateratua atera zezaten.

Eta baita lortu ere. Hasieran Mikel Irizarrekin orpoz orpo lanean, eta gero Iñaxio Arregi eta Iban Arantzabalekin.

Gogoan ditut hasierako bilera haiek ostiral arratsaldetan Bergarako kultura etxean, zelan, behin baino gehiagotan, Estepan agertu zen bertan bere semetxoarekin.

Eta, inoiz, semetxoak aingeruen pare egin zuela lo bilera gelan, besteok eztabaidatzen genuen bitartean gure hedabideen etorkizunaz.

Estepanek oso garbi zituen gauzak, egin nahi zituen telebista bat eta egunkari bat bailararako, eta, azken honen inguruan, datu eta zerbaki piloa ekartzen zituen bileretara.

Gizon hark nezakezina ematen zuen.

Hamahiru urtean denetik pasatu du Estepanek, eta gorabeherak ere izan ditu osasunarekin, baina Udalatxeko harria baino gogorragoa izanda, aurrera egin du beti.

Gozoa da, gainera, Estepan, eta lagun ona.

Besarkada handi bat, eta zortetik onena aurrerantzean, Estepan, onena merezi duzu-eta!

Itzalpetik

Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Espiatzen gaituztela, denok dakigun koska da.

Ez dugu piperrik balio, eta, hala ere, kontrolatzen gaituzte.

Gure irakurgaiak, bidaiak, posta elektronikoa eta besteak...

Den-dena dakite gutaz. Baita erabiltzen dugun

komuneko paperaren marka ere.

Espiatzen gaituzte. Badakigu espiaututa gaudela.

Badakite badakigula. Baina ezjakinarenean egiten genuen, inork ikusiko ez bagintu bezalako xalotasunaz dantzatzen ginen itzalen itzaletan.

Espioitzak, xarma izango badu, beharrezkoa du sekretua.

Orain, ordea, bere izaeraren xarma guztia kendu nahi diote itzal jokoari, biluztu egin nahi dute, itzalik gabe utzi.

Gallardonek du kulpa: Legearen itxura eman nahi dio espioitzari –ezaugarri nagusia ezkutukoak izatea duen aktibitateari–, eta gure ordenagailuak interbenitzea zilegitu nahi du legearen fokupean.

Obama bera ere –bere espiek Bin Laden nola hiltzen zuten telebistaz eta zuzenean ikusi zuen gizona– ez da hainbestearino ausartu.

Oharrak (Post scriptum): Txantxobola aspaldikoa, gaurko gaiari aplikatua:

Mutu batek diotso gor bati itsu bat ari dela gu espiaitzen.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola

Zuzendari nagusia Iban Aranzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate

Erredaktore burua Ubane Madera

Sailkatu arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Inaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiano, Zortza Martin,
Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetzea eta banaketa Maria Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetzea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetzea@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Kurtzebarri eskolako guraso, ikasle eta irakasleei

Leire Gorostiza eta Miren Berecibar

(Kurtzebarri eskolako ekintza batzordea)
Aretxabaleta

Euri tanta eta zaparradaren gainetik, Kurtzebarri eskolako ikasle, guraso zein irakasleok gure ilusioari eusteko indarra erakutsi genuen joan zen zapatuan. Tantz tanta, erreka berde erraldoi alaiatz busti genuen Aretxabaleta.

Horregatik, egun borobil hori aurrera eramaten lagundu zenuten guztiei, banan-banan, eskerrak ematea ezinezkoa zaigunez, lerro hauen bitartez: batukadako parte hartzaileei; trikitilari, hanka-palo, erraldoi eta buruhandiei; frontoia prestatzen eta jasotzen ibili zinetenei; Gurabarri guraso elkartekoei; Karaokean parte hartu zutenen; 6. mailako ikasleei eta beste hainbat ekintzatan lanean aritu zineten guztiei, eskerririk asko, bihotz-bihotzez.

Badakigu gurasoen, ikasleen eta irakasleen arteko elkarlana kalitatezko hezkuntzaren giltza dela. Eta, horren eredu garela erakutsi genuelako, aurrerantzean ere, bide horretan *Bihotzez ikasi* lelopean egin dezagun aurrera!

Independentzia, laster baten

Jon Otero Uribarren
Arrasate

Baikor izan gaitezen, bada posible independentzia eta, nola ez, euskal estatu bat lortzea.

Nola? Amore emanez *lurraldetasun* zernahiri. Ez?

Baina, mesedez, jaun-andreok, nafarren %70 ez

dira abertzaleak, espainolistak edo basko espainiarrak sentitzen dira. Are gehiago, zer esanik ez, Iparraldean. Nola izango da gure nazioaren parte, ez badu euskal nazio kontzientziarik? Errespeta dezagun Nafarroa. Iraganean zer izan ziren? Gaur egun zer diren dio axola. Duguna da.

ETA bareturik, bozka abertzalea ugaritu egingo dela Nafarroan? Ez dakigu.

Arabian irabazi dugu abertzaleek, ozta-ozta, aspaldiko partez. Beraz, euskal nazio kontzientzia dago Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian. Hori da euskal nazioa, gaur egun, independentzia nahi duen Euskal Herriaren gaurko egitatea. Iragana iragan, hor irabazten dugu, eta ez, oraingo, Nafarroan eta Iparraldean.

EAJk eta EH Bilduk, kostata, baina amore eman beharko diete Nafarroari eta Iparralderari, beren independentzia nahian.

Estatu espainiarrak, borondate hori ikusirik, orduan berrikusiko du Konstituzioa, eta elkar negoziatzeko, aldatu eta onartu EA Eren, hots, Euskadiren subiranotasuna. Baita presoen amnistia ere.

Zentzu ekologikoa

Josu Garitaonandia
(Equo Bergara)
Bergara

Mundu gaixo baten bizi gara; Amazonasen zuhaitzak mozteak klima aldaketan du eragina; Txinan sortzen den kutsadura munduan zehar banatzen da; Fukushimako erradiaktibitatea Amerikan neurtzen dute; Alemaniako lantegien kutsadurak ipartar basoetan du eragina, e.a.

Bestetik, bizi garen gizarte globalizatu hau ere gaixo dago, bere ardatzean dirua baitago, eta ez gizakiaren ongizatea.

7.000 milioi baino gehiago

bizi garen planeta honetan, bakoitzak bizitzari ematen diogun zentzuan dago aldaketaren gakoa.

Norberarentzako zer den garrantzitsua eta zer ez, horrek eragina edukiko du gure planeta eta gizartearen osasunean, eta, era berean, gure planetaren eta gizartearen osasunak bakoitzaren osasunean du eragina.

Bizi garen mundu globalizatu honetan zentzu garrantzitsuena zentzu ekologikoa da, pertsonak parte hartzen duen sistema guztien oreka bila dabilen zentzua delako.

Oñatiko EAJko aurreko Udal Gobernuaren gardentasun eta kudeaketa "bikaina"

Mikel Biain
(Oñatiko Udal Gobernu Taldearen izenean)
Oñati

Aurreko asteko ostiralean Oñatiko udaletxean EAJko oposizioako bozeramaileak sinaturiko gutuna irakurtzeko aukera izan genuen Noticias taldeko egunkari batean. Bertan, Oñatiko herritar askok atez atekoarekin hasteko ilusioa dutela ez onartzeaz gain, kuboen banaketaren arrakasta herritarrek "fitxatuak" geratzeko duten beldurratetik zela ondorioztatzen zuten eta Diogenesen sindromea ere ironiaz erabiltzen zuten bere ondorioak azaltzeko. Ez da lehenengo aldia Oñatiko oposizio-buruak herritarrek beldurtuta ditugula esaten diguna. Urte hasieran balkoietako poltsen kanpainak goia jo eta espero baino emaitza kaskarragoak ikusitakoan, jendea

"beldurtuta" dagoela adierazi zigun.

Egun hiri hondakinekin dugun arazoa kontuan izanik, Udal Gobernu osatzen dugunok hauteskundeetara aurkeztu ginen momentutik argi eta garbi esan genuen gure herrirako atez atekoaren aldeko apustua egiten genuela. Pasa zen urteko martxoan *Atez ate, auzoz auzo* izenburupean buruturiko saioetan 900etik gora herritarrek parte hartu zuten. Saio hauetan, hiri hondakinen arazoa, Europako 2008/98 zuzentzarauak finkatzen duena, errausketa, agertoki ezberdinen arteko alderaketa ekonomikoa, etab. azaldu zitzairen herritarrei bertatik bertara.

Aurtengo urtarrilean buruturiko parte hartze saioetan 800etik gora herritarrek parte hartu zuten eta Oñatiko ereduari ekarpenak egin zizkioten: bilketa moduak, esekitoki kokaguneak, ordutegiak...100etik gora ekarpen jaso ziren eta Udalak denak aztertu ditu.

Azkenik, maiatzean ezarpen fasean sartu ginen. Burutu ziren 12 bileretan 1.400 herritarrek parte hartu zuten. Bilera hauetan, Oñatin abian jarriko den sistemaren ezaugarriak jakinarazi zitzairen herritarrei, aurreko saioetako ekarpenen berri emanez eta lehenetsitako aukerak azalduz.

Buruturiko saio guztietan hondakinen arazoaren inguruan denetariko iritzia entzun dira: bilketari dagokionez, tratamenduari dagokionez... era guztietako iritzia eta eztabaida interesgarriak, baina, betiere, normaltasun giroan.

Oposizio-buruak sinaturiko gutunean, Bilduko Udal Gobernuaren gardentasun falta eta kudeaketa kaskarra ere aipatzen zituen. Seguruenik, ez dugu berdina ulertuko gardentasunaz eta kudeaketa onaz. Hori izango da. Gogoratu behar da pasa zen urteko urrian Mankomunitatetik bailarako udaletako oposizio taldeen esku jarri zela atez

atekoaren ezarpenaren txosten ekonomiko zehatz bat. Oñatiko Udaleko oposizio-buruak ere txosten honen kopia eskuratu zuten.

Bestalde, esekitoki, eskuorri eta abarretan ere "milaka eta milaka" euroko kontrol bako gastua leporatzen zigun. Argitze aldera esan behar da esekitokiei dagokienez 78.000 euro direla Oñatiri dagozkionak (Mankomunitateak ordainduak) eta, bestalde, komunikazio euskarriei dagokienez 2012. eta 2013. urteetan 4.000 euroko gastua burutu dela.

Aurreko Udal Gobernuaren "gardentasun" eta kudeaketa "bikainaz" luze eta zabal hitz egin liteke. Adibide bat jartzearen, Urrutxuko makroproiektua. Obra guztiauren kostuen aurreikuspena 13.000.000 eurotik gorakoa izan zen eta obra ez bukatu arren 850.000 eurotik gora ordaindu zitzaizkion aholkularitza enpresa bati eginiko azterketen honorario kontzeptuetan.

Zenbat herritarrekin partekatu zuen EAJko Udal Gobernuak proiektu honen ezaugarri, kostu eta bideragarritasuna?

Egungo Udal Gobernuari ere, 2011ko ekainean, gobernu aldaketa burutzeko momentuan, ez zitzaigun Urrutxuko lanen inguruko finantza egoeraren berri eman eta Udalean sartu eta hilabeteetara jakin dugu Udalak %51ko jabetza duen enpresa batek 700.000 eurotik gorako zorra duela hirugarren enpresa batekin, proiektuaren kudeaketan izandako aurreikuspen faltaren ondorioz.

Gardentasunaren eta kudeaketa onaren inguruan denok izango dugu non hobetu, ez dugu zalantzarik. Guk konpromisoa hartzen dugu bide honetan ahalegin berezia egiteko, baina inolaz ere ez dugu onartuko EAJko bozeramaileak honen inguruko ikasgaiak ematea.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

PEDALKA

FRANTZIAKO ALPEAK ALDERIK ALDE BIZIKLETAZ JULEN IRIONDOREKIN
GOIENA TELEBISTA | EKAINAK 20, 21:50



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA **goiena**

Jose Migel Aiertza | Adegiko idazkari nagusia

"Alemanian ez dute ulertzen zelan dagoen horren irudi txarra enpresekiko Euskadin"

- ▶ Gipuzkoako enpresen egoera larriaz ohartarazi du enpresaburuen idazkari nagusiak
- ▶ Langileek, ugazabek eta erakundeek elkarrekin norabide berean jardun behar dutela dio

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Ardurata agertzen zaigu Gipuzkoako enpresaburuen elkarteko idazkari nagusia, Jose Migel Aiertza. Kezkatuta, krisia luze doalako, enpresek finantzazio premia dutelako eta sindikatuak beste inon ez bezala ari direlako kontra. Kultura aldaketa aldarririkatu du.

Zein da momentuko egoera?

Egoera txarra da eta azkeneko datuak ez dira batere onak: iazko azken hiruhilekoa eta aurtengo lehenengoa benetan txarrak izan dira, batez ere Europako ekonomiak behera egin duelako. Aurtun, oraingo, 233 enpresa itxi dira. Iaz urte osoan itxi zirenen erdia. Finantzazioak garrantzi handia du eta, bestalde, babes eta malgutasuna beharrezkoak dira: enpresaburuen aldetik bai, baina langileen aldetik ere bai. Elkarlana beharrezkoa da. Egoera hau ez dugu ezagutu azkeneko 80 urteetan. Egoera ezohikoan gaude eta denon laguntza beharrezkoa da.

Finantzazioa aipatu duzu.

Bai. Sei urte luze doaz. Krisia luzea eta sakona da. Krisiaren lehen urteetan, 2008an eta 2009an, jardura ekonomikoari aurre egiteko enpresek bazituzten erreserbak, krisiaren aurreko 14-15 urteak oparoak izan zirelako, oro har. Baina krisiak ez du amaierarik eta erreserbak agortu dira. Finantzazio premia dute enpresek. Baina irtenbiderik ikusten ez denez, enpresen itxiera, kalera-tezak, langabezia... horixe da panorama.

Esportazioek behera egin dute?

Krisialdiaren lehen zatian, lehen hiruzpalau urteetan, atzeraldiaren ondorioak txikiagoak izan ziren hemen Espainian baino. Modu sendoagoan egin genion aurre krisiari. Esportazioari esker izan zen hori. Gure salmenten herena Espainiatik kanpora egiten dugu. Eta horri esker aurre egin genion krisiari. Baina, azkeneko urtean, Europak atzera egin duen heinean —eta diot Europa, ze gure kanpoko salmenten ia %55a Europan egiten baitugu—, hemengo enpresen egoera txartu egin da. 2013ko lehen hiru hilekoan, esportazioek %12 egin dute behera. Aldiz, 2012ko lehen hiruhilekoan, 2011ko epe berarekiko, %12 egin zuten gora. Aldaketa nabarmena da.

Konponbidea da merkatu berriak aurkitzea?

Bai, argi eta garbi. Horretan dabilta hainbat enpresa. Baina merkatu horiek konplexuagoak dira eta, bestetik, urrutiago daudenez,

zailtasunak handiagoak dira. Gainera, mundu osoa dabil merkatu horietan sartu nahian. Lehia areagotu egiten da eta merkatu berrietan sartzeko gure lehiakortasuna handitu egin behar da.

Lehiakorak dira Gipuzkoako enpresek?

Azkeneko 15 urteotan gure lehiakortasunak atzera egin du. Adibidez, lan kostu unitarioa kontuan hartzen badugu, hau da, lan kostua eta produktibitatea, 33 puntu galdu ditugu Alemaniarekiko. Eta gure erronkak izan behar du galdutako puntu horiek berreskuratzea. Horretarako proposatzen dugu lan kostuak kontrolatzea eta ez daitezela igo produktibitatearen ginetik azkeneko urteotan gertatu den moduan; bestetik, produktibitatea hobetu behar da. Modu horretan izan gaitezke lehiakorago ekonomia globalizatu honetan.

Enpresek, erakundeek, hezkuntza munduak, langileek... elkarrekin jardun behar dute lehiakortasuna irabazteko?

Bai, zalantzarik gabe. Lan kostuari lotuta daude, esaterako, lan harremanak, zerga politikak, finantzazio iturriak, Ikerketa eta Garapena, azpiegiturak, formazioa, nazioartekotzea... Guztiei ekin behar diegu produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzeko. Merkatuak eskatzen du, ez da gure kapritxo. Gure enpresak lehiakorak ez badira ez dute salduko eta ez badute saltzen jarduerarik ez dute izango eta, ondorioz, lanpostuak ezin izango ditugu ez sortu eta ezta eutsi ere. Dazkagun lanpostuei eutsi eta berriak egitea izan behar da helburua. Horretarako, ezinbestekoa da lehiakorak izatea.

Iaz, 531 enpresa galdu ziren Gipuzkoan. Iazkoa izan da orain arteko urterik txarrena?

Bai. Aurtun, halere, okerragoa da egoera, oraingo. Aurtengoa da krisian gaudenetik urterik txarrena eta, seigarren urtea da. Enpresek ia ez dute baliabiderik egoerari aurre egiteko.

Gipuzkoan enpresa txiki eta ertain asko dago. Itxi dituzten gehienak halakoak dira?

Bai. Gipuzkoako enpresen %95 baino gehiagok dituzte 10 langile baino gutxiago. Eta enpresa txikiek finantzazioa behar dute premiei aurre egiteko. Baliabiderik gabe, erronka berriei aurre egiteko dirurik ezean, itxi beharrean aurkitzen dira enpresa txiki edo ertain asko.

Erakunde publikoek egiten dute euren eskuetan dagoen guztia?



Adegiko idazkari nagusia Arrasaten, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

"Azkeneko 15 urteotan gure lehiakortasunak atzera egin du"

"Pedagogia behar da: lanposturik ez dago enpresarik ez badago"

"Gipuzkoako enpresen %95ek dituzte 10 langile baino gutxiago"

Oso erraza da kritikatzeta. Baina errealitatearen azterketa egin behar da. Aurreiritzi ideologikoak edo dogmatismoak alde batera utzita. Ekonomiaz egin behar dugu berra. Eta ekonomia txarto dago, ez bakarrik Gipuzkoan. Arazo globalagoa da. Finantza krisia da, baina badago beste krisi bat: gartzeko bidean dauden herrialdeak jokalar berri bihurtu diren heinean, lehiakortasuna areagotu egin da eta bi faktore horiek parean tokatu zaizkigu.

Zela konpondu?

Akordiotara heltzeko borondate eta ahalmen handiagok behar ditugu. Bai langileek eta baita enpresaburuek ere aitortu behar dute jardura ekonomikoa enpresan garatzen dela. Enpresak ez baditugu babesten eta ez badiegu bideragarritasuna ematen, ez da lanposturik sortuko. Hortaz, guztiok daukagu erantzukizuna. Bai erakundeek, politika ekonomiko egokiak bultzatuz; baita langilek,

beren konpromisoarekin, eta baita enpresaburuek, beren apustuarekin eta inbertsioarekin. Denok egin behar dugu arraun norabide berean.

Ze balorazio egiten duzue azken greba orokorrarena?

Grebak ez du balio lehiakortasunean aurrera egiteko. Kalte egiten dio. Alemaniako sindikatuek, greba egiterakoan, langileen %65eko aldeko bozka behar dute greba egiteko. Hori hemen aplikatuko balitz, azkeneko urteotako hainbat greba ez lirerateke aurrera aterako. Baina, berriro diot: hemen beharrezkoa da gehiago eta hobeto lan egitea, gure produktuei balio erantsi handiagoa ematea, gure pertsonak formatzea... Grebak ez du horretan laguntzen.

Sindikatuak iragarri dituzte grebak metaleko lan hitzarmenaren alde.

Ez gaude ados, jakina. Baina hausnarketa sakonagoa egin behar dugu: enpresek sortzen dituzte lanpostuak Gipuzkoan. Izan ere, lanpostuen %85 enpresa pribatuan daude. Hortaz, enpresak nahi ditugu ala ez ditugu nahi? Ez baditugu nahi, lanposturik ere ez dugu nahiko... Beste eztabaida bat da enpresa horien diru-irabaziaz zela banatzen diren, zergak zela eta zenbat ordaintzen diren... Baina, aberastasunik lortzen ez badugu eta aberastasuna sortzen duten horien aurka bagaude, etorkizun beltza daukagu.

Ze gertatuko da lan hitzarmen kolektiboekin?

Adegi eskaintzen ari da orain indarrean dagoen lan hitzarmen kolektibo berritzea. Azken urteetakoa. Egoera okerragoa izan arren orain. Sindikatuek ezetza eman diote horri. Horregatik ari dira grebak egiten. Etorkizuna langileen esku dago. Enpresen aurka jartzen badira, enpresak desagertu egingo dira.

Jendarteak pelikulako gaiztoak moduan ez zaituzte ikusten?

Eragile publiko eta sindikatuetako ordezkariak arduragabekeria handiz dihardute. Gure seme-alaben ogiarekin ari dira jokatzeko. Alemanian ez dute ulertzen zela, batik bat Euskadin, dagoen horren irudi txarra enpresekiko. Norvegian, Danimarkan, Suedian, Alemanian... ez da hala gertatzen. Pedagogia behar da: enpresarik ez badago ez dago lanposturik.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, beheka, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, beheka / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENENKO ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, beheka / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, beheka / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 beheka ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 beheka

620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, beheka / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, beheka / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, beheka / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, beheka esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA

Bergara / 646 06 28 18

arkaitz.irazabal@gmail.com

BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE

Arrasate / Uarkape kalea 14, beheka / 657720049

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, beheka

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

DUELA 10 URTE

2003-06-14

Mondragon alkate izendatu zuten

Gaur bertan duela hamar urte izendatu zuten Mertxe Mondragon Aramaioko alkate. EAJ-EA koalizioko zinegotzien babesarekin izendatu zuten, baina osoko berezi hartan giro desatsegina eta herritarren protestak izan ziren protagonista. Ilegalizazioen garaia hasi berri, Hamalau plataformako kideek -ezker abertzalearen ordezkariak orduan- hauteskundeetan jasotako 300 botoei zegozkien eserlekuak aldarrikatu zituzten osokoan.



Udalbatza eratzeko osoko bilkura. | UBANE MADERA

2003-06-13

Maidar Unda, lesionatuta

Oletako borrokalariak lotailu gurutzatua hautsi zuen, eta Madrilen hainbat proba egin ostean, erabaki zuen ebakuntza egitea zela irtenbide bakarra. Maiatzaren 14an egin zioten lehen ebakuntza eta orduan konturatu ziren meniskoa ere guztiz hautsita zuela. Ekaineko azken astean beste ebakuntza bat egin zioten. Garai latzak izan ziren 2012an Londresen brontzezko domina lortu zuen borrokalariarendako.

DUELA 5 URTE

2008-06-13

Kalteak hainbat txokotan

Herriko zenbait txoko kaltetuta agertu ziren duela bost urte. Erreka ondoan, kultura etxearen parean, orduan berria zen baranda apurtuta agertu zen eta haurtzaindegi ondoko ume-kotxeak gordetzeko txabolatxoan ere kalte ugari izan ziren. Haur, gazte-txo eta gurasoei arduratsuagoak izateko eskatu ziren Udalak.

ARAMAIO

HERRITARRAK

Santi Elejalde Ehizan, perretxikotara, kantuan, sukaldean, eskulanetan eta beste eginbehar batzuetan trebea izateaz aparte, bihotz oneko pertsona eta Aramaioko historia bizia da Elejalde | JOKIN BEREZIARTUA

"Gure amak frontean zeuden gudariei taloak egiten zizkiela gogoratzen dut"

Historia bizia da Santi Elejalde (Aramaio 1933). Azkoagako Saturralde baserrian jaioa, bizitza osoa darama Aramaion: "Herri ederra da bizitzeko". Mahaia-aren bueltan kontu-kontari aritzea gustuko du, baina elkarrizketa formalak eta argazkiak ez zaizkio gustatzen. Eskerrak azkenean onartu duen proposamena, gozamina izan da eta harekin batera iraganeko Aramaio irudikatzea. **Aramaio bizi izateko herri ederra dela diozu. Zergatik?**

Niretako, bai. Etxetik irten eta mendian zaude; nire zaletasun handienek mendiarekin dute zerikusia. Herri ederra da bizi izateko. Bizitza osoa daramat hemen, 80 urte. Horietatik 52 urte ezkondu egin ditut Ibargoian. **Ehiza da zaletasunetako bat. Oso gazte hasi zinen?**

Bai, oso gaztetatik ehizatu izan dut. Gogoratzen dut aita zena gauez txakurrarekin batera kirikinoak harrapatzerira irteten zela, okela ekartzeko. Katuak ere harrapatzen zituen... Erbiak ehizatzen, bestalde, urte osoan zehar zepoak jartzen ziren eta oiloak kazolekin hartzen genituen. Garai hartan hala bizi ginen.

Zenbat aldatu den panorama...

Bai, ehiza asko aldatu da. Orain, gehiena debekatuta edo askoz mugatuago dago. Lehen, alde guztietan ehizatzen zen; Pilarika egunean irekitzen zen ehiza-barrutia eta otsailaren 20ra arte egunero ehiza zitekeen. Denetarik zegoen ehizatzen, Aramaion bertan. Orain, semeari laguntzera irteten naiz basurde bila, baina gero eta gutxiago.

Lanean ere goiz hasi zinen, ezta? 15 urterekin Felipe Madina zena-ekin joan nintzen lanera, Kanpanzarko bidegurutzean zegoen aroztegira. Han hiru urtez aritu nintzen eta gero Zerrajerara joan nintzen, torlojugintzan lanera.



Santi Elejalde, Oilgor ehiza eta arrantza elkartearen egoitzan, asteon. | JOKIN BEREZIARTUA

"Lehen, Pilarika egunetik otsailaren 20ra arte egunero ehiza zitekeen"

"Rockeroak Andra Mari ermitan elkartu zirenean nik prestatu nien janaria"

Han zigortuta egon ginen. [Barre] Zerrajeran nobilela, zizak batzeko ohitura handia nuen, aita zenak erakutsita. Lanetik etxera bidean, bide bazterretan, 50 bat ziza-leku zeudela gogoratzen dut. Hori guztia amaitu zen kamioiak errepidea garbitzeko produktu kimikoak botatzen hasi zirenean.

**Sukaldean ere gustura, jende asko-
rendako, gainera.**

Askok gustatzen zait sukalde. Andra Mari ermitan rockeroak elkartu zirenean [Eguzkierripa Rock jaialdia] nik prestatu nien janaria. Etxean prestatzen dut, garajea. Urte asko daramatzat horrela; eskatzen didanari egiten diot, askorik kobratu barik. Gustura aritzen naiz eta laguntzeko aukera ematen dit; ederto.

Jaiak izango dira laster. Parrandazalea zara?

Gazte denboran izan nintzen; pobreak ginen orduan, baina

hobeto bizi ginen. Gaur gaur ez da inor dantzatzera irteten. Orain ez daukat irteteko ohiturarik.

Dantzaldi berezi haiek iraganeko kontua direla onartu behar. Bitxikeriaren bat partekatzerik?

Neskak dantzan irteten zirenean mutilek ordaindu egin behar izaten zuten. Ni kobratzen aritutakoa naiz; mutilak neska hartu ostean erreal bi kobratzen genion mutilari. Orduan lege bat zegoen: behin ordainduta neska horrek ezin zuen beste mutil batekin dantzan egin. Lege hori urratzeagatik belarrondoko bat edo beste ikusi izan dut nik.

Bizente Goikoetxea abesbatzako kide ere bazara. Noiztik?

40 bat urte daramatzat. Gustura aritzen naiz, asko gustatzen zait abestea eta baita abesten ikustea ere. Telebistan abesten ikasteko dauden saio horiek gustura ikusten ditut, esaterako. Tamalez, abesbatzan gazteen erreleborik

ez dago; zerikusi zuzena du Elizak galdu duen pisuarekin.

Aramaiora zinema ekartzearen arduradunetako bat ere, zu.

Bai, Arrasatetik ekartzen genituen pelikula. Egun ere ematen dituzte pelikula kultura etxean, baina orain, samurragoa da. Lehen, sekulako bobinak izaten ziren, oso deserosoa zen. Gero, noski, Francok inposatutako *No-Do*-a erakutsi behar...

Oso gazte zinela gerra bizi izan zenuen lehen pertsona. Ze oroitzen daukazu?

Gogoratzen dut gure amak frontean zeuden gudariei taloak egiten zizkiela. Balek baserriko atea zutatu zutela ere gogoan dut, eta behin ama zenak gaueko ordu bietan esnatu gintuela Gantzagara joateko, hura ez zutelako bonbardatu behar. Azkenean, ez ginen joan, errotan geratu ginen *erro-sarioa* erreztatzen. Bomba hotsak ere gogoratzen ditut.

NIRE HERRIAN

HERRITARRAK, BERTAKOAK

Bertako jendea da herritik gehien gustatzen zaidana. Betiko aramaioarrez gain, azken urteetan etorri direnak ere oso jatorrak dira. Arrasateko batzuk etorri dira, oso jatorrak. Horrez gain, etxetik irten eta berehala mendian egotea ederra da. Hemen ditugun parajeak ez daude edonon; altxor bat dira, zaindu egin behar ditugu.

GABON EGUNEKO FESTA GALDUTA

Zerbait txarra esan behar badut ohitura eder bat galdu izana aipatuko nuke. Orain errekuperatu guran dabilta: gazteak ginenean, Gabon egunean, 19:00 aldera kalekoak eta auzotarrak elkartzen ginen eta ardo ona edaten genuen 20:30 aldera arte, denok elkartuta. Gure ilusio handietako bat izaten zen festa hura.

HERRIAK

ARRASATE

Erretiratuaren etxeak, inoiz baino biziago

Bailarako beste herrietan gertatzen ez den moduan, Arrasaten erretiratu etxe bat baino gehiago daude

ANE ETXEBERRIA | ARRASATE

Arrasateko kasua oso berezia da; izan ere, bailarako beste herrietan gertatzen ez den moduan, ia herriko auzo bakoitzean erretiratuaren etxe bat dago. Toki Argi, Musakola eta Abaroa dira herriko egoitzak eta esan daiteke hiruretan jende asko biltzen dela egunero-egunero.

65 eta 90 urte arteko erretiratuak elkartzen dira, normalean, egoitza horietan. Hiru egoitzetan egunero pertsona asko biltzen da, eta, gehienetan, ekintza nagusia karta-jokoa da. Arrasaten ohitura eta zaletasun handia dago karta-jokoan ibiltzeko eta erretiratuak argi uzten dute; izan ere, 15:00etatik 21:00ak bitarte jendez lepo egoten da, behintzat, Musakolako erretiratuaren etxea. "Arrasaldeko hiruretatik aurrera 65-70 urte bitarteko gizonezko asko egoten dira, eta baita 80 urtetik gorako emakumezko ugari ere. Musakolan alargun asko dago eta gehienak hona etortzen dira koadrilatxoan arratsalde-pasa eta kartetan egitera", adierazi digu Jesus Mari Apraizek, Musakola erretiratuaren etxearen presidentea.

Auzo bat, errealitate bat

Auzo bakoitzak bere errealitatea bizi du, auzokideen egoera ez da berdina; hala, urtez urte erabiltzaileen profila asko aldatu dela adierazi dute. "Lehen, erretiratuaren etxearen instalazioak nagusiek erabiltzen zituzten; hau da, 80 urtekoek, gutxi gorabehera. Gaur egun, aldiz, geroz eta gazteagoak



Eskularen tailerrak ere arrakasta izaten du. | ANE ETXEBERRIA

dira erabiltzaileak. Kontuan izan jende asko, 58 urterekin, aurretik erretiratu dela; hortaz, 65-70 urte bitarteko asko daude gurean", dio Apraizek. Toki Argi etxean,

aldiz, gauzak desberdinak dira; hori dio, behintzat, Emilio Hermina presidentea: "Gaur egun, gazteek ez dute ordu askorik ematen hemen. 65-70 urte bitar-



Karta-jokoa izaten da ekintza arrakastatsuen egunero. | AE



Adin guztietako jendea elkarrekin Musakolan. | AE

teko lagunek pasada txiki bat egiten dute, trago bat hartu eta joan, ez dira arratsaldea pasatzen geratzen, elkarte gastronomikotara joateko ohitura handiagoa dute".

Errealitate desberdin hori argi islatzen da erretiratuaren etxeen erabiltzean; izan ere, adibidez, Musakolako eta Abaroako auzoan ongi integratuta daude eta auzokideak bertara joaten dira trago bat edo beste hartzera astean zehar eta asteburuetan. Guztietan, halaber, antolatzen dituzten ekintzetan parte-hartze handia izaten dela

aitortu digute presidentek. Ekintza nagusian ere bat egin dute guztiek; izan ere, karta-jokoa da izarra. Hala ere, eskulanak, koadro margoketak, puntua, ehoziri-lana, bordatuak... egiteak arrakasta handiko ekintzak dira. Bidaia ere hiru egoitzetan oso arrakastatsua izaten dira, asko animatzen baitira.

Bidaia eta txangoak

Egun-pasa zein astebeteko bidaia antolatzen dituzte eta guztietara nagusi askotxo apuntatzen dira. Adibidez, datorren asteko bidaia bat antolatu dute Toki Argiko kideek: 52 lagun Mosku eta San Petersburgo ezagutzera doaz ekainaren 19tik 26ra bitartean. Hortaz, ikus daiteke eguneko txangoak egitea gustuko dutela, baina, aldi berean, astebeterako edota egun bat baino gehiagoko irteerak ere gustuko dituzte Arrasateko erretiratuak. Osasuna alde izanda, errealitate berri bat bizi izan eta disfrutatzea dute gustuko herriko erretiratuak.

ESANAK

"Geroz eta erretiratu gazte gehiago daude gurean"

JESUS MARI APRAIZ | PRESIDENTEA

Merezitako omenaldia herriko nagusiei

Urtero legez, aurtengo San Juan jaietan, 80 urte baino gehiago dituzten herritarrak omenduko ditu Udalak. Ekainaren 19a aurretik izen eman beharko dute aurtengo 80 urte bete edota urte gehiago dituzten arrasatear guztiek, omenalditxoaren parte izan nahi badute, behintzat. Interesatuak BAZen eman beharko dute izena eguaztena aurretik. Laz, 102 herritar izan ziren omenduak; nagusienek 95 eta 100 urte beteak zituzten.

Nik euskara



Udako ikastaroak 2013

HABEren dirulaguntzaz

2013-14 ikasturterako aurrematrikula

Matrikula zabalik
Ekainaren 1etik 21era

16 urtetik gorakoentzat

www.udaleuskaltegiak.net

EUSKARAREN
IRAKASKUNTZARAKO
ENTITATE OFIZIALA



ARRASATEKO
UDAL EUSKALTEGIA
Arimazubi plaza 2
(Eskola Politekniko ondoan)
Tel.: 943 79 70 77
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

BEDITA LARRAKOETXEA
UDAL EUSKALTEGIA
Bidebarrieta kalea 18 - OÑATI
Tel.: 943 78 24 96
euskaltegia@oinati.net

BERGARAKO
UDAL EUSKALTEGIA
Barrenkalea 33 (Irizar jauregia)
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

LEINTZ
UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2-4 Arebabaleta
Tel.: 943 79 21 68
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

Inbaurbueta 10 Eskoriatza
Tel.: 943 79 21 68
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

Arrasate, Mondra eta ikurrina, bihar, umeen danborrada borobiltzen

Bihar, zapatua, irtengo da umeen danborrada Nafarroa etorbideetik, 19:00etan, ia 200 umekin

UBANE MADERA | ARRASATE

Arrasateko ikur esanguratsueta-ko batzuekin osatu dute aurtengo umeen danborradako karroza: Udaltxan, udaletxearen eta Portaloia argazki banarekin arkuaren gaineko alde, Mondraren ezkutua eta haren gaineko aipamena futbol taldearen mendeurrena goraiatzeko arku horren osagarri, eta, zela ez, Arrasateko koloreak eta ikurrinarenak alde-rik alde. Lauburuak ere baditu karroza horrek, ezinbestean, SUDC elkartearen ikurra ere bai, eta erdian lis-lore bat ere sartu diote, historian zaldunen ikur izan den lis-lore, hain justu.

Danborradak (umeena zein nagusia) antolatzen dituen SUDC elkarteak militante eta laguntzaile nekazekinek hilabete eman dute Nafarroa etorbideko lokalean karroza hori eraikitzen, biharko, zapatua, gertu izateko. Oraingo asteko martitzenean bukatu dute, Mikel Sanzberrok (diseinatzaile eta egilea) eta Andoni Altzelaik (SUDCeko kidea eta karrozaren egilea). "Karrozaren argazki handi horiek Dolara anaiek prestatu



Mikel Sanzberro eta Andoni Altzela, bien artean egindako karroza erakusten. | UBANE MADERA

ZORTZI KONPAINIA

- ▶ Danbor-jole berdeak
- ▶ Danbor-jole urdinak
- ▶ Kantinerak
- ▶ Sukaldariak
- ▶ Barril-joleak
- ▶ Eskoziarrak
- ▶ Praka bakerodunak
- ▶ Mikeleteak

dizkigute; eta arkuaren beheko parteko esaldia ere eurek egin dute", azpimarratu gura izan dute karrozaren egileek.

19:00etan irtengo da

Bada, karroza horren gainean 25-30 neska-mutiko joango dira bihar, egunean bertan aukeratuko dituztenak, 18:00etan Nafarroa etorbidean azaltzen diren umeen artean. Ordu hori ipini dute, hain zuzen ere, SUDCeko kideek biharko danborrada antolatzen hasteko. Irteera ordua, berriz, 19:00etan izango du eta azkeneko entsegua, goizean, 11:00etan.

Banderadunak

Danel Ozaeta jenerala aurrean duela ekingo dio ibilbideari umeen danborradak. Harekin batera banderadun moduan honako gaztetxo hauek joango dira: Elene Barcenilla SUDCeko banderarekin; Malen Balerdi ikurrinarekin eta Naia Irazola Arrasateko banderarekin. Eta haiei jarraiki zortzi konpainia aterako dira, ia 200 neska-mutiko, guztira. "Iazko antzerako kopurua da", adierazi du Juan Luis Arkauzek, SUDC elkartearen presidentea.

Ibilbidea, tradizionala

Aldaketarik ez, beraz, kopuru aldetik. Bai, ordea, konpainieki dagokienez; izan ere, urteotan atera izan den txikitxoaren konpainiarik ez da izango aurtengoa, "inork ez duelako izenik eman". Edozelan ere, esandako moduan, txikitxo mordoxka batek izango du lekutxo karroza gainean.

Eta aldaketarik izango ez duena ibilbidea da: Nafarroa etorbidean -Hotel Mondragon-Biteri plaza -Maalako Errabala-Portaloia-Herriko Plaza. Ohi duen moduan, eta ezustekorik ezean, 20:00-20:30 inguruan iritsiko da plazara, han *Tatiago, Iriyarena, Gora Arrasate* eta gainontzeko kantuekin erakustaldi nagusia egiteko.

Eguraldi ona, seguru

Jakina, hori guztia bete ahal izango da eguraldiak laguntzen badu. Orain dela pare bat urte, adibidez, ibilbidea aldatu eta, besteak beste, Jokin Zaitegi plazako arkupeetan hartu behar izan zuen aterpe umeen danborradak orduko euri-zaparradarengatik.

Ez da, baina, horrelakorik espero biharko: "Eguraldi ona egin behar du, seguru", adierazi du Juan Luis Arkauzek, inolako zalantza barik.

TARIFA FINKOAK INFORMATIKAN

- Word.
- Mekanografia.
- Access.
- Sistema Eragileak.
- Power point.
- Excel.
- Internet.

IRAKASLEEN FORMAZIOA

- Irakasleen formatzailea. (Lanbide prestakuntzara edo etengabeko prestakuntzara zuzendu nahi duten profesionalentzako ikastaroa.)

INGELESA

- Azterketetara prestatzeko ikastaro trinkoak.
 - Pet
 - First
 - Advanced
- Ingelesa bigarren hizkuntza daukaten Irakasleentzako Didaktika eta Metodologia.



ESKOLA PARTIKULARRAK

- LMH / DBH
- Batxilergoa
- Enpresa ikasketak
- Ingeniaritza

Infomazio gehiago: 943793533
bastida@bastida.es
www.bastida.es



Urteaga zinegotzia eta Elizburu AEK-ko arduraduna aurkezpenean. | J.D

Berritasuna eta tradizioa uztartuta

Sanjuanetako egitaraua egiteko eragile sozialen eta norbanakoen aldetik lortutako inplikazio eta lana azpimarratu eta eskertu ostean aurkeztu zuten aurtengo egitaraua, martitzenean.

Nabarmentzekoen artean, honakoa: 1.000 euro gutxiagoko aurrekontua izan arren, jaiak egun bat luzatu dituztela: ekainaren 22tik 26ra (kontuan hartu barik oraingo asteburuko ekitaldiak).

Eta berrikuntzen artean ere bada zer esanik; besteak beste, musika eskaintza zabalagoa izango dela, jaien parte-hartzean eskaera gehien izan duen atala horixe izan delako. Musikarako Seber

Altube plazan beste agertoki bat izango dela ere jakinarazi dute. Eta joan den urtean hasi zituzten ekintza batzuk indartu egin nahi izan dituzte, izan zuten harrera ona kontuan izanda: *Zuk ein zuk jan*, Patximatxin, kantu afariak... Hala ere, San Juan jaiei kutsu eta magia berezia ematen dieten hitzorduak ez dira falta izango. Besteak beste, errementari-dantza, Dragoi Jana, txupinazoa, danborrada, entzierroak, gaitariak...

Egitarau osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



17 postu biharko baserritarren azokan

M.B. | ARRASATE

Hileko hirugarren zapatuan hutsik egin barik, bihar, baserritarren azoka egingo dute Seber Altube plazan, 08:30ean hasita, eta, aspaldiko partez, eguraldi onarekin.

17 postu egongo dira. Horietatik lau baserritar arrasatearrak dira eta beste lau Debagoieneko baserritarrak. Horiek guztiek denboraldiko produktuak izango dituzte: ezta, gazta, ogia, haragia eta beste hainbat.

Beste eskualde batzuetatik etorriko diren saltzaileak zazpi izango dira, eta horiek gurean egiten ez diren bestelako produktuak izango dituzte salgai; besteak beste, ahuntz-gazta, oilasko-haragi ekologikoa eta ahatekiak.

Pintxoak ere bai

Era berean, postua izango dute Harreman bidezko merkataritza dendak eta Juan Mari Zuazubiskarrek, baserrirako makinekin eta lanabesekin. Azkenik, pintxoak dastatzeko postua ere egongo da Seber Altuben.



Martitzeneko agerraldian Enplegu eta Garapen Ekonomiko Saileko ordezkariak eta enpresari txikiak egon ziren | J.D.

Enpresa txikietan lanpostuak sortzeko 35.000 euroko laguntza

Interesatuak abuztuaren 5era arte eska dezakete laguntza udal bulegoetan

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Arrasateko Udalaren Enpresa Berriendako Laguntza Programak 35.000 euro ditu enpresa txikien artean banatzeko. Sortutako lanpostu egonkor bakoitzeko 1.800 eta 4.140 euro arteko laguntza emango dute. Hori horrela, Udalak hiru urtez mantendu beharreko 13 lanpostu egonkor sortzeko ahalmena dauka.

Horiek dira enpresa txikien jardura indartzeko Arrasateko Udalak dituen baliabideak. Datuon berri emateko agerraldia egin zuten martitzenean Enplegu eta Garapen Ekonomiko Saileko zinegotzi Joserra Askasibarrek eta sail bereko teknikari Marga Garmendiak.

Era berean, Udalaren laguntza jaso duten lau enpresetako

DATUA

13

LANPOSTU

Horiek dira Arrasateko Udalak diruz lagunduko dituen lanpostuak.

ordezkariak euren esperientziak kontatu zituzten.

Laguntza eskatzeko epea zabalik dago: abuztuaren 5a baino lehen egin behar da eskaera udal bulegoetan.

15 langile baino gutxiagokoak

Askasibarrek esandakoaren arabera, laguntza 15 langile baino gutxiago dituzten enpresendako da eta kalitatezko lanpostua izan behar du: egun osoko jarduneko mugagabeko kontratua duena edo autonomoarena. "Programaren helburua ez da horrenbeste enpresa berri gehiago sortzeko bultzada ematea, baizik eta naturalki sortuko direnak laguntzea, egindako ekintzaile ahalegina aintzat hartuz eta kalitatezko enplegua sortzea sustatuz", esan zuten.

Era berean, azpimarratu zuen programa horrek herriko ekonomian eragin zuzena izateaz gain, "ekonomia globalizatuak gogorren astintzen dituen sektoreak laguntzen" dituela; besteak beste, merkataritza txikiak eta nekazariak.

Duela 13 urte hasi ziren

Duela 13 urte hasi zen Udala enpresa txikiendako laguntzak ematen. Orduetik hona, 120 enpresak jaso dute laguntza eta 180 lanpostu sortu dira. Horietatik, 25 enpresa itxi eta 32 lanpostu desagertu egin dira.

Udalak, guztira, 516.600 euro banatu ditu herriko enpresa txikien artean.



ARKAUZ
MUEBLAS
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
ALTZARIAK
ARRASATE



ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
ARETXABALETA
FAGOR
banatzaile ofiziala


ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABALETA
expert
banatzaile ofiziala



Arkauz zure etxea da.

GRUPO ARKAUZ
ARETXABALETA 1950-2013 ARRASATE

60 urte baino gehiago



Monterron parkeko agertoki pareko harmailak herritarrez bete ziren martitzeneko agerraldian. | JON BEREZIBAR

Gaika biltzearen aldeko eta errauskailuaren aurkako aldarria

Monterron parkeko harmailak bete egin ziren Zero Zabor taldeak deituta

J.B. | ARRASATE

Kontzientziario lanetan hilabetez jardun eta gero, herrira begirako ekitaldi jendetsua egin du Arrasate Zero Zabor taldeak asteon, Monterronen. Agertoki pareko harmailak herritarrez bete ziren hiri hondakinen arazoari irtenbide bat eman behar zaiola aldarrikatzeko: "Gure filosofia hiru hitzekin laburbil daiteke: murriztu, berrerrabili eta birziklatu. Ez da zaila, eta mundu honetan guztiok daukagunez gure lekua, guztion artean zaindu behar dugu ama lurra".

Hainbat herritarren babesarekin, "orain arte bezala" ezin dela jarraitu adierazi zuten, herritarrak gogoeta egitera bultzatuz. Gaikako hondakin bilketaren onuzere eta errauskailuaren arriakuez egin zuten berba eta, besteak beste, esan zuten azken 20 urteotan zaborra bikoiztu egin dela.

Diotenez, egun "%33 besterik ez" da birziklatzen eta nahi duten %80ko birziklatze mailara heltzeko gaikako bilketa ezinbestekoa dela aldarrikatu zuten.

Akeiko erraustegia gogoan

Argi adierazi zuten "inork ezin" duela "nahi duena" egin: "Kutsatzea ez da eskubide bat eta hori argi izan behar dugu". Era berean, Arrasaten 15 urtez martxan egon

zen errauskailua -Akei- ekarri zuten gogora eta zelan, agertu zuten, Aldundiak itxi egin zuen "dioxina, furano eta gas kopuru handiak isurtzen zituelako". Egun errauskailu berri baten alde dardenei honakoa esan zieten: "Orain, teknologia hobea dela diote batzuek. Eta hala da, baina gauza bera esaten zuten Chernobilen eta Fukusuhiman energia nuklearri buruz. Errealitateak erakutsi digu teknologia berriak ere huts egiten duela".

Antzuolako erredua ere aipatu zuten: "Lehen hilabetetik hondakinen %80 baino gehiago batu dute gaika". Aldaketara ohituko garela uste dute: "Aldaketek beldurra ematen dute baina ziur gaude hiru hilabete baino lehenago guztiok ohituta egoteaz gain, harro egongo garela mundu garbiago bat egiten ariko garela".

ESANAK

"Hiru hilabete baino lehenago ohituko gara, ziur gaude"

ITSASO BEITIA | ARRASATE ZERO ZABOR

Ekainaren 25ean irekiko dituzte igerilekuak, irailaren 8ra arte

J.B. | ARRASATE

Dena ondo bidean, gaur hasiko dira kanpoko igerilekuak Mea-tzerreka auzoko urez betetzen. Iaz baino astebete beranduago irekiko dituzte kanpoko igerilekuak: "Sanjuanen aurreko astean jende gutxi etortzen da eta gainera, erabiltzaileek esan izan digute ura oraindik hotz egotea dela. Hori kontutan hartuta, aurten erabaki dugu astebete beranduago zabaltzea", adierazi zuen eguaztenean Amaia Zabaletako kirol teknikariak.

Erabiltzaile askok kanpoko zein barruko igerilekuak aldi berean irekita izateko eskatu izan dute baina, Aukearen ara-

bera, "inbertsio handia" da: "Makinarian inbertsio handia suposatzeaz gain, pertsonal arloko gastuak bikoiztu egingo ziren". Ordutegia urterokoa izango da: 10:00etatik 20:30era. Irailaren 8an itxiko dituzte baina eguraldi ona egiten badu beste astebetez egongo dira zabalik.

Prezioek, zertxobait gora

Prezioei dagokienez, udako bonuen prezioak honakoak izango dira: haurren 39,25 euro, helduendako 65,90 euro eta bonu familiarra 105,20 euro. Egun baterako sarrera, berriz, haurrek 3,35 euro ordaindu beharko dute eta helduek 5,90 euro. Prezioak igo egin dira.



GUREN ZUMALDE

Auzo-konpostagailuak, gertu

Eguaztenean inauguratu zuten Nafarroa etorbideko auzo-konpostagailua. INEMek duen bulegoaren eta osasun etxearen artean dago eta 35 etxetako hondakin organikoak konpostatuko dira bertan. Nerea Lazpiur Udaleko Ingurumen Saileko teknikariak eman zituen azalpenak eta alkateak eskerrak eman zizkien konposta egitea erabaki dutenei. Atzo, berriz, Laubidekoa inauguratu zuten.



OHIKO BATZAR NAGUSIA

Eguna: 2013ko ekainaren 20an.
Tokia: Kulturateko Areto nagusian.
Ordua: 17:30ean, lehenengo deialdian eta 18:00etan bigarren deialdian.

GAI-ZERRENDA

- 2012ko Batzar Nagusiko aktaren onarpena.
- 2012ko jardueraren eta diru-kontuen azalpena eta, hala badagokio, onarpena.
- 2013ko bazkide ekarpenaren zenbatekoa finkatzea.
- 2013ko egitasmoak eta aurrekontua, eta hala badagokio, onarpena.
- Zuzendaritza Batzordearen berritzea.
- Galdera eta erreguak.

EZ-OHIKO BATZAR NAGUSIA

Eguna: Eguna: 2013ko ekainaren 20an.
Tokia: Kulturateko Areto nagusian.
Ordua: 18:00etan, lehenengo deialdian eta 18:30ean bigarren deialdian.

GAI-ZERRENDA

- Estatutuen aldaketa.

Batzar Nagusirako dokumentazioa elkartearen egoitzan egongo da bazkideen eskura. Nahi duenari, etxera bidali diezaiokegu dokumentazio hori.

Irati Pagoaga / Lehendakaria
Arrasate, 2013ko ekainaren 5ean



OHIKO BATZAR NAGUSIA

Eguna: 2013ko ekainaren 20an.
Tokia: Kulturateko Areto nagusian.
Ordua: 17:30ean, lehenengo deialdian eta 18:00etan bigarren deialdian.

GAI-ZERRENDA

- 2012ko Batzar Nagusiko aktaren onarpena, hala badagokio.
- 2012ko jarduera eta diru-kontuen azalpena eta onarpena, hala badagokio.
- 2013ko bazkide ekarpenaren zenbatekoari buruzko proposamena.
- 2013ko egitasmo eta aurrekontuaren azalpena eta onarpena, hala badagokio.
- Zuzendaritza Batzordearen osaketa
- Galdera eta erreguak.

Batzar Nagusirako dokumentazioa elkartearen egoitzan egongo da bazkideen eskura. Nahi duenari, etxera bidali diezaiokegu dokumentazio hori.

Eñaut Muxika / Lehendakaria
Arrasate, 2013ko ekainaren 5ean



OHIKO BATZAR NAGUSIA

Eguna: 2013ko ekainaren 20an.
Tokia: Kulturateko Areto nagusian.
Ordua: 17:30ean, lehenengo deialdian eta 18:00etan bigarren deialdian.

GAI-ZERRENDA

- 2012ko Batzar Nagusiko aktaren onarpena.
- 2012ko jardueraren eta diru-kontuen azalpena eta onarpena, hala badagokio.
- 2013ko bazkide ekarpenaren zenbatekoa finkatzea.
- 2013ko egitasmoa eta aurrekontuaren onarpena, hala badagokio.
- Zuzendaritza Batzordearen osaketa.
- Galdera eta erreguak

Batzar Nagusirako dokumentazioa elkartearen egoitzan egongo da bazkideen eskura. Nahi duenari, etxera bidali diezaiokegu dokumentazio hori.

Ines Alday Oruna / Lehendakaria
Arrasate, 2013ko ekainaren 5ean

Gaur amaituko da Iturbide egoitzako Nagusiaren Astea

Astelehenean hasitako Nagusiaren Astea gaur amaituko da Iturbide egoitzan. Eguaztenekoa izan zen egoitzako egun berezia eta, besteak beste, bazkaria eta dantzaldia izan zituzten Etxaluzen. Atzo, berriz, danborradako entsegua eta Alaitzen taldearen Mexikoko kantuen emanaldia izan zituzten. Gaur azken bi ekintzak egingo dira: bolo txapelketa diplomekin eta bingo afari berezia opariek.

Adin guztiendako kirol eskaintza zabala egin du Aukeak uztaileko

Aukeak haur, gazte eta helduendako ekintzen berri eman du, udako kanpainaren barruan. Uztaileko eskaintza berezia da eta ekintzotan izena emateko azken eguna ekainaren 29a izango da. Interesatuak Musakolako kiroldegiko bulegoan bete beharko dute izen-emate fitxa (943 77 16 77). Plazak izen-emate ordenaren arabera egokituko dira.

Aikidoa izango da aurtengo Arte Martzialen Eguneko ardatza

- ▶ Aurreko bi urteetan kenpoak eta judoak ere izan dute lekua Uarkapen
- ▶ EAEko hiru hiriburuetako irakaslerik onenak etorriko dira haien ikasleekin

IURE EIZAGIRRE | ARRASATE

Bihar egingo dute Arte Martzialen Eguna Uarkape pilotalekuan. Aurreko bi edizioetan hiru modalitate probatzeko aukera eskaini zuten: kenpoa, judoa eta aikidoa. Aurten, azken horretan bakarrik zentratuko dira, Jose Manuel Matas antolatzaileak GOIENari azaldu dionez.

Matas aikidoko irakaslea da Arrasaten eta hogei urte baino gehiago daramatza kirol honetan. Herritarrek borroka-arte honetara hurbilaztea du helburu biharko ekitaldiarekin. "Aikidoa defentsarako borroka-arte da eta lehiaketa norbere buruarekin da, norberaren garapena da helburua", azaldu du. Taoismoa eta budismoa landuz, kontrol mentalerako sistema batzuk eskaini eta osasunarendako onak diren ariketa ezberdinak egiteko aukera ere ematen duela adierazi du entrenatzaileak. Gainera, arma zuriak erabiltzen dira aikidoko zenbait modalitatetan.

Urtean zehar aikidoarekin lotutako beste ekitaldi bat antolatzen dute, baina hura erakus-



Jose Manuel Matas, eskuinean, iazko Arte Martzialen Egunean. | GOIENA

taldia da eta herritarrek ez dute parte hartzeko aukerarik. "Arte Martzialen Egunean, aldiz, herritarrek parte hartzera gonbidatzen ditugu: gurasoak eta seme-alabak, helduak eta gazteak", dio Matasek.

Gainera, ez da beharrezkoa aurrez kirol hau ezagutzea: "Lau gauza erakutsita, gauza ikusgarriak ikas daitezke. Eta aikidoan

ez da ia indarrik behar, gorpuzarekin egiten da lan".

EAEko onenak

Matasek EAEn aikidoa erakusten duten maila handieneko irakasleei deitu die eta ez diote inolako trabarrik jarri; beraz, Arte Martzialen Egunean izango dira. Donostiatik Benigno Jimenez del Val, J. Ignacio Fernandez, Ale-

jandro Fierro eta Miguel Baena etorriko dira; Gasteiztik Pedro Fraile; Bilbotik Iñaki Sanchez eta Arrasatetik Matas bera. Guztiek -Matas izan ezik- 5 eta 6 Daneko maila dute.

Euren ikasleekin etorriko dira eta Uarkapera bertaraten direnek eurekin praktikatu ahal izango dute, doan. Kanpotik etorriko den jendea kontuan hartuta, ekitaldiak harrera ona izatea eta aurreko urteetan baino jende gehiago egotea espero du Matasek. Orain artekoetan 60-70 pertsona batu izan ditu Arte Martzialen Egunean.

Aikidoa Arrasaten

Debagoieneko ordezkarri bakarra izango da Matas biharko borroka-artearen egunean. "Badago beste gaztetxo bat oraintxe hasi dena, baina, oro har, erakusten ari den bakarra ni naiz". Horrek ez du esan nahi, ordea, aikidoak jarraitzaileak ez duenik.

Hogei urte daramatza Matasek Musakolako kiroldegian ikastaroak ematen eta orain arte isilean ibili direla aitortzen du. Iaz hasi ziren aikidoa zabaltzeko ahaleginetan, publizitatea eginez eta ahoz-ahoz informazioa emanez. Erantzuna ona izan da eta asko nabaritu dute: "Bikoiztu egin da ikasle kopurua 2012tik 2013ra. Denboraldi honetan 50 ikasle inguru izan ditu eta uztailako hirugarren astean amaituko dute ikasturtea. Irailean hasiko da denboraldi berria eta ikasle kopurua haztea espero du.

Gaur pintura ikasleen obrak egongo dira Seber Altuben

I.E. | ARRASATE

Pintura ikastaroko ikasleek artea kalera eramango dute gaur arratsaldean; izan ere, urtean zehar egindako lanen erakusketa egingo dute 18:00etatik 21:00etara Seber Altube plazan.

Hainbat estilotan landutako 50 margolan inguru egongo dira ikusgai plazan. Lan gehienak olio-pinturak izango dira, baina, tartean, akua-relaren bat ere egongo da. Ikusi ahal izango diren marrazkien artean natura hilak, paisaiak eta erretraturen bat daude. Gainera, 32 ikasleek sorpresa bat prestatu dute erakusketarako: ia lau metro koadroko margolana egin dute. Lan horretan, pintura ez ezik, interpretazioa ere landu dute, beste koadro baten bertsioa egin baitute.

Duela hiru urte arte, Arrese aretoan egiten zuten pintura ikastaroko ikasturte amaierako erakusketa, baina txiki geratu zitzairen. Urteren batean Kulturateko klastroan ere egin zuten, baina orain dela hiru urte kalean egitea proposatu zuen irakasleak. Zoro-zoro botatako ideia onartu, eta erakusketa Seber Altuben egiten hasi ziren. "Erakustokira joan egin behar da eta kalean pinturak topatu egiten dituzu", dio Amaia Bengoa pintura irakasleak.

180 ikasle inguru

Orain erakusketan jarriko diren koadroak egiten ikasteko saioak joan den urteko irailean hasi zituzten eta oraintxe amaituko dira. Aurten 170-180 ikasle ibili dira askotariko pintura estiloak lantzen. Gehienak arrasatearrak dira, baina inguruko herrietako ikasleak ere izan dira; Bergarakoak, esaterako. Astegunetan ez ezik, zapatuetan ere eman dituzte klaseak Kulturaten.

Datorren ikasturtean pintura ikasteko gogoz daudenek itxaron egin beharko dute; izan ere, irailean irekiko dute izena emateko epea.

Arrasatekoak, futboleko presoen alde

Ekainaren 1ean euskal presoen aldeko zarpiko futbol txapelketa jokatu zuten Hendaian. Argazkian ikus daitekeenez, arrasatearrek ere hartu zuten parte txapelketan. Komando Alpagat eta Arrasateko Alde Zaharra taldeek jokatu zuten eta biak final-zortzirenetan kanporatu zituzten. Guztira, 500 jokalaria izan ziren, 50 taldetan.



XABI MONDRAGON

Mendi eta bizikleta irteerak antolatu ditu Besaide Mendizale Elkarteak datozen bi asteetarako

Besaide Mendizale Elkartearen ekaineko programaren barruan, bi ekintza geratzen dira egiteke. Bata domeka honetan egingo dute: Bizkaiko Birako 16. etapa. Parte-hartzaileek Orozko eta Ubidea arteko bidea egingo dute. Martxoaz geroztik, hilero egin dute Bizkaiko Birako etaparen bat, baina udan atseden hartuko dute; beraz, hurrengo iraileko hirugarren asteburuan izango da. Ekaineko azken ekintza irailaren 22an izango da, Araotzeko uraren bidea egingo dute mendiko bizikletarekin. Arrasatetik, Garibain duten egoitzatik, abiatuko dira bizikletan goizetako bederatzietan. Mendiko bizikleta irteeran parte hartu nahi dutenak garaiz dabilta oraindik, eta 677 48 39 17 telefono zenbakira deituta edo besaideMTB@hotmail.com helbide elektronikora idatzita egin dezakete izen-ematea.

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Goienaren RENT
Ibilgailuen alokairua

AUTO ETA FURGONETEN ALOKAIKUA ONATIN

- ✓ Lantokira nahiz etxeko atarira eramango dizugu ibilgailua DOAN
- ✓ Ibilgailuen flota zabala preziorik onenetan
- ✓ Enpresa nahiz partikularrentzako zerbitzua
- ✓ Aireportuko zerbitzua

20€-tik eguneko

943 71 66 52 / 619 44 71 75
goienarent@goienarent.com

WWW.GOIENARENT.COM

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Ondo pentsatutako erabakia izan da, hilabeteetan mamitutakoa, Elortzaren esanetan. Hilaren 24an egingo den osoko bilkuran beteko da dimisioa eta hark lagako duen lekua Jaione Isazelaia zinegotziak hartuko du. Udalean eman dituen bi urteen erreposoa egin dugu Elortzarekin.

Arrazoi pertsonalengatik lagatzen duzu kargua.

Bada dagoeneko urtebete lepoko arazoekin hasi nintzela, harrezkero tratamendu ugari egin ditut, baina boladaka mina bueltatu egiten zait, tentsioek ez didate batere onik egiten eta bada denbora bat proposatu niola taldeari aldaketa egitea. Alkate karguak ardura handiak dauzka eta ehuneko ehunean egotea eskatzen du, eta nik geroago eta sarriago sentitzen nuen ez nengoela sasoi.

Asteon eman duzu horren berri. Komunikabideak martitzenean deitu gintuzun batzar batera; bertan, kargua gogorra egin zaizula esan zenuen. Zergatik egin zaizu gogorra?

Gogorra da kargua berez, eta alkate edo zinegotzi izateko erroldajea behar da. Gure taldean badira kide batzuk aurretik zinegotzi izan direnak, baina gehienok, ni neu barne, politikan ibilera motza egindakoak gara, nahiz eta guztiok herrigintzako hainbat arlotan aritutakoak izan. Egoerak nolabait behartuta, gogorik eta asmorik onenak genituelako, hartu genuen kargua ilusio handiz eta horrela segitzen dugu. Baina ezin ukatu ez dela erraza izan, egoera ekonomiko onean errazagoa da kudeaketa, guri krisiaren une gogorretakoa ari zaigu tokatzen, oso zuhur jokatzeari, soldata izoztea, gerrikoa estutzea, aurrezte planak egitea, energia gastuak murriztea... Hainbat murrizketa bereziki gogorak egin zaizkigu. Edozein garaitan, herritarrek politikariaren eskutik utzi dituzten baliabideak erantzukizunez kudeatu behar badira; are gehiago, garai hauetan, non zorpetze maila ezin baiten inolaz ere handitu.

Bi urteotan ze une izan da gogorrena?

Ez nuke bat bereziki nabarmenduko... Tentsio momentuak izan dira, nola ez, baina ez dago bat bera ere txarrerako aparteko gogoangarria egiten zaidanik.

Osoko bilkuretan ikusi ahal izan dugu, besteak beste, EAJ oposizio sendoa egiten ari dela.

Oposizioak bere lana egiten du, gure errespetu guztia dute, batzor-

Jesus Elortza | Alkatea

"Ardura handiak ditu karguak, eta gero eta sarriago ikusten nuen ez nengoela sasoi"

Jesus Elortza alkateak dimititu egingo duela jakinarazi du asteon. "Arrazoi pertsonalengatik, osasunarekin lotutakoengatik" lagako du

de guztietan eta Tokiko Gobernu taldean parte hartzen dute. Baditugu beraiekin konpartitzen ditugun proiektuak; bat aipatzearen, Bergarako bigarren sektorearen problematika eta soluziobideak aztertzeak mahai bat. Laster etorriko dira bi urte gai horren inguruan lanean ari garela. Osoko bilkuretan eztabaida latzak izaten ditugun arren, bereizten dakigu plano politikoa eta pertsonala. Gu gure lana ahalik eta txukunen egiten saiatzen gara eta argi izan dugu beti ez genuela besteen lana baloratuko.

Hondakinen gaiarekin, esaterako, oposizio gogorra izan da...

Egia da hondakinen gaiaren inguruan aukera ikusi duela oposizioak etekin politikoa ateratzeko eta erabili egin duela. Neurri batean, penagarria da, ezen Europako hainbat herritan ekimen beraren aurrean kolore politiko ezberdinak normaltasun osoz bildu baitira, eta argi dago hondakinen gaiari irtenbide teknikoak eman behar zaiola, eta ez politikoa... baina egun, maila horretan dago. Aurrera begira, eztabaida politikotik ateratzea litzateke onena. Herritarrentzako, batez ere. Hala eta guztiz ere, Gipuzkoan adostasunetarako borondatea azaltzen hasi dira alderdi gehienak eta

hau albiste pozgarria da. Hau izan da gure nahia hasieratik, betiere, helburuak argi izanda. **Oposizioak ez egingo, herritarren alde-tik ere kontrako jarrera oso modu agerian geratu da, zabor poltsen ekimenarekin, besteak beste. Kontrako ahots asko dago herrian, plataforma bat eratu da... Ze eragin izan du horrek zuzan?**

Alkate bezala min eman didana izan da ikustea nola joan den garatzen hondakinen bilketaren inguruan herritarren arteko konfrontazio guztiz artifiziala, ingurumenaren zaintza, guztion ardura izan behar lukeena, nola poli-

"Alkate karguak ardura handiak dauzka eta %100 egotea eskatzen du"

"Bereziki estimatu dut taldeak eman didan babesa; lagun handiak egin ditut langileen artean ere"

tizatzen joan den modu guztiz interesatuan. Plataformari dago-kionez, ordezkariekin izan ditugu gure tirabirak, baina guk zintzo jokatu dugu. Orain, itxaropentsu gaude hasitako hurbilketa prozesuarekin. Beti adierazi dugu jabetzen garela kontraktasuna bada-goela herrian eta hori modu ezberdinetan adierazi dutela. Guk geure posizioa mugitu genuen parte-hartze prozesuetan atera ziren emaitzak errespetatuz eta prest gaude, betiere helburu batzuen barruan, gure posizioa berriz ere birplanteatzeko. Uneoro argi utzi dugu guretzat garrantzitsuena gaikako bilketa tasa batzuetara iristea dela. Ez sistema. Helburu hori lortzeko gaur egungo sistemen artean emaitza hobereak ematen dituen sistema aukeratu genuen.

Une gozoak ere egongo ziren.

Bai, noski! Gaziak baino gehiago, zorionez! Bereziki estimatu dut taldeak eman didan babesa, hemen lagun handiak egin ditut, baita langileen artean ere. Maila handiko langileria dugu Bergarako Udalean, konpromiso handia duen jendea. Eta beti adierazi dudana moduan, herritarrengandik jasotako esker oneko hitz guztiak, eta baita, kasu askotan, kritika konstruktiboak.

Zuk martitzeneko batzarrean esandako beste gauza bat da herritar guztiei gomendatuko zeniekeela sei bat hilabetez administrazioan egoteko. Zergatik eta zertarako?

Horrela da, sarritan herritarrok Udala guztiona dela ez dugu sentitzen; herritarrengandik hurbilen dagoen instituzioa izanik, sentitzen dut urteetako inertiak eramanda, udal komunitatearen kontzeptutik oraindik urrun gaudela; gure alde-tik, Udala herritarrengana hurbiltzeko eta haien parte-hartzea sustatzeko ahaleginetan ari gara.

Zure kasuan, alkate izan aurretik administrazioarekin zenuen ikuspegia eta gaur egun duzuna asko aldatu da? Zertan bereziki?

Hemendik gauzak ezberdin ikusten dira, herritarrei arreta emateak aberastu egiten du. Kanpotik, batzuetan, badirudi administrazioa inpersonala den erakunde burokratiko erraldoia dela; barrutik, ordea, pertsonen zerbitzuak eta laguntza emateko duen gaitasuna ikusten da. Hau da, barruan egonda parte hartzen da pertsonen bizi kalitatean hobetzen lagun dezaketen hainbat erabaki hartzen. Eta hori oso sentazio berezia da.

Zergatik egin zenuen alkate izateko urratsa?

Egoera berezian osatu ziren 2011-ko udal hauteskundeak. Herritarren kopuru handi batek galarrak izan zuten orduan hautagai moduan aurkeztea, Bilduko zerrendak ilegalizatzeko kinka larrian egon ziren. Egoera hartan, ideologia ezkerrekoa eta abertzalea dugun hainbat herritarrek, herrigintzan luze aritutakoek, Bilduko zerrendetan joateko konpromisoa hartu genuen. Gehienok ez gara politikariak, baina herri mugimenduetan ibiltzeko esperientzia handia ematen du. Niri, zehazki, zerrendaburu joatea proposatu zidaten, banekien aukera handiak nituela alkate izendatua izateko.

Atzera egin ahal izango bazenu eta agintaldi hasierara jo, zer aldatuko zenuke?

Hasieran, bi pertsona bakarrik liberatu ginen, baina Bergara herri handia da eta egoera ekonomiko honetan proiektuak aurrera ateratzeko lan handia egin beharra dago. Guk hirugarren pertsona bat liberatzea lortu genuen joan den urtean, haren soldata Udalak ordaintzen badu ere, Bilduri dagokion dirutik kenduta; beraz, Udalarentzat ez da inolako kostua, eta, aldiz, gure funtzionamendua asko hobetu da.



Jaione Isazelaia. | GOIENA

Jaione Isazelaia zinegotzia izango da hurrengo alkatea

Jaione Isazelaia ordezkatuko du Elortza alkate karguan. Isazelaia 54 urte ditu eta gaur egun Ikastolen Elkartearen dihardu, Eki proiektuaren egile moduan. Hori laga eta alkaterako liberatuko da. Bilduren zerrendan bigarren joan zen eta gaur egun Komunikazioaren arduratzen da Udalean.

Jesus Elortzak hilaren 24an egingo den osokoan lagako du kargua eta Isazelaia, berriz, uztailan deituko duten osoko bilkura ezohikoan hartuko du. Bien bitartean, Maren Belastegi alkateordeak beteko du alkatearen zeregina.

Jaione Isazelaia Bilduko zinegotzi kopuruan lagako duen hutsunea Joseba

Moñuxek beteko du. 47 urte betetzear ditu, suhiltzailea da lanbidez eta Eibarren egiten du lan. Moñuxek ere uztailako ezohiko bilkuran egingo du karguaren zina.

Baina aldaketa gehiago ere izango dira Udal Gobernu Taldean; Justina Elexpuruk (Aralar) ere laga egingo du. Legealdiaren hasieran aurreratu zuen bi urterako hartuko zuela ardura politikoa betetzeko konpromisoa, eta bi urteok igaro dira. Haren lekua nork beteko duen zehazteko dago: "Zerrendako hurrengo bi hautagaiek ezetz esan dute; zaila ikusten dut ordezkoa topatzea", esan du.



Joseba Moñux. | GOIENA



Justina Elexpuru. | GOIENA



Jesus Elortza, udaletxeko arkupeetan. | MONIKA BELASTEGI

Agintaldi hasierara bueltatu behar izango banintz, hiru kide liberatuko ginatete hasieratik.

Bi urte eman dituzu alkate moduan, agintaldiaren erdia. Ibilbide horretan zein uste duzu izan dela zure lorpen borobilena? Eta hanka-sartzea?

Hori herritarrek esan beharko lukete; hala ere, lorpenak eta hutsegiteak taldean konpartituak izan dira. Eta argi ikusi duguna da batzuentzat lorpena dena beste batzuentzat ez dela, baina aniztasun hori kontuan hartu behar da eta guztiei erantzuten saiatu gara. Aniztasuna aberatsa baita. Hala ere, garrantzizkotzat jotzen dut ongizateko partidak mantentzeko egindako esfortzua. Baita kaleko giroa sustatzeko kultur ekintzak ere, eta turismoa erakartzeko egindako lana; sei hilabetean 3.000 lagun inguru pasatu dira Bergaratik. Sozioekonomiarri dagokionez, hainbat mahai eratu ditugu; bigarren sektorea, komertzioa eta orain lehen sektoreari heldu beharra dauka. Ingurumenarekiko konpromisoa ere argia da. Kirolari eta osasunari ere garrantzi handia ematen diogu, baita herritarrek ere. Horren erakusle da Agorrosingo erabilera handia, 1.000 pertsona inguru egunero. Auzoetan ere nahi beste ez egin arren, Elosuko plaza eraberrituko da, Angio-

"Oposizioak erabili egin du hondakinen gaia etekin politikoa ateratzeko"

"Herritarren arteko konfrontazio artifiziala nola garatu den ikusteak min egin dit"

zarrera Internet iritsiko da... baina oraindik asko dugu egiteko, eta bi urte hauetan agendatan izatea komeni. Euskarari dagokionez, normaltasunez bizi dugun arren, lan handia dago egiteko, batez ere erabileran; horregatik, arreta berezia jarri diegu gazteei, eta legealdian plan pilotu bat jarriko da martxan. Kanpotik ikusten ez den arren, barruko funtzionamendua aldatzeko ere lan handia egiten ari gara. Helburu argi batekin herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak sinplifikatu eta errazteko, eraginkorragoak eta efizienteagoak izateko. Eta aipamen berezia egin

nahiko nioke aurreko legealditik jasotako plan estrategikoari, herritarren parte hartzearekin egingakoa; uneoro, gure ildoaren ardatz izaten saiatu gara.

Herritarrekin ze harreman izan duzu? Nola definituko zenuke?

Herritarrekin izan dudana harremanak asko eman dit, zuzenean, aurrez aurre, dituzten kezkek ezagutu ahal izan ditut sarritan. Askok euron konfiantza erakutsi didate eta bihotzez eskertzen diet. Hala ere, beti ez da posible izaten herritarrek aurkeztutako arazoei beraiek gustuko izango luketen soluzioa ematea, administrazioak bere mugak baititu, errespetatu beharrekoak. Hala ere, beti saiatu naiz gertutasuna erakusten, nire eguneroko bizitzan ere horrelakoa naizelako. Pertsonekin harremanak gustuko dit.

Bukatzeke lagatzen duzun proiekturen baten penaz zoaz?

Bai, esan bezala, proiektu asko ditugu bidean, eta niri ez dit denborarik emango gehiago egiteko; Udaletik, behintzat. Esandako moduan, egoera ekonomikoak asko baldintzatu ditu bi urte hauek, baina hainbat proiektu bideratuta geratzen dira eta taldeak aterako ditu aurrera, horrekin seguru nago. Eta ni ere hor izango naiz laguntzeko. Esate baterako, orain esku artean dugu museoko

"Jaione bidelagun izan dut beti, harreman oso ona izan dugu"

"Herritarrekin izan dudana harremanak asko eman dit, euren kezkek ezagutu ahal izan ditut sarritan"

proiektua eta azken bultzada eman nahian gabiltza. Etxe tutelatuena ere dagoeneko laster martxan izango ditugu, momentu honetan egokitzapen obra batzuk egiten ari gara. Etxebizitzaren inguruko politikak ere martxan ipini nahi ditugu. Bi urte hauetan egindako lanek hurrengo bi urtetan emango dituzte fruituak, proiektu handiak aurrera eramateko denbora behar izaten da-eta.

Zu bazoaz, baina proiektuetan ete-nik ez da egongo, horrenbestez, talde lanean funtzionatu duzelako orain arte.

Taldeak maila oso handia du, profil desberdina dugun pertso-

nak bildu gara, mahaia duen ikuspegia oso zabala da alde horretatik. Argi izan genuen hasieratik pertsonalismoetatik urrunduko ginela, hierarkizazioen garaia amaitu da. Ni alkate izan banaiz ere, ez dut inoiz sentitu nire burua besteengandik desberdin. Ideologia bera badugu ere, batzuetan gure artean eztabaida luzeak izaten ditugu akordioetara iristeko, gutxi batzuetan bozketa ere egin izan dugu, baina, normalean, hartutako erabakiak adostuak izaten dira.

Pentsatzen dut alkate karguak bizitza familiarrean ere izango zuela eragina. Zertan?

Alkatearen agenda karguaren ardurek betetzen dute; gainera, ez dira bereizten jaiegunak eta lanegunak, hori zama izaten da familiarentzat; eskerrak eman beharrean nago etxeko *ekipoari* izan duen pazientziagatik eta eskaini didan babesagatik. Askotan, nirekin batera sufritzea tokatu zaie. Zorte handiko pertsona naizela esan beharra daukat, familia mundiala baitaukat ondoan. Musu bat, denei.

Orain, Lazpiurrera itzultzeko asmoa daukazu.

Bai; gustura, gainera. Oso gustuko nuen; han, behinik behin, ordu-tegi normalak izango ditut, lasaia-gobi izango naiz, dudarik barik. Hala ere, pena ere badut taldearekin eta langileekin eguneroko harremana galduko dudalako. Dena den, hemen izango naiz behar nautenetan.

Jaione Isazelaia izango da hurrengo alkatea. Zer esango zenioke?

Jaione bidelagun izan dut beti, harreman oso ona izan dugu, elkarren berri etengabea daukagu, hura liberatuta egon ez den arren, telefonoz ia egunero egoten gara eta gai askoren inguruko kontrasteak egiteko jo izan dut harengana. Taldearen babes osoa du, proiektuetan etenik ez dago... Ez zait okurrizten aparteko aholkurik ematea, gure egoeran ez dut premiarik ikusten.

Eta herritarrei?

Plazera eta ohorea izan dela! Eta eskerrak asko.

Nola gustatuko litzaizuke bergarrek gogoratzea Jesus Elortza?

Ze galdera zaila! Bada... pentsatzen dut Bergara eta Euskal Herri hobe eraikitzeko bere harri-koxkorra jarri zuen herritar gisara gogoratuko banindute, konformatuko nintzatekeela! Nik neuk, behintzat, horrela ikusi nahi nuke nire burua atzera begiratzean.



Banakako eskola teorikoak
—
Ordutegi malguak:
teorikoak / praktikoak

Fraiskozuri 5 behea. E-posta: autoeskola@urresgoi.com
Tel.: 943 037 805

AMAIA ZABALETA IRAZABALBEITIA

Abokatua



HELBIDE BERRIAN:

Artetale 16, behea - BERGARA - Tel.: 943 76 21 71

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Kanpoko igerilekua egunero zabalduko dute gaurtik irailera

Terraza bi zatitan banatuko dute, eta hori izango da aurtengo nobedadea

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Gaur, egubakoitza, zabalduko dute kanpoko igerilekua Agorrosinen eta zabalik egongo da, egunero, irailaren 15era bitartean. Udako denboraldia heldu da, beraz, Agorrosinera.

Iazko prezioak

Edozein herritarrek zein Bergararik kanpo bizi direnek erabili ahal izango dute kanpoko eremua. Erabilera horretarako ordaindu beharrekoa, gainera, iazko bera da; prezioak mantendu egin dira, ez da igorarik izan.

Horrela, bazkide txartela dutenak txartelarekin sartu ahal izango dira, orain egiten duten moduan. Bazkide ez direnek, berriz, ordaindu egin beharko dute. Hauexek dira prezioak: 0 eta 2 urte arteko umeendako, doan izango da; 3 eta 17 urte artekoek hiru euro ordainduko dute; 18 urtetik gorakoek, sei euro. "Eguneko prezioak dira horiek. Posible da, baina, goizean sartu, eguerdian kanpora atera bazkaltzera eta arratsaldean berriro sartu, sarrera berarekin", adierazi du Iñaki Ugarteburuk, Udaleko Kirol teknikariak.

Bestalde, aurreko urteetan bezala, ez da derrigorrezkoa izango buruko txanoa erabiltzea kanpoko igerilekuan; bai, ordea, barrukoetan. Gainerako arauak ere ez dira aldatu: hau da, aurtengo uda denboraldian ere ezin izango da ezer jan kanpoko eremuan, berdegunean. "Hamakak uzteko tokia ere egongo da aurturten. Aurreko urteetan bezala, txoko bat egongo da, giltzapean, nahi duenak hamaka han utzi eta behar duenean handik hartzeko", zehaztu du Ugarteburuk.

Kanpoko igerilekuan ere uneoro egongo da sorosle bat, eta arratsaldean, jende gehien batzen den orduetan, bi egongo dira.

Liburutegia ere bai uztailean

Aurreko urteetan bezala, aurturten ere egongo da liburutegi zerbitzua kanpoko igerilekuan eremuan. Uztailean izango da hori. Uztaileko arratsaldetan egongo da, zehazki, liburutegi zerbitzua, 15:00etatik 18:00etara. "Batez ere, umeek eta gaztetxoek erabiltzen dute, eta euren materiala eraman ohi dugu gehienbat, lehenengo irakurketak edo komikiak, esatera. Esperientzia aberasgarria da", dio Mila Agirrezabal liburuzainak.

Nobedadea

Agorrosingo tabernan egongo da aurtengo nobedadea. Terraza bi zatitan banatuko dute. Modu horretara, kanpoko eremutik ezin izango da taberna barrura sartu eta kaletik tabernara joaten direnak ezin izango dira igerilekura jaitsi. "Terrazaren zati baten barra txiki bat ere egongo da, eserlekuez gain; hori izango da igerilekuko erabiltzaileendako. Kaletik datozenek terrazaren beste zatia erabili ahal izango dute", adierazi du Kirol teknikariak.

Orduetegi ezberdinak

Datozen hiru hilabeteetan, beraz, egunero erabili ahal izango da



Kanpoko igerilekuan iaz ateratako argazkia. | LEIRE KORTABARRIA

kanpoko igerilekua. Barruko igerilekuak eta Agorrosingo gainerako zerbitzuak ere zabalik egongo dira uda osoan, baina orduetegi ezberdinak izango dituzte batzuek eta besteek.

Kanpoko igerilekuak, esaterako, 10:00etatik 20:30era egongo dira zabalik, egunero. Gainerako instalazioek, baina, orduetegi

ezberdinak izango dituzte. Hor sartzen dira barruko igerilekuak, spa eta gimnasioa. Eta zerbitzu horien udako orduetegiak izango dira: zapatuetan, domeketan, jaiegunetan eta abuztuan, 09:00etatik 21:00etara egongo dira zabalik. Gainerako hilabeteetan, eta aste barruan, 07:00etatik 22:00etara, orain bezala.

'Bixkai' epaituko dute astelehenean Parisen

O.E. | BERGARA

Iñaki Arietaleanizbeaskoa Telleria *Bixkai* preso bergararra datorren astelehenean, ekainak 17, epaituko dute Parisen.

Epaiketa horretan *Bixkai*-ri babesa emateko eta elkar-tasuna adierazteko, autobusa irtengo da Parisera. Domeka iluntzean abiatuko da Bergararik, eta astelehen iluntzean bueltatuko da. Joan nahi duenak Arrano tabernan eman behar du izena. Bestalde, Bergarako Herrirak deituta, elkarretaratzea egingo dute astelehenean, *Giza eskubideak, konponbidea, bakea; Bixkai herrira* lelopean. 19:30ean izango da, herriko San Martin plazan.

Labegaraieta auzoan jaio zen *Bixkai*. 46 urte beteko ditu datorren uztailean. Duela 20 urte, 1993an atxilotu zuen Ertzaintzak Antzuolan eta 2005ean, berriz, Frantziako polizia Montpelier hiritik gertu. Frantziako eta Espainiako espetxeetan egon da preso. Azken urteetan, Parisko kartzelan.



Martitzenean egin zuten aurkezpena Irizar jauregian. | A.T.

'Gure esku dago' ekimenaren helburuak aurkeztu dituzte

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

Euskal Herria nazioa dela, erabakitze eskubidea duela eta herritarrek direla protagonista nagusiak defendatzen duen *Gure esku dago* ekimena aurkeztu zuten joan den martitzenean Irizar jauregian egin zuten ekitaldian.

Erabakitze eskubidearen aldeko ekimena da *Gure esku dago*; maiatzaren amaieran aurkeztu zuten Bilbon eta ondoren Irungo Ficoban. Martitzenean Bergaran aurkeztu zuten. *Gure esku dago* ekimeneko dinamizatzaile Anjel Oiarbidek egin zuten aurkezpena. "Erabakitze eskubidearen alde inoizko mobilizazio handiena sortzeko asmoa dugu, herriz herri

eta sektorez sektore egindako lanarekin. Eta gure asmoa da dinamika hori herriratzeari, azaldu zuen. Eskozian eta Katalunian bezala, erabakitze eskubidea bultzatzen dute. Defendatzen dute Euskal Herria nazioa dela, erabakitze eskubidea duela eta herritarrek direla protagonista nagusi.

Mezua zabaltzeaz gain, musika eta bideoak ere aurkeztu zituzten, eta baita datorren urtean egingo dituzten bi ekimenen berri eman ere: 2014ko apirilean Anoetan egingo duten hiru egunetako jaialdia eta ekainaren 8an Gernika eta Iruñea lotuko dituen giza katea.

Alex Caporuscio & Fred PG bikoteak blues doinuak ekarriko ditu gaur gauean Laino skate-gunera

Blues kontzertua egongo da gaur gauean Laino skate-gunean. Alex Caporuscio eta Fred PG gitarra jotzaileek egingo dute emanaldia, 22:30ean. Doan da. Caporuscio Londresen jaio zen eta Fred PG, Parisen, eta Madril inguruko zirkuituetan blues doinuak jotzen dituzten gitarra jotzaile handienetakoak dira biak. Kontzertua akustikoa izango da.

Lagunarteko omenaldia jasoko du bihar Aroztegi aretoan Miguel Okina herriko margolariak

Bergarako artistek eta gertuko lagunak antolatuta, lagunarteko omenaldia jasoko du Miguel Okina margolariak bihar, zapatua. Aroztegi aretoan izango da ekitaldia, 13:00etan. Ondoren, bazkaria egingo dute Batzokian. Margolari bergararrak pozik hartu du gonbidapena; are gehiago, lagunengandik datorrelako. Okinak 89 urte beteko ditu laster.

Lazkaoko Kantatarekin batera abestuko dute Bergarako orfeoiek eta musika eskolako ikasleek

Lazkaoko Kantata abesbatzak, Bergarako orfeoi gazteak, Bergarako orfeoiek eta Musika Eskolako ikasleek kontzertua egingo dute asteburu honetan. Domekan izango da emanaldia, Santa Marina parrokian, 13:00etan. Musikan eskarmentua duen Debora Herrero da Kantataren zuzendaria. Kontzertua irekia izango da eta herritarrei zuzenduta egongo da.

Uda aurretiko azken patin eguna egingo du Hanka Labankak domekan Labegaraietan

Patin eguna egin ohi du hilean egun batez Hanka Labankak, eta domekan egingo du uda aurretiko azkena. Labegaraietan izango da, beti bezala, 09:15etik 11:30era. Umeak zein nagusiak joan daitezke, patinetan ibiltzen dakitenak eta baita ez dakitenak ere. Hockeyan ere arituko dira, jendeak eskatuz gero. Parte-hartzaile bakoitzak bere patinak eta babesak eraman behar ditu.

Laixan euskara elkarteak bere ondasuna likidatuko du eta desegin egingo da

Sehaska, Berria, Euskalerrria Irratia eta Debaguneko euskara elkarten artean banatuko da dirua

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

Oñatiko Laixan euskara elkarteak lozorro egoeran egon da azken urteetan. Erreleborik ez dela etorri ikusita, desagertu egingo da orain elkarteak. Desagertu aurretik, baina, ondasunaren likidazioa egingo du herritarren aurrean uztailearen 12an, kultura etxean, 18:00etan.

Lozorroan, orain arte

Kepa Elortza Laixaneko idazkariak esan digu 2011n egin zuten azkeneko batzarrean erabaki zutela denbora bat itxarotzea ea denbora horretan gazte talderen batek erreleboa hartzeko interesa agertzen zuten. "Baina ia bi urte pasa dira eta horrelakorik ez denez agertu, euskara sustatzeko lan egiteko gogoz dagoen talderik ez denez agertu, erabaki dugu taldea desegitea, eta, horretarako, ondasunak likidatu behar ditugu", azaldu digu Elortzak.

Ondasunen likidazioa

Uztailearen 12an likidatuko du ondasuna Laixanek eta lau erakunderi banatuko zaie dirua: Sehaskak, Berriak, Euskalerrria Irratiak eta Debaguneko euskara elkarteek jasoko dute dirua. Zergatik lau erakunde horiek? Hauxe erantzun digu Elortzak: "Laixanen dirua publikoa da; bazkideek, Udalak eta beste



Kepa Elortza idazkaria, Amaia Bikuña diruzaina eta Koldo Zumalde presidentea, mahaian, Laixaneko argazkiekin. | A.T.

ESANAK

"Euskararen aldeko ekintzek bizirik jarraitzen dute oraindik"

KEPA ELORTZA | IDAZKARIA

batzuek emandakoa da. Euskara elkarte bati emandako diru publikoa da, beraz, eta euskara sustatzeko eta euskararen inguruko ekintzak antolatzeko dirua da. Ikusi dugu bide horretatik doazen erakunde horiek zein diru falta handia duten eta pentsatu dugu egokiena zela horiei banatzea". Lau erakunde horien ordezkariek izango dira ekitaldian eta

ESANAK

"Laixanen lan handia egin da, eta eskertzekoa da hori"

KOLDO ZUMALDE | PRESIDENTEA

dagokien dirua banatuko zaie.

Uztailearen 12ko ekitaldia kultura etxean egingo dute eta Laixanen historiako argazki ugari jarriko dituzte hormetan, herritarrek ikus ditzaten. Diapositibak proiektatuko dituzte eta herritarrendako Laixanek garai batean ateratako pinak, lepoko zapiak eta txanoak banatuko dituzte. "Otamentxo ere egongo da", bertaraten diren guztiendako.

"Heriotza naturala"

Elkarteak desegin egingo dela eta, Elortzak dio "heriotza naturala" izan dela: "Horrelako elkarte bati jaten ematen ez bazaio hil egiten da eta horregatik ez dit inongo penarik ematen, heriotza naturala delako. Laixanek bere egin-beharrak egin zituen; neu teknikari ibili nintzenez 450 bazkide baino gehiago zeuden. Orain ez badago jarraipenik, ez badago gazterik hori eraman nahi duenik, hil egin da eta kito. Oso harro nago Laixanen historiarekin".

Euskara bizirik

Elkarteak desegin egin bada ere, Elortzak "euskararen aldeko ekintzek bizirik" jarraitzen dutela azpimarratu digu. Koldo Zumalde presidentea, berriz, esan digu eskertzekoa dela jendeak Laixanen egindako lana: "Lan handia egin da, jende askoren lan isila dago atzean, eta eskertzekoa da".

Fiare Banka Etikoaren informazio puntua hilaren 17an kultura etxean

18:30etik 20:30era bitartean egongo dira herritarrei informazioa ematen

A.T. | OÑATI

Fiare Banka Etikoari beste bultzada bat eman nahi diote, eta, hala, informazio puntua jarriko dute hilaren 17an, astelehenean, herriko kultura etxean. Fiare proiektuaren Oñatiko boluntario taldeko kide Juankar Olaeta eta Jokin Astigarraga izango dira bertan, eta, hain zuzen, herritarren kezak eta zalantzak argituko dituzte.

Martxoaren 13an egin zuten Oñatin Fiare proiektuaren auzuepena jendaurrean, eta orain, asmoa da herritarrei informazio gehiago ematea.

Bazkide edo bezero

Bazkide edo bezero izanda kolaboratu daitezke Fiarerekin.

Bazkide egiteko, pertsona fisikoek 300 euroko gutxieneko ekarpena egin behar dute kapital sozialera; irabazi asmorik gabe-



Oñatin aurkeztu zuteneko: parrokoa, Astigarraga eta Olaeta. | O.E.

ko elkarteek, berriz, 600 eurokoa; eta administrazioek 1.800 euroko ekarpena egin behar dute. Besteak beste, Fiareko bazkide dira Oñatiko Udala eta parrokia, eta baita beste zenbait herritar ere, partikular moduan.

Bestalde, aukera dago Fiaren bezero egiteko. Horretarako, beste edozein kutzak bezala, aurrezki-libreta bat ireki eta diru-ekarpenak egiteko aukera ematen du. Informazio gehiago, informazio puntuan.

58 urteko gizonezko bat hil zen kiroldegiko igerilekuan eguaztenean

M.B./A.T. | OÑATI

Eguazteneko, 08:15ean, igeri egiten zebilela bihotzekoa izan zuen gizonezko batek. Erreaninmatzen saiatu ziren; berehala bertaratu ziren osasun etxeko medikuak, eta bi ambulanziaz, horietako bat medikalizatua, baina ezin izan zuten ezer egin.

Larrialdi protokoloa martxan

Oskar Carrascal Kirol teknikariak azpimarratu nahi izan du "berehala" jarri zutela martxan larrialdietako protokoloa eta "eman beharreko urrats guztiak behar bezala" eman zirela, baina ezin izan zutela ezer egin gizonezkoaren bizia salbatzeko.

MENUAK

Astegunetan
Eguneko menua:
11,10€ + BEZa

Asteburuko menu berezia
sasoiko produktuekin egina
Berezitasuna: arraina
23€ + BEZa

Egunero: Karta zerbitzua.

URTIAGAIÑ JATETXEA



Uribarri auzoa 33. Arantzazuko bidea. OÑATI
943 78 08 14 - 943 78 31 35

Fan Hemendik eguna, aurten "dimentsio nazionalarekin"

Alde Hemendik egun nazionala ospatuko da beste 14 herritan, lehenengoz

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

Bihar, zapatua, ospatuko da Oñatin Fan Hemendik eguna. Aurtengoa, egun hori ospatzen den hirugarren urtea izango da eta Oñatin ez ezik, goardia zibilaren kuartela duten Euskal Herriko beste 14 herritan ere egingo dira mobilizazioak egun eta ordu berean. "Hirugarren urtea da Oñatin Fan Hemendik eguna antolatzen duguna goardia zibilaren kuartela dagoelako herrian. Indar okupatzaileak kanpora joatearen aldarrikapenarekin sortu genuen eguna, eta aurten gainera, dimentsio nazionala eman diogu. Izan ere, uste dugu indarrak batzeko momentua dela eta borroka hori Euskal Herri mailara eramateko unea dela", horixe azaldu digu Oier Fernandez Fan Hemendik mugimenduko ordezkari batek. Gaineratu digu aurreko urteko Oñatiko Fan Hemendik egunaren balorazioa egin eta gero, aurten 15 herritan ospatuko dela eguna eta aurrera begira espero dutela kuartela duten beste herri gehiagotan ospatzea eguna. Manifestazioa izango da eguneko ekitaldi nagusia, baina bestelako ekintzak ere



Iazko Fan Hemendik eguneko manifestazioko irudi bat. | GOIENA

egingo dituzte Fan Hemendik eguna ospatzeko.

Egitaraua

Eguna triki-poteoarekin hasiko dute 12:00etan Ongi tabernan hasita. 14:00etan Trio Calavera taldearen kontzertua egongo da Boga tabernaren kanpoan eta 15:00etan herri bazkaria izango dute frontoian. "Bazkarian oraindik ez dakigu zenbat pertsona egongo garen, baina dezente jen-

de animatuko dela uste dugu", esan digu Fernandezek. Bazkaloan gazte olinpiadak egingo dituzte parte-hartzaileek frontoian bertan. 19:30ean egingo da manifestazioa plazan hasita, eta mugimenduko ordezkariak hauxe esan dute: "Manifestazioa egingo dugu, baina ez gara beraiengana joango". Ondoren, kontzertuak egingo dira Zzio, D-pintxos, The Reckless, Marianitoz Blai eta Ez! taldeekin.



Vazquez, erakusketan parte hartuko duen txakur batekin. | MIRIAM UGARTE

Olakuako jaietan txakur erakustaldia, lehenengoz

A.T. | OÑATI

Gaur, egubakoitza, hasi eta domekara bitartean ospatuko dituzte Olakua auzoko jaiak. Egubakoitzean 19:00etan eman go zai jai hasiera, eta, talogile eta triki-poteoaren ostean, Oñatiko Ro eta Herstura taldeen kontzertuak egongo dira. Ondoren, Vendetta taldeak egingo du emanaldia. Zapatuan, Oñatz dantza taldearen erakustaldia egongo da, pailazoak eta musika ere izango dira, besteak beste. Domekan, berriz, mendiko bizikleta zeharkaldia eta haur jokoak egingo dituzte eta herri kirolak ere izango dira. Baina aurtengo egitarauan badago berrikuntzarik.

Txakur erakustaldia

Mimau albaitaritzaren zentroak antolatuta, lehenengoz txakur erakustaldia egingo dute zapatuan, 12:30ean. 30 txakurrekin eman dute izena, euskal artzain txakurrak ere izango dira tartean, eta hiru mailatan bereiztuko dituzte sariak: politena edo atsegina, obedienteena eta jaietako gustukoena. Pototi txakur eskolakoek *agility* erakustaldia ere egingo dute txakurren trebeziak erakusteko. Antolatzaileak, Miriam Ugarte albaitaria eta Marta Vazquez albaitari laguntzailea eta txakurren ile-apaintzailea, "oso pozik" daude erakustaldiak izan duen harrerarekin.

Etzi, gimnasia erritmikoko erakustaldia egingo dute

Aloñako 69 gimnastek taldeka eta banaka hainbat koreografia egingo dituzte kiroldegian

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Aloña Mendiko gimnasia erritmikokoak denboraldi bukaerako jaialdia egingo du domekan, 12:00etan, Zubikoan. Ikasturtean zehar Lide Osinagaren aginduetara egon diren 69 neskatilek agerraldia egingo dute euren guraso eta lagunen aurrean. "Urteko une pozgarriena eta zailena da euren dako. Pozgarriena, dotore jantzi eta makillatu eta urtean ikasitakoa erakusten dutelako. Zailena, oso

urduri egoten direlako, eta edozein akatsek hankaz gora ipintzen duelako koreografia", esan digu Osinagak.

Adinaren arabera -4 eta 14 urte artekoak dira- taldeetan banatuta irtengo dira jendaurrean. Nagusiek banakako erakustaldia egingo dute, baina txikiak taldeko koreografiak egingo dituzte. Batzuk esku librean arituko dira eta beste batzuk, gimnasia erritmikoan erabiltzen diren



Aloñako gimnastak pilotarekin koreografia egiten. | RESU MURUA

aparailuekin: hain justu, pilota, soka, uztai eta mazoak.

Dotore makillatuta

Domekako erakustaldian denetarikoren koreografiak egingo dituzte.

Taldeka erabiltzen dituzten maillotak jantzi eta dotore makillatuta, musika alaia erabiliko dute ikusleen aurrean. "Gimnastiarako bereziki prestatutako doinuak erabiliko ditugu. Koreo-

grafiek doinu bereziak behar izaten dituzte: erritmo aldaketa biziak dituztenak eta hitzik gabekoak", esan digu Lide Osinaga entrenatzaileak.

Bergarako Ariznoakoak

Oñatiko gimnastei lagun egiten, Bergarako Ariznoa taldekoak ere erakustaldia egingo dute. "Hamar gimnasta egongo dira gurekin. Euren koreografiak... eta gimnasia erritmikoarekin lan itzela egiten duen taldea dela ikusi ahal izango dugu", kontatu digute.

Egungo Aloñaren entrenatzailea Ariznoako gimnasta izan zen lau urtez. "Aloñan bakarrik geratu eta Bergarara joan nintzen", esan digu. Iaz utzi zuen tapiz gaineko "diziiplina" eta entrenatzaile lanetan hasi zen Oñatiko etorkizuneko gimnastekin.

'Gure esku dago' dinamika aurkeztuko dute martitzenean

Kultura etxean izango da aurkezpenean martitzenean, hilak 18, 19:00etan. Erabakitze eskubidearen aldeko ekimena da *Gure esku dago*, eta hauxe defendatzen dute: Euskal Herria nazio bat dela, erabakitze eskubidea duela eta herritarrak direla protagonista. Dinamikari buruzko informazio gehiago jaso ahal izango da aurkezpenean.

Trauti elkartearen aurkezpenean bihar Foruen plazan

Bihar, zapatua, aurkeztuko dute Trauti Hesirik Gabe elkartea Foruen plazan, 11:00etan. Erakusketa eta hainbat ekintza antolatu dituzte zaturako, izan ere, nahi dute jendeak ikusi eta probatu ahal izatea elbarrientzat dagoen materiala. Luncha egongo da bertaratzen diren guztiendako.

Udalekoak merkatariekin izan ziren atzo gaztelekuan

Udalak merkataritza biziberritzeko plana jarriko du martxan, eta, abiapuntu moduan, topaketa antolatu zuten herriko merkatariekin. Atzo, eguna, elkartu ziren gaztelekuan merkatariekin eta bertan hitz egin zuten planaren helburuei eta kronogramari buruz, besteak beste.

Elkar Hezin eskolako txikiendako jaiak egingo dute

Ikasturte bukaerako jaiak egingo dute Elkar Hezi ikastetxean gaur; hain justu ere, Haur Eskolako eta Haur Hezkuntzako ikasleendako eta haien gurasoendako ospakizuna izango da. Besteak beste, pailazo-magia ikuskizuna, trikitilariak, txitxi-burruntzia eta gozo-eltzeak (piñatak) egongo dira.

Udako oporren aurreko azken odol-ateratzea gaur

Gaur egingo dute udako oporren aurreko azken odol-ateratzea Txantxiku Ikastolan, 17:30etik 19:30era arte. Oñatiko odol-emaileen taldeak deialdi berezi egin du gaurko. Hurrengo ateratzeak irailaren 13an, urriaren 11n, azaroaren 15ean eta abenduaren 13an egingo dituzte, leku eta ordu berean.

Aurtengo eskola-kiroleko sariak gaur emango dira

Arratsaldeko zazpietan banatuko dira sariak; gurasoentzako jolasak egongo dira aurretik

GUAREN AUZMENDI | OÑATI

Eskola-kiroleko denboraldia bukatzeko sari-banatzea eta jaia egingo dituzte gaur arratsaldean. Zubikoa kiroldegian izango dira.

Bukatu da udaberriko txapelketa, eta, horrenbestez, eskola-kiroleko denboraldia. Horregatik, antolatzaileek kiroldegian festa prestatu dute arratsalderako. 17:30ean, taldeetan lagundu duten gurasoentzat jolasak egingo dira. Gero, 19:00etan, udaberriko sarietan irabazi duten taldeei sariak emango dizkiete. Horren ostean, zerbait jateko aukera izango dute guztiak.

350 ikasle, zapaturo

Gaur bukatuko da eskola-kiroleko 40. denboraldia. Ekintza horri esker, astebururo ikasleek kirola egiten dute; aurten, 350 neska

Gaur izango da Aloña Mendiko saskibaloia-saileko batzarra

G.A. | OÑATI

Saskibaloia-sailekoek elkartean batzarra egingo dute gaur, egubakoitza, Aloña Mendiren bulegoetan. Arratsaldeko zazpietan hasiko da bilera; saskibaloia-sailean era batera edo bestera diharduten guztiak daude deituta gaurko bilerara.

Lehenik eta behin, biltzarrean 2012-2013 denboraldiaren kirol-arloko balantzea egingo dute. Mailaz maila baloratuko da, saski-eskolatik hasi eta EBA mailaraino. Horren ostean, diru-kontuei begiratuko diete: aurrekontuak, babesleak, dirulaguntzak... Gero, batzordeko kide berriak hautatuko dituzte bazkideek; izan ere, urteetan taldearentzat lana egin eta gero, batzuek zuzendaritza uzteko asmoa dute. Talde gazteetan datorren urtean entrenatzen nor arituko den ere lotu beharko dute; eta ordezkariekin, berdin. Hurrengo puntuan, gazteak saskibaloira nola erakarri pentsatzeko tartea hartuko dute. Bukarera, taldearen proiektuari helduko diote. Hausnartuko dute azken urteetan klubak zer bide egin duen eta hurrengoetarako nolako kirol-egitasmoa egin behar den: orain arte egindako lana ikusi eta, aurrera begira, nola segi.

Kirol-elkartetik batzarrera azaltzeko dei egin diete bazkideei, entrenatzaileei, batzordekideei, jokalariei eta gaztetxoentzako gurasoei. Garrantzitsua ikusten dute ahalik eta jende gehien batzea.

-mutil aritu dira zapatu goizetan. Hainbat kirol ezagutzeaz gain, aisialdi osasungarria egin eta sozializatzeko aukera izaten dute eskola-kirolean parte hartzen dutenek. Gazteenek guztien artean



Kiroldegiko kantxan gazteak, iazko festan., | ZUBIKOA

osatzen dituzte taldeak; gero, eskolara. Epailan lanetan ere ikasleak aritzen dira, hamabost urtetik gorakoak. Parte-hartzaileen gurasoak izaten dira entrenatzaileak.

Hori guztia eskola bakoitzeko arduradunek eta Udaleko Kirol teknikariak prestatzen dute; batzorde batek lagundu egiten die. Horietako bat pozik azaldu da eskola-kirolak herrian duen erantzunarekin: "Horretarako adina duten ia gaztetxo guztiak parte hartzen dute". Horri eusten saiatuko direla gaineratu du.

ZEUEI ESKER

GOIENA PAPERA

Irakurriena Debagoienean.

7.000 irakurle gehiago iaz baino. 33.000 irakurle Gipuzkoan.

GOIENA.NET

Gora eta gora, urtetik urtera.

%17,12ko hazkundea urtebetean. Egunero, 5.000 bisita.

GOIENA TELEBISTA

Geroz eta kate gehiago egon arren, ikus-entzule fidelak dauzkagu.

8.000 ikus-entzule Gipuzkoan.

Eskerrik asko, guztioi: irakurleoi, erabiltzaileoi eta ikus-entzuleoi.

ITURRIA: CIES, 2013KO MAIATZA ETA GOOGLE ANALYTICS, 2013

Herritarrei azalduko die proiektu berria Hiruatxek

Ekainaren 19an elkartuko dira udaletxe zaharraren aurrean, 18:00etan

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Hiruatx elkarteak beste proiektu bat dauka esku artean eta datorren eguaztenean, ekainak 19, aurkeztuko du jendaurrean. Horretarako, udaletxe zaharraren kanpoaldean elkartuko dira, 18:00etan, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte bertara daitezen.

Brasilik Mozambikera

Proiektu ugarrin hartu du parte Hiruatxek azken urteetan; Ekuatore Ginean egitasmo bat abiarazi zuen 2007an, eta 2011n, berriz, Brasilen. "Epe motzeko proiektuak dira, bi urte ingurukoak. Martxan ipintzen lagundu ondoren, bertakoek hartzen dute gidaritza".

Mundukidek Afrikan, Nlssa-Cabo-Delgado korridorean, bultzatzen duen programa orokorren parte da herriko elkarteak aurrera atera gura duena, Hiruatxeko kide Inigo Truebak azaldu duenez. Hori horrela, Mozambique iparraldean garatuko dute euren egitasmoa datozen urteetan. "290 nekazari inguruk hartuko dute parte, gainera".

Nekazaritza ardatz

Izan ere, bertako nekazaritzari bultzada eman gura diote: "Balam distrituko garapen sozio-ekonomikoan laguntzeko helburua duen egitasmoa da". Beste hainbat xederen artean, zuzenean komertzializatu daitezkeen barazkien ekoizpena sustatzea bilatuko dute: "Barazkien ekoizpena sustatuko



Mozambiqueko baserritarrak. | HIRUATX

duten aktibitateetan nekazarien parte-hartzea bultzatzea, behar-koa den materiala erraztea, formakuntza eta asistentzia tekniko eskaintzea eta grabitatezko ureztatzaren erabilera bultzatzea bilatzen du esku artean dugun proiektu honek".

Ekainaren 19an kalera

Hiruatxeko kideek euren asmoen berri eman gura diete herritarrei eta Durana kalean, udaletxe zaharraren aurrean elkartzeko dei egin diete aretxabalarrei. "Gure egi-

tasmoa ezagutzeaz gain, zer jan eta zer edan ere egongo da".

Baina gainera, Truebak azaldu duenez, argazki erakusketa bat ere irekiko dute. "Belar Meta dandan izango da. Hala, gura duten guztiak aukera izango dute proiektua garatuko den tokiko eta parte hartuko duten pertsonen gaineko argazkiak ikusi eta gehiago jakiteko".

Bestalde, elkartetik aditzera eman dute boluntarioen beharrea daudela. Interesatuok, hiruatx@yahoo.es helbidera idatzi.

Udako denboraldiarekin batera eskaintza bereziak iritsi dira

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Udako denboraldiari hasiera emango diote bihar, zapatua, Ibarra kiroldegian. Orduetegiari dagokionez, ohi bezala irekiko dute uztaillaren 25era arte; egun horretan –eta baita 31n ere– 09:00etatik 14:00etara joan ahal izango da. Uztaillaren 26tik abuztuaren 31ra, osterara, orduetegi berezia izango dute Ibarra: 11:00etatik 20:00ak arte.

Tarifa eta ekintza berriak

Ekainaren 15etik irailaren 15era bitarterako, Ibarra kiroldegian erabilatzaileentzako tarifa bereziak aurkeztu dituzte. Hainbat prezio daude, adinaren, abonatu motaren eta langabeziaren arabera, esaterako.

Igerilekuak zabalik jarraituko du udan, baina, uda denboraldia izanik, Otala-zelai berdeguna ireki dute, "eguzkia hartzeko eta jolasteko toki aproposa".

Hainbat kirol jarduerak ere antolatuko dituzte: uztaillaren 1etik 19ra kirol udalekuak egingo dira, bi taldeetan banatuta: 6-9 eta 10-13 urte bitarteko umeek ederto pasatuko dute.

Ikastaro trinko batzuk ere prestatu dituzte. Umeentzat igeriketa ikastaroko bi talde sortu dira; gimnasia abdominal hipopresioa lantzeko beste bat. Gainera, Ibaratik aditzera eman dutenez, ikasturteko programarekin jarraituko dute, uztaillaren 24ra bitartean.



Otala-Zelai. | IBARRA KIROLDEGIA

Pailazokeriekin gozatu ederra hartu zuten herriko gaztetxoek

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Eguazten arratsaldean Herriko Plaza herriko neska-mutilek hartu zuten. Izan ere, bisita berezia jaso zuten: Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak koadrila osoarekin bertaratu ziren eta haien jarraitzaile gaztetxoek ez zuten *Sentitu, pentsatu, ekin!* emanaldian hutsik egin gura izan.

Larrinagari omenaldia

Pailazok, gainera, txanogorritxo eta otsoaren istorioa kontatu zuten eta ikusleen miresmen begiradapean ikuskizun polita eskaini zuten. Adi-adi jarraitu zuten guztiak ipuina eta ikus-

kizunean zehar ez zen kantu eta dantzarik falta izan. Oholzara igotzeko aukera izan zuten, gainera, Basabeazpiko azken urteko umeek; Pirritx eta Porrotxen gonbidapena jasota, euren abesti batzuk dantzatu zituzten.

Amaieran, gainera, Joseba Larrinagari omenaldia egin zioten. Izan ere, aurreneko urteetan herrira bertaratzen zirenean kirol-etxe zaharrea eskaintzen zituzten emanaldiak eta bertan ezagutu zuten Larrinaga, han egiten baitzuen lan. Eguazteneko omenaldian, Zuriñe Larrinaga, haren arreba, igo zen taula gainera.

Emakumeen Birako irudia irabazle

Joseba Berezibarrek egindako argazkiak irabazi du kirola eta emakumea batzen zituen Udalak martxan ipinitako argazki lehiaketa. Emakumeen Biran oinarritutako argazkia izanik, sari berezia ere jaso du. Zorionak!



JOSEBA BEREZIBAR

Jou Diaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Patroigintza ikastaroa eskainiko dute uztaillaren 1etik 5era bitartean

Emakumezkoen jantzien patroiak egiten ikasi gura dutenentzako ikastaroa antolatu dute. Katalin Antxiak emango du, uztaillaren 1ean hasi eta 5era arte. Paperaren bidez arropak egiten irakatsiko du: gonak, gorputz baseak, soineko eta mahukak nola egiten diren... Izena emateko, jauntziakpaperean@gmail.com helbidera idatzi.



Pirritx, Porrotx eta lagunak Aretxabaletan aritu ziren. | IRATXE BENGOA

Asier Kidamek 'Txintxin magikoa' eskainiko du etzi

Familia giroan ikusteko emanaldi dibertigarria aurkeztuko du mago gasteiztarrek Arkupen

MIRIAN BITERI | ARETXABALETA

Magia ikuskizuna izango da etzi, domeka, Arkupen, Asier Kidam gasteiztarren eskutik; bere azken lana -*Txintxin Magikoa!*- aurkeztuko du Zaraqia aretoan. Umeei zuzenduta dagoen emanaldia 17:00etan hasiko da, eta sarrerak hiru eurotan salduko dira.

Magia dotore eta ikusgarria eginez, Kidamek bere azken sormen lana eskainiko du familia giroan gozatzeko moduko ikuskizun original eta dibertigarrian. Mirari harrigarriak gertu-gertutik ikusiko dituzte Arkupera joaten direnek, umore-ukitu finak apainduak eta eszenaratze zainduaren laguntzaz. Iratxo jostalaria eta baita magia egiten duen pelutxe bat ere. Horiek dira *Txintxin magikoa!* lanaren protagonistak. Magiaren liluraz ordubetez disfrutatzen aukera, beraz.

2.000 emanalditik gora

Txikitatik egon da gasteiztarra magiari lotuta; hain justu, zaz-

pi urte baino ez zituela hasi zen magiarekin interesatzen, mago batek txanpon bat atera zionean belarritik; hiru urte geroago debutatu zuen mago moduan.

Sarrera-proba egin ondoren, 17 urterekin, Espainiako Ilusionismo Elkartean sartu zen, eta bi urte geroago, 19 urte zituela, ogibide bihurtu zuen bere pasioa. Dagoeneko 2.000tik gora emanaldi eskaini ditu; gehienak Euskal Herrian egingoak.

Haurrei zuzendutako *Txintxin magikoa* gain, helduendako ikuskizuna ere badu Kidamek, *Sekreturik Ez* izenekoak. Espektakulu horretan magiaren joko klasikoak erabat berrituak aurkezten ditu.

Magia mutua

Gaur egun, magia emanaldiak egitearekin batera, *Bolox* diseinatzeko eta prestatzeko ari da: magia mutua erakusten duen anbizio handiko espektakulu original eta nazioartekoa.



Asier Kidam neskato bati zapiaren ikuskizuna erakusten. | CARLOS ARCINIEGA

Araba Euskaraz-erako autobusa etzi 09:45ean irtengo da Azbetik

Bergara eta Aretxabaletako euskara elkarteek aurtengo Araba Euskaraz-era joateko autobusa antolatuko dute. Etzi, domeka, izango da Arabako ikastolen aldeko jaialdia Aia-ra aldean; hain justu, Amurrioko Aresketa ikastolak gertatu du *Mihian kili-kili, euskaraz ibili!* lelopean egingo den festa.

Loramendi elkartetik jakinarazi dutenez, Aretxabaletatik 09:45ean irtengo da autobusa Azbe pareko geltokitik. Handik Amurriorantz abiatuko da zuzenean, Bergara eta Arrasateko euskaltzaleek aurretik hartuko dute eta autobusa.

Garbigune ibiltaria eguaztenean izango da Gernika plazan

Eguaztenean, hilak 19, bigarren ezatorriko da gurera Mankomunitatearen Garbigune ibiltaria. Egun osoa emango du herrian: hain justu, Gernika plazan izango da 10:30etik 21:00etara bitartean. Etxean ditugun hondakin arriskutsuak eroan daitezke horra, hala nola, aerosolak, bonbillak, kartutxoak, erradiografiak, termometroak, disolbatzaileak, bateriak, sukaldeko olio zaharra, pilak edo batidorak edo ordenagailuetako teklatuak bezalako etxetresnak. Hondakinak uzterakoan ahal den txukunen uzteko dei egin dute, lekua aprobetxatze aldera.



Marianne Vos txirrindularria Kurtzebarriko ikasleekin

Kurtzebarri DBH institutukoek Holandako Merletcollege eskolakoekin elkartrukea bultzatzeko atera duten *Geuretik mundura* kamiseta dotore asko jantzi zuen Marianne Vos txirrindulariak. Joan den egubakoitzean Aretxabaletan hasi eta bukatutako Emakumeen Biran hirugarren izan zen holandarra. Goiko irudian, Vos podiumean, esandako kamiseta jantzita duela eta Kurtzebarriko ikasleak eta Ana Bolinaga alkatea ondoan dituela.

Aretxabaletako taberna eta jatetxeen gida

atseden vinoteca

Araba ibilbidea 27
Aretxabaleta
943 08 10 66
vinoteca_atseden@hotmail.com

Bokatak, plater konbinatuak, menu bereziak, bakailoa...

Ardo dastatzea ALTUN upategiarekin
Ekainaren 27an, 21:00etan, afariarekin
Izen-ematea eta informazio gehiago:
Atseden ardotegian 943 08 10 66

Gurea
TABERNA

Lotoak eta kinielak

WiFi GUNEA

Durana 32 ARETXABALETA Tel.: 943 79 20 64

ORLY TABERNA

Orly aretxabaleta

Giro berria dastatu, eta Orly aukeratu!

Herriko plaza 3 • ARETXABALETA

IOSU
taberna
harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1 • ARETXABALETA • Tel.: 943 77 03 08

taberna **URBALTZ** elkartea

Mitarte 19 - 20550
ARETXABALETA

Alokagai dago Udalak Santa Ana kalean duen lokala

M.B. | ESKORIATZA

Santa Ana auzoko 19. atariko etxebeko udal jabetzako lokala errentan hartzeko aukera dago, eta interesatuek martitzen arte dute horren gaineko eskaerak udaletxean aurkezteko epea: hain justu, 13:30ak baino lehen emango zaie sarrera erregistroan.

Lokala Tortolis ludoteka aldamenean dago eta 50 metro karratu inguru ditu. Alokairu kontratuak lau urteko iraupena izango du, eta hileko prezioa, gutxienez, 250 eurokoa (BEZa eta bestelako zergak aparte) izatea erabaki du Udalak. Hain zuzen, eskainitako prezioa, lokala egokitzeko edo berritzeko lanak, jardueraren proiektua eta horrek sustatuko duten lana baloratuko du.

Haur eskola kudeatzeko eskaerak egin daitezke

M.B. | ESKORIATZA

Maiatzeko osoko bilkuran Udal Gobernuak haur eskola udal zerbitzua kudeatzeko deialdia egitea eta baldintza teknikoaren prozedura deitzea onartu zuen, eta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean horren gaineko iragarkia argitaratu ostean, ekainaren 21era arte dago eskaerak aurkezteko epea.

Prestazioa emateko epea urte batekoa izango da, irailaren 1ean hasita; eta lehengo urteko aurrekontua 14.577 euro da. Proposamenak udaletzeko sarrera erregistroan aurkeztu behar dira, jendearendako ordutegian. Informazio gehiago gura dutenek 943 71 46 88 telefono zenbakira dei dezakete.



Aurten ere geldiduna egingo dute motorzaleek. | ESKORIATZA KIROL ELKARTEA

Eskoriatza Kirol Elkarteak festan murgilduko da bihar

Besteak beste, partiduak, tortilla lehiaketa, bazkaria, txuleta jana eta Gabez Takarraren egingo dituzte

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Urtero moduan, Eskoriatza Kirol elkarteak egun borobila gertatu du biharko. Ekintzaz beteta dator eguna: 10:00etatik 12:00etara, areto futbola eta saskibaloia daude kiroldegian; eta 12:30ean, tortilla lehiaketa egingo dute plazan. Tortillak etxetik eginda eraman behar dira, 12:00etik 13:00etara, plazara. Epaimahaiak horiek dasatu eta onenak aukeratu dituzte. Bi lagunendako bina afari bana-

tuko dira, bat Txalapartan eta bestea Oztetan. Bestalde, motor kontzentrazioa ez da faltako. Horiei ongietorria egin ostean, Ozteta jatetxerantz abiatuko dira; 50 bat lagun elkartuko dira han.

Eskoriatza eta Baskonia

Arratsaldean, saskibaloia lehia ikusgarria izango da kiroldegian: hain justu, emakumezkoen alebinetan, Eskoriatza eta Baskonia lehiatuko dira kiroldegian. Baina,

EKIMENAK, ORDUZ ORDU

10:00 Areto futbola kiroldegian.

11:00 Saskibaloia kiroldegian.

12:00 Musika plazan.

12:00 Tortilla lehiaketa plazan.

13:30 Motorzaleei ongietorria plazan.

15:00 Herri bazkaria.

17:00 Alebinen saskibaloia partidua kiroldegian.

17:30 Musika plazan.

17:30 Areto futboleko trebetasun txapelketa plazan.

18:30 Saskibaloia binakako saskiratze txapelketa plazan.

19:30 Txuleta jana plazan.

23:00 Gabez Takarraren mendi lasterketari hasiera emango diote plazan.

03:00 Jai bukaerako txupinazoa.

kirolarekin lotutako jarduerak ez dira partidu horrekin amaituko: areto futboleko trebetasun eta saskibaloia binakako tiro txapelketak ere izango dira.

Indarrak ere berreskuratu behar dira, eta horretarako, urteroko txuleta jan ederra gertatu dute. Eguna III. Gabez Takarraren lasterketarekin amaituko da; aurtun bigarren egingo dute proba hori Eskoriatza Kirol Elkartearen Egunaren bueltan.

Bihar irekiko dute kanpoko igerilekua jokoetarako gune berriarekin

Bestalde, Umeendako lau ikastaro antolatu dituzte hilaren 24tik 27ra

M.B. | ESKORIATZA

Udako denboraldiari hasiera emango diote bihar, zapatua, kiroldegian, eta kanpoko igerilekua zabalduko dute. Honako ordutegian erabili ahal izango

da: astelehenetik zapatua, 10:00etatik 20:00etara; eta domeka eta jaiegunetan, 10:00etatik 13:00etara. Igerilekua erabiltzearekin batera, aurten, gainera, ping-pong mahaiak, badmintona, mahai-futbola eta bestelako jokoak jarriko dituzte herritarren eskura.

Bestalde, barruko igerilekuek ere ordutegi berezia izango dute udan: bihartik uztailaren 28ra eta irailaren 2tik 15era, astelehenetik zapatua, 10:00etatik 20:00etara; eta domeka eta jaiegunetan, 10:00etatik 13:00etara egongo dira zabalik. Uztailaren 29tik irailaren 1era astelehenetik egubakoitzera 10:00etatik 19:00etara; asteburu eta jaiegunetan, 10:00etatik 13:00etara.

Umeendako ikastaroak

Bestalde, 2003. eta 2009. urte artean jaiotako neska-mutikoei zuzendutako udako kirol eskaintzaren

berri ere eman dute egunotan. Kiroldegian, patinajea, badmintona, pilota eta aerobika praktikatu ahal izango dute hilaren 24tik 27ra bitartean. Honako ordutegian izango dira saioak: goizez, 10:00etatik 12:00etara; eta arratsaldean, 15:00etatik 17:00etara.

Dagoeneko zabalik dago ikastaro horietarako izen-ematea; hilaren 21an amaitzen da epea. Prezioari dagokionez, bazkideak direnek 25 euro ordaindu behar dituzte ume bakoitzeko; 45 euro bi anai-arrebak izena ematen baldin badute; eta 65 hiru anai-arrebak. Bazkide ez direnendako matrikula, ostera, honakoa da: ume bakoitzagatik 27 euro, bi anai-arrebagatik 47 euro eta hiru anai-arrebagatik 67 euro. Kirol Zerbitzutik jakinarazi dute gutxienez 12 umek egongo behar dutela talde bakoitzean.

Gaur arte bozka daitezke esaldi lehiaketako lanak

Sanpedrotako aurtengo esaldi lehiaketara aurkeztutako esaldi guztien artean aukeraketa egin du epaimahaiak, eta 12 horiek jendaurrera atera dira, gura dutenek botoa eman dezaten. Gaur, egubakoitza, arte eman daitezke bozka www.eskoriatza.net webgunean. Herritarren botoak herena balioko du eta epaimahaiarenak, gainerakoa.

Garbigune ibiltariak Eskoriatza bisitatuko du martitzen

Martitzen, hilak 18, Garbigune ibiltaria izango da Gorosarri plazan, 09:00etatik 21:00etara. Hamabostean behin herri bisitatzen duen zerbitzuak etxean ditugun bonbilla, erradiografiak, disolbatzaileak, bateriak, etxeresna elektrikoak, olioak, pilak eta halako hondakin arriskutsuak jasotzen ditu.

Axtroki merkatarien elkarterako irudiak aurkez daitezke

Eskoriatzako merkatarien elkarterako irudia aukeratzeko lehiaketa deitu dute. Proposamenak ekainaren 21a baino lehen aurkeztu behar dira Ibarraundi museoa. Teknika eta gaia libreak izan arren, logotipoak *Axtroki Merkatarien Elkarte* jaso behar du. Irabazleak elkarte osatzen duten dendetan 150 euro gastatu ahal izango ditu.

OHARRAK

LOREEN LEHIAKETA

Gaur, egubakoitza, amaitzen da Udalak antolatutako leiho eta balkoietako loreen lehiaketan parte hartzeko epea.

GAZTELEKUA

Ekintzaz beteta dator asteburua: gaur, mahai-jokoak dituzte; bihar, Landara joango dira; eta etzi, hiruko saskibaloia txapelketa jokatu dute.

ATXORROTZEN AUZOLANA

Lanean dihardute Atxorrotzen. Oraingoan zapatu eta domekarako egin dute hitzordua, 09:30ean, Atxorrotzen.

ZOKETA ZAPATISTA

Aste Zapatistan egindako zoketaren zenbaki sariduna 1.153 da; erreserbakoa, 210.

OLAZARKO KUOTA

Olazar erretiratuen elkarte aurtengo kuota kobratzen hasi da. Ordaindu barik dutenek elkartearen bulegotik pasa behar dute martitzen eta egunetan, 11:00etatik 12:30era.



FRUTAN ETA TXARKUTERIAN ESPEZIALISTA
San Juan kalea 12, behea Tel. 652 77 53 58



Sorturen Herri Kontseiluko kideak aurkezpenaren ostean. | ANE ETXEBERRIA

Herri Kontseilua aurkeztu du Sortuk

Lantaldean 30 pertsona inguru dabilta eta erabakiak hartzeko beharren arabera bilduko dira

I.U.E. | ANTZUOLA

Sorturen Antzuolako Herri Kontseilua astelehenean aurkeztu zuten Olanan etxean. Taldeko ordezkarien eta herritarren artean 30 pertsona inguruko multzoa batu zen aurkezpenean.

Ekitaldiari hasiera emateko egun espetxerata dagoen Arnaldo Otegi Anoretako Belodromoan egindako hitzak ekarri zituzten gogora, bideo labur baten bidez. Ostean Aitzol Iturbek bertso bat botatu zuen espetxean daudenak gogoratu eta Herri Kontseiluari ongietorria emanaz.

Ion Iturbe koordinatzaileak kontseilua osatuko duten kideak aurkeztu eta Sorturen helburuak azaldu zituen ondoren.

Lan-talde polita

Sorturen Euskal Herri mailako antolaketaekin batera, herrikoa

ere egokitu zutela azaldu zuen. Egun 30 pertsona inguru dabilta lanean Sorturen Herri Kontseiluan eta Iturberen ustez, "hori zenbaki polita da Antzuolarako".

Aurkezpenean esandakoaren arabera, Euskal Herri independente, sozialista, feminista eta euskalduna eraikitze lan egingo du Herri Kontseiluak, "nazio gisa pentsatuz eta herri mailan eraginez".

Herri Kontseiluaren funtzionamenduaren inguruko hainbat erabaki dagoeneko hartuta dituztela argitu du Iturbek: "Antzuolan erabaki potolo asko zelan ez diren egoten hartzeko, kontseiluak ez du izango epe finko bat batzeko. Beharra dagoela edo gairen baten inguruan erabaki bat hartu beharra dagoela pentsatzen dugunean deituko dugu organoa".

Alaitz Jauregiren ikastaroetarako izen-ematea, datorren astean

I.E. | ANTZUOLA

Alaitz Jauregi hezitzaileak asteotan amaituko ditu ikasturte honetako ikastaroak. Datorrenari begira dago jada eta astelehenean irekiko du irailetik abendura bitartean eskainiko dituen saioetarako izena emateko epea. Aurreikusitakoaren arabera, datorren ikasturtean hurrendako ikastaroak bakarrik eskainiko ditu.

Izena emateko, datorren astelehenean ostiralera Xinkona dendara joan behar da. "Ilararak sortu ohi dira eta astelehenean denbora luzeagoan egongo naiz", adierazi du. Beraz, astelehenean 16:00etatik 20:00etara egin daiteke izen-ematea eta martitzenetik egubakoitzera, berriz, 17:00etatik 20:00etara. Prezioa 40 euro da.

Ikastaroetan landu beharrekoa adinaren arabera zehazten du Jauregik. Txikienek josten ikasten dute eta zaharagoek, puntua eta kakorratza egiten. "Irailean hasten da ikas-

taroa, eta, negua hurbil dagoenez, ongi etortzen zaie horiek ikastea, bufandak egin ditzaketelako, adibidez". Diruzorroak eta antzekoak ere egiten dituzte. Materialei dagokienez, egunerokotasunean eskura dituzten gauzak erabiltzen saiatzen dira.

Bestelako heziketa

Eskolaz kanpoko jardura ohikoena kirolak eta hizkuntzak diren garaiotan, Jauregiri ez zaio ikaslerik falta bere ikastaroetan. Aurten 80 ume inguru izan ditu, bizpahiru taldeetan banatuta. Gainera, haur batzuk kanpoan geratu dira, ez zegoelako lekurik.

Saioetan eskulanak egiten ikasten dute, baina bestelako heziketa ere jasotzen dute: "Arrain batzuk ditugu dendan eta haiei jaten ematen diete, ardurak hartzeko", azaldu du Jauregik. Gainera, kaleko iturritik ura hartzen dute, iturrikoa edaten ikasteko.



EDURNE ITURBE

Trikiti eskolako emanaldia

Ikasturte amaierarekin batera, urtean zehar egindako lana herritarrei erakusketako hilabetea da ekaina eskolatan. Aurten trikiti eskolan ibilitako 18 ikasleek eguaztenean eskaini zuten kontzertua Torresoroan. Euskal Herriko erromerietan ohikoak diren doinu folklorikoak jo zituzten pandero eta soinuarekin, baita kontzerturako propio prestatutako pieza brasildar bat ere.

Hainbat musika emanaldi izango dira datozen egunetan

Musikak girotuko du herria datozen egunetan. Bihar, Bergarako Orkestra Sinfonikoak kontzertua emango du Torresoroan. Orkestrak lotura estua du Antzuolarekin, sorreran herritarrak egon zirelako. Kontzertua 22:00etan hasiko da. Bestalde, astelehenean musika eskolako emanaldia izango da, 17:00etan.

Zugarramurdi eta inguruetan egun-pasa egingo dute erretiratuek

Landatxope Erretiratuen Elkarteak Zugarramurdirako irteera antolatu du ekainaren 19rako. Hain ezagunak diren kobazuloak ikusi eta herria ere ezagutuko dute. Santestebanen egingo dute bazkaria eta arratsaldea pasatzera Irunera joango dira. Izen-ematea aste honetan izan da eta 60 lagunentzako lekua zegoen. Irteerak 30 euroko kostua du.

Arregi txirrindulari gaztea bosgarren izan da San Antonio sarian

Mikel Arregi txirrindulari antzuolarra bosgarren helmugaratu zen zapatuan Bergaran jokaturako San Antonio sarian. Lehen urteko kadeteen lasterketa izan zen, Gaztetxoak torneoko proba. Inigo Elosegik irabazi zuen, eta lehen 37 txirrindulariak denbora berean heldu ziren, 01.25.51ko denborarekin.

Bigarren goan ere bertan behera utzi dute Aralarko irteera

Arrola mendi taldeak bi aldiz egin du Aralarrera joateko saiakera. Lehenengoan atzeratu egin zuten eguraldia zela-eta; domekan ziren bigarren ahalegina egitekoak, baina egunean bertan behera uztea erabaki zuten, eguraldi iragarpenagatik. Azkenean, irteera udazkenerako uztea erabaki dute.

Eskola, eliza, iturria eta hilerria ezagutzera Uzarraga egunean

I.E. | ANTZUOLA

Uzarraga auzoa biziberritzeko asmotan dabil azken hilabeteotan Uzarraga Bizirik taldea. Inguru-nea ezagutzea garrantzitsua da helburu hori lortzeko eta aurten garai bateko San Juan jaiak berreskuratu eta Uzarraga eguna egingo dute ekainaren 23an.

Garai batean auzunea osatzen zuten eskola, eliza ingurua, honen aurrean dagoen iturria eta hilerri zaharra bisitatuko dituzte 10:30etik aurrera. Liburu batzuek diotenez, XV. mendean bailarako ospetsuak Uzarragako hilerrian lurperatzen zituzten. Horrelako eta antzeko beste gertaera batzuk ezagutuko dituzte bisitan.

Ordubetegeroago, sanjuanetako arbola jasoko dute, txistularien doinuen laguntzarekin. 12:30ean Oinarin herriko dantza taldeak saioa eskainiko du eta ostean erromeria hasiko da. Hori amaituta, salda eta txorizoa banatuko dute, eta zozketa ere izango da.

Bizikleta igoera bihar

Uzarragan sanjuanek ospatuko badituzte ere, bihar izango da bizikleta igoera, 12:00etan hasita. Parte-hartzaile nagusiak Etxe Zuriko zubitik abiatuko dira, txikiagoak Lausagarreta baserri paretik eta txikienak, berriz, Azkarateko bihurtunetik.

ANTZUOLA
Apainketak eta solamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

Enplegu plana Zuiarako, ekintzaitasuna oinarri

Enpresa berri bat sortzeko aholkularitza zerbitzua eskaintzen du programak

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Zuiako Koadrilak eta Otxandioko Udalak ekintzaitasuna sustatzeko programa jarri dute martxan. Helburuak dira eskualdeko pertsona ekintzaileak atzeman eta ezagutzea eta enpresa-proiektu bat martxan jarri gura duten eta bertakoak diren ekintzaileendako aholkularitza zein laguntza zerbitzu bat sortzea. Horretarako sentsibilizazio eta informazio jardunaldiak antolatu dituzte eta eguaztenean Aramaion egon ziren. Aramaion egon aurretik Legution, Otxandion, Zigoitian, Arratzua-Ubarrundian eta Zuian egon ziren eta saioek parte-hartzaile gutxi izan bazuten ere, ideia eta ekarpen interesgarriak izan direla aipatu digute koadrilako ordezkariak. Atzo Urkabustaizen izan zuten lehen faseko azken saioa.

Denetarik argibideak

Ekimenak hiru oinarri ditu. Batek, enpresa bat sortzeko giltzarrak azaltzen ditu. Hau da, proiektu berri bati ekiteko interesa dutenekin informaziorako eta oinarritzko formaziorako tailerra egiten dute. Era berean,



Eguazten iluntzean Aramaio udalaldean egindako saioa. | OIHANA MARTINEZ

proiektuaren bideragarritasunerako aholkularitza zerbitzua ere eskaintzen du egitasmoak. Enpresa, komertzio edo bestelako proiektu txiki bat sortu gura duenari honako argibideak ematen dizkiete, besteak beste: merkatuaren azterketa -bezeroaren analisia, lehiakideena, sektorearena..., prezio, banaketa eta komunikazio politikak eta inbertsio, finantzia-

zio zein salmenta-planak aholkartzuten dituzte. Azkenik, enpresa martxan jartzeko hainbat gomendio ere ematen dituzte: bide juridiko egokiena, enpresa bat sortu eta martxan jartzeko behar diren izapide eta baldintzak, gai fiskalen gaineko aholkularitza, diru-laguntzak eskatzeko prozedura... Argibide gehiagorako: 945 430 167 (Oihana edo Jon).



Haurrak Aramaion, udalekuek gozatzen. | ARTXIBOA

Udalekuetako begiraleek formazio saioa egingo dute, nobedadeekin

J.B. | ARAMAIO

Udalekuak uztailearen 10etik 23ra izango dira eta aurten 98 umek eman dute izena, iaz baino 17 gutxiagok. 3 eta 12 urte arteko haurrendako udalekuak dira eta bi astetan zehar denetarik ekintzak egingo dituzte, 10:00etatik 13:00etara. Bederatzi begirale arituko dira lanean, guztiak aramaioarrak, eta bihar goizean egingo dute derrigorrezkoa den formazioa saioa.

Saio horretan helburuak, baliabideak eta segurtasun arauak jorratuko dituzte besteak beste. Era berean, aurtengo formazio saioan nobedade aipagarri bat izango da begiraleendako.

Berramosten proiektua

Txatxilipurdiko ordezkari batek Arrasateko ludoteketan martxan jarritako Berramosten proiektua azalduko die begiraleei, umeen autonomia lantzeko. Aldi berean, haurrendako aproposak diren espazioak berreskuratu nahi dira proiektu horrekin.

Ana Muñoa arduradunak iragarri duenez, hilaren 22an beste saio bat egingo dute egitaraua "erabat" zehazteko. Iazko ekintza arrakastatsuenak izan ziren Otxandioko igerilekuetara egindako irteera, Sanferminetako entzierroa, Pablo Beitiaren txanpon bildumaren erakusketa eta gaileta-tailerra.

Musika brasildarra Sastiñan, La Bossa Nostra taldearekin

Gasteizko La Bossa Nostra taldeak kontzertua eskainiko du gaur Sastiñan (20:00). Raul Vera, Sonia Vera eta Josu Jungituk osatzen dute taldea eta musika brasildarra -bossa nova moduan ezaguna- eskainiko dute. Eskarmentu handiko musikariak dira; Sonia Vera abeslariaren ahots gozoak gidatuko du saioa, Raul Vera gitarrarekin arituko da eta Josu Jungituk beste hainbat instrumentu joko ditu. Kontzertu akustikoa izango da, inprobisazio eta guzti.

Europako mendietara irteera Orixol elkartearen eskutik

Orixol mendizale elkarteak irteera antolatu du Europako mendietara, hilaren 29rako eta 30erako. Bi irteera egingo dituzte: lehen sei ordukoa eta bigarrena zortzi edo bederatzirako ordukoa. Fuente De, Urrieleko aterpetxea, Cerredo dorrea eta Sotres bisitatuko dituzte, besteak beste. Izena eman behar da ekainaren 21a baino lehen Añai tabernan. Gehienez 20 lagunendako lekua dago; Orixoleko bazkideek 70 euro ordaindu beharko dute eta ez bazkideek 75 euro.

Auzolanerako deia biharko Azkoaga eta Barajuen auzoetan

J.B. | ARAMAIO

Auzolanak Aramaion funtzionatzen du oraindik. Horren erakusle da biharko deia egin dutela Azkoaga eta Barajuen auzoetan. Azkoagan hirugarren saioa izango da biharko: "Kantopantun hainbat lan egin ditugu dagoeneko. Lehen hilkapera jartzen zen etxolako teilatua konpondu genuen baina oraindik lurra eta hormigoia sartu behar ditugu", adierazi digu Antonio Elejalde auzo alkateak.

Lehen saioan 17 lagun elkar-tu ziren. Bigarrenetan, jende gutxiago behar zenez, zortzi lagun aritu ziren lanean. Biharko, Elejaldek adierazi duenez,

bigarren saiorako baino jende gehiago beharko da. Lanak amaitu ostean hamarretako egingo dute eskola zaharrean, Udalak ordainduta.

Urteko lehen Barajuenen

Barajuenen biharko urteko lehen saioa izango da. 09:00etan hasita, bazterrak garbitu, konponketa lan batzuk egin eta eserleku ezberdinak margotuko dituzte, besteak beste. Jon Arriaran auzo alkateak esan digunez, konponketa lan horien artean dago sortzen diren putzu batzuetan hormigoia botatzea. Lanak amaitu ostean, eguerdian, jatekoa eta edatekoa izango dute auzoko elkarteak.

Orokorrean, denboraldi ona izan da areto futboleko taldearendako

J.B. | ARAMAIO

Amaitu da denboraldia Aramaio areto futbol taldearendako. Joan den domekan, Kopako final laurdenetan, jipoi galanta jaso zuten aramaioarrek (6-0) eta orain oporrak hartuko dituzte datorren denboraldira arte.

Andoni Elejalde taldeko koordinatzailea pozik dago urteak eman duenarekin: "Gozatu egin dugu, ez dela gutxi. Taldeak erakutsi du jokatzeko eta hobetzen joateko grina duela eta hori poztekoa da". Taldea badago, gehienak aramaioarrak dira eta datorren urterako egungo taldearen oinarriak bere horretan

jarraituko du. Aurten ezin izan dute mailaz igo, denboraldi osoan oso erregularra izan beharra dago horretarako.

Maila bat gorago ere ondo

Hala ere, maila bat gorago ere taldeak lan ona egingo zuela uste du Elejaldek: "Baina gure antzeko maila duten taldeen aurka huts egin dugu gehienetan. Horren adibide da Kopako azken partiduan 6-0 galdu genuela".

Emaitzak emaitza, datorren urterako taldea egongo dela uste du Elejaldek: "Aramaion taldea mantentzea bakarrik pozteko moduko albistea da".



SERGIO AZKARATE

Bazter-babesa konpondu dute

Martitzenean konpondu zuten apirilaren 27an errekara eroritako kamioiak hautsi zuen errepideko bazter-babes zatia. Istripua oso ikusgarria izan bazen ere, gidaria arin zauritu zen. Orduetik hona, ibilgailuen zirkulaziorako kono batzuk egon dira kamioia erori zen lekuan gidariei arriskuaren berri emateko. Bada, orain, 30 bat metrorako bazter-babes zati berria jarri dute.

ELGETA



Baikarako Imanol Zubizarreta, martitzenean, Herri Eskolan Lomce legearen gainekoak azaltzen. | L.Z.

Maisuak eta gurasoak kezkatuta murrizketekin eta Lomcerekin

Liburuaren mailegu programa kentzen badute, familiek ordaindu beharko dute

LARRAIZ ZEBERIO | ELGETA

Herri Eskolako ikasleak ikasturte amaiera prestatzen hasita daude. Martitzenean ikasturte amaierako irteera egin zuten, eta gaur, barikua, urteroko ikuski-

zuna egingo dute Espaloian, 15:00etan. Ordubete inguruko saioa izango da. Gero, astebete geldituko zaio ikasturteari; izan ere, ikasleek hilaren 21ean amaituko dituzte eskolak.

Hurrengo ikasturtea

Bestelakoak dira irakasleen eta gurasoen kezka. Etor daitezkeen murrizketak, Lomce legearen aplikazioa... informazio zehatzik ez dago, eta ezjakintasun horrek

kezka sortzen du. Ekainaren 5ean egindako Eskola Kontseiluan jakitera emandakoaren arabera datorren ikasturtean gela bakar batean egongo dira 3 eta 4 urteko umeak. Hala, irakasle bat gutxiago aurreikusten dute Haur Hezkuntzan. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleak, ordea, banatu egingo dituzte. Hala, irakasle bat gehiago izango du ikastetxeak ziklo horretarako.

Ezbaian jarraitzen du testu liburuaren mailegu programak. Lehen Hezkuntzako ikasleek 26-30 euro inguru ordaintzen dituzte testu liburuak ikasturteko. Hezkuntza Sailak programa hori bertan behera uzten badu hurrengo ikasturtean kopuru hori 118-138 euro ingurukoa izan daiteke.

Lomce legea

Wert ministroaren lege erreforma kezka iturri da Elgetan ere. Martitzenean hamaika gurasok eta bost irakasle jarraitu zuten Lomce legeari buruzko informazio bilera. Baikara elkarteak Imanol Zubizarretak hainbat azalpen eman zituen, eta argi hitzegin zuen: "Legea 2013ko azaroa baino lehen onartzen badute, 2014ko irailean aplikatu nahiko dute. Akaso egongo dira aplikazio hori atzeratzeko formulak, eta garrantzitsua da hezkuntza komunitate osoa bateratuta egotea. Otsailean adostasun garrantzitsu bat lortu zen Lomceri ez, gure hezkuntzari bai dokumentuarekin. Bide horretan jarraitu behar dugu lanean", esan zuen.

OHARRAK

MENDI FEDERAZIOA

Urteko batzarra egingo du Euskal Mendizaleen Federazioak bihar, zapatua, Espaloian, 10:30ean hasita.

INTXORTAKO LEHIOIAK

Athleticeko jarraitzaileek lagunarteko txitxi-burruntzia egingo dute bihar, zapatua, 13:00etan, bolatokian.

KONTZERTUA ESPALIOAN

12 Tribu eta Akatz taldeek emanaldia egingo dute bihar, zapatua, 22:30ean, antzokian. Sarrera zortzi euro da; bazkideendako, bost euro.

MUSIKA IKASLEEN SAIOA

Ikasturte amaierako emanaldia egingo dute domekan, 12:30ean, kafe antzokian.

ERRETIRATUAK

Podologoa hilaren 20an izango da Elgetan. Bestetik, domekan, urteko kuota —10 euro— kobratuko dute Ozkarbi elkartean, 11:00etatik 13:00etara.

V. FRONTENIS TXAPELKETA

Zazpi norgehiagoka aste bukaeran

Gaur, 20:00etan, txapelketa mistoko lau norgehiagoka jokatu dira, eta bihar, zapatua, gizonezkoen txapelketako hiru partidu.

AZKEN EMAITZAK

Andoni Elortza-Julen Barrutia / Adrian Gorostiza-Asier Osoro	25-10
Julen Barrutia-Imanol Albizu / Mikel Zubiaurre-Aitor Errarte	25-08
Odei Zenitagoia-Fernando Zenitagoia / Txema Cot-Juan Carlos Gonzalez	25-09
Iban Retolaza-Xabier Ubera / Jon Ugarteburu-Josu Mañarikua	25-12

GAURKO PARTIDUAK, 20:00ETAN

M. Zeziaga-P. Larrea / I. Serna-A. Osoro	M. I. Olabarria-X. Dosuna / I. Bravo-I. Lopez
A. Iribar-L. A. Alkorta / G. Sarasqueta-B. Campos	M. Mañarikua-J. Mañarikua / I. Elkorro-J. Belamendia

ZAPATUKO PARTIDUAK, 16:00ETAN

A. Gorosabel-E. Vallo / I. Untzetabarrenetxea-E. Ojanguren	J. Mañarikua-J. Ugarteburu / A. Gorostiza-A. Osoro
	O. Sarasua-X. Dosuna / M. Zubiaurre-A. Errarte



San Juan sua pizteko pila egiten

Elgetako neska-mutikoak hasita daude San Juan sua egiteko materiala batzen. Goiz hasi dira aurten, eta gogotsu. Dagoeneko buelta bat baino gehiago egin dute enpresetara egur eta kartoi bila. Domeka da aurten San Juan bezpera —ekainak 23—, eta ilundutokoa piztuko dute sua Bolatokiko kantxaren aldamenean.

LEINTZ GATZAGA

Herriko ehiza-barrutia legeztatuta, eta lehiaketara

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Osoko bilkura monografikoa egin zuen atzo, eguna, udalbatzarrak, udalerriko ehiza-barrutiaren gainekoa. Mahai gainean, bi puntu: ehiza-barrutia Jaurlaritzaren lege berrira egokitu dela jakinaraztea eta udalerriko ehiza-barrutiaren kudeaketa lehiaketara ateratzeko

proposamena, udalbatzarrak aho batez onartu zuena.

Ehiza larria

Ehiza-barrutiaren legeztapenari dagokionez, Eugenio Otsoa alkateak jakinarazi zuen ehiza postuen distantziak, lekuak, babeslekuak... legeak dioenari egokitu daudela.



Udalbatzarra atzoko osoko bilkuran. | UBANE MADERA

Eta besteak beste, baserriarren azken protestak aintzat hartuta, aurrerantzean ehiza larria ere egin ahal izango dela Gatzagako ehiza-barrutian. Orkatzak eta basurdeak ehizatu ahal izango dira, urteotan ugaritu egin direlako eta kalteak eragiten dituztelako.

Lehiaketa, 51.300 eurotan

Ehiza-barrutiaren kudeaketa lehiaketara ateratzeko proposamenaren gainean, berriz, udalbatzarrak onartu zuen 51.300 eurotan (BEZA barne) finkatzea haren prezioa.

FUTBOLA**Debagoieneko futbol campusa egingo dute uztailean**

X.U. | ARETXABALETA

Debagoieneko III. futbol campusa egingo dute uztailean 1etik 19ra bitartean, eta bihar da, ekainak 15, izena emateko azken eguna (649 82 20 70).

Aurreko edizioetan moduan, Aretxabalean egingo dute campusa eta Realak ikuskatuko du. Hori bai, Debagoieneko klub guztieta haurrei zuzenduta dago, 2001 eta eta 2004 urte artean jaiotakoak. Guztira, hiru txanda egingo dituzte eta txanda bakoitzean plaza mugatuak izango dira, 60 plaza, eta campusak bost egun iraungo du.

Hala ere, futbol campusa bada ere, gaztetxoek jarduera mordo egingo dituzte, ez dira futbolera mugatuko. Mendi irteerak, igerilekura joango dira, gaubeila egingo dute, Zubietara bidai egingo dute... Futboleak sakontzeaz batera, euskara, ingurumenarekiko eta taldekideekiko errespetua... Balio mordoak landuko dituzte, eta, esperientziadun monitorekin egoteaz batera, futbol jokalariei profesionalen bisita ere izango dute.



Iazko lasterketaren irteera-unea Eskoriatzako plazan. | JOSETXO ARANTZABAL

MENDI LASTERKETAK**"Ez nituzke tako handiko zapatilak aukeratuko"**

Bihar, zapatua, egingo dute Gabez Takarran, Eskoriatzan (23:00etan)

XABIER URZELAI | ESKORIATZA

Bihar ez da ilargi beterik izango. Horrek aparteko argitasuna emango lioke Gabez Takarran lasterketari (Eskoriatzako plaza, 23:00), baina aurreko edizioetan

ere ilargiaren alde beteenak ez du bat egin lasterketa egunarekin, eta, hala ere, hitzordu arrakatsuak izan dira: "Gainera, orain arte egin duen eguraldia kontuan hartuta, ezin gaitezke kexatu",

diosku antolatzaile lanetan dabilen Iñaki Uribe-etxebarria eskoriatzarrak, eguraldi iragarpena ez da-eta txarra". Mendian lokatz handia dagoen galdetuta: "Pentsatu baino gutxiago dago, gurea

DATUA**23,2**
KILOMETRO

Gabez Takarranek 23 kilometro pasa ditu eta 1.200 metroko desnibela.

lasterketa azkarra da, eta nik ez nituzke tako handiko zapatilak aukeratuko. Tarte motz batzuetan lokatza dago, baina buruhauste handiagoa izan dugu neguan eroritako enborrak ibilbidetik kentzen".

Bihar eman daitezke izena

Antolatzaileek gogorarazi dute egunean bertan izena eman daitezkeela, nahiz eta dagoeneko badaukiten gutxienez 100 lagun batuko direla irteera puntuan. "19:30ean korrikalariei pasta emango diegu afaltzeko, hori da nobedadeetako bat. Ondoren, 21:00etan, batzarra egingo dugu korrikalariekin, xehetasunak azaltzeko, eta 22:50ean gazteen lasterketa hasiko da". Hamar minutu geroago, oster, nagusiak irtengo dira.

Hain zuzen, hori da beste nobedadeetako bat, 16-18 urte bitarteko korrikalariendako kategoria berezitu bat izango dela. Eta ezin aipatu gabe utzi lasterketa hasi aurretik Jesus Eskibel atleta beteranoari egingo dioten omenez.

Gure Ametsa
Gatetxea

- ezkontzetarako areto handi eta erosoak
- aperitiboendako terraza
- sukaldaritza zaindu eta paregabea
- aurrekontu guztietarako menuak

943 71 49 52
Leintz Gatzaga



Ziklistak Osintxu barrualdetik gurutzatzen, artxiboko erretratuan. | GOIENA

TXIRRINDULARITZA

Emakumezkoen Soraluze saria bihar Osintxun

Kadete, gazte eta eliteko ziklistak lehiatuko dira

X.U. | BERGARA

Joan den egubakoitzean Aretxabaletan Emakumeen Birako eta parekin motorrak berotu ostean, ziklismoak jarraipena izango du bihar, zapatua, laugarren urtez antolatuko dute-eta Emakumezkoen Soraluze saria Osintxun. Oraingoan, baina, hainbat kategoriatako txirrindulariek hartuko dute esku, kadeteetatik hasi, eta elitekoen mailara arte.

Hala, Osintxu eta Zubillaga artean prestatutako ibilbidean kadeteek (15:00etan irtingo dira) itzuli bat egingo dute, hau da, 31 kilometroko lasterketa egingo

dute. Eliteak, berriz, 16:15ean irtingo dira, eta horiek hiru itzuli egin beharko dituzte, 93 kilometroko lasterketa osatzeraino (helmuga 18:50 inguruan izatea aurreikusten da).

Gazteak, nagusiekin

Hala, gazte mailako txirrindulariek kilometro gutxi batzuk eliteekin egin ahal izango dituzte, izan ere, nagusiak lehenengo itzulia egin eta Osintxutik pasatzen direnean irtingo direlako gazteak (17:15ean, gutxi gorabehera). Gazteek bi itzuli egingo dizkiote zirkuituari.

MOTORRA

Xabi Abasolo | pilotua

"Mundialean gertu izan nituen 'pro'-ak, erretiratu nintzen arte"

X.U. | ARRASATE

Espainiako Enduro Txapelketan bigarren dagoen Xabi Abasolok errekuaratu lanetan dihardu, Almeriako lasterketa prestatzen zebilela belaunean min hartu zuelako. Egutegiko bosgarren proba zen, eta infiltrazio bati esker korritu ahal izan zuen, eta bigarren sailkatu. Astebetara, baina, Munduko Txapelketa korritu zuen, Europako pro onenekin batera, eta gertu izan bazituen ere azken itzulian bertan behera utzi behar izan zuen lasterketa, minagatik.

Pena, Munduko Txapelketako azken itzulian erretiroa hartu behar.

Bai, Almerian nahiko ondo korritu ahal izan nuen, nahiz eta lesionatuta egon. Mundiala, baina, oso gogorra izan zen, sekulako trialerak... Eta belaua lurrean jartzeko beldurrez. Azken itzulian bihotz taupadak igartzen nituen belaunean. Erabat handituta nuen eta erretiratu egin nintzen, min handia nuelako. Pena da, profesionalak 5 minutuko txandan 10 segundora nituelako, baina ezin izan nion utsi.

Eta orain?

Denboraldiko bigarren zatirako ondo errekuaratu nahi dut.



Xabi Abasolo. | ARITZ GORDO

Erresonantziako emaitzak jasoko ditut asteon, eta ea zer dioten. Espainiako Enduro Txapelketan bigarren nago, gertu dut lehenengo postua, eta lau lasterketa geratzen dira. Hala, nahiz eta Mundiala ezin izan nuen amaitu, eskerrak eman nahi dizkiet San Josepe Harrobiaki, Epeleri, Landaluze harategiari, Errasti Kristaldegari, Buart loradendari, Nothing Without-i eta nire taldeari, zatikari.

Irailetik aurrerako lasterketak non izango dituzu?

Irailaren 15ean Bartzelonan korrituko dut, eta urrian Galiziarra joango naiz. Azaroan, Katalunian amaituko dugu urtea.

SASKIBALOA

Zabalik dago Bergarako Hiruko Txapelketarako izen-ematea

Ekainaren 22an eta 23an egingo dute Bergarako Hiruko Saskibaloia Txapelketa, Soraluze saria, eta dagoeneko zabalik dago izen-emate epea. Beste edizio batzuetan moduan, kategoria mordoa izango dira, eta zozketak eta sari bereziak ere egongo dira. Izena emateko, eta informazio gehiago www.bergarake.com webgunean. Motorrak berotzen joateko, eguaztenean, hilak 19, saskibaloia mahai-inguru interesgarria egingo dute Miguel Altuna institutuan (19:00).

SKATEA

Patximatxin jaia egingo dute bihar Musakolako kiroldegian

Arraska Skate Taldeak antolatuta, Matximatxin jaia egingo dute bihar, zapatua, Musakolako kiroldegian, San Juan jailetako egitarau barruan. 12:00etatik 16:00etara *free skate* modalitatean ibili ahal izango dira patinatzaileak, 16:00etatik 16:45era *Sunday Park Games* modalitatean, eta segidan egingo dute *Kill da Spot*. Hala, 17:30etik 18:30era *Skate froga* egingo dute. Izen-ematea doakoa izango da, eta grafitilariak ere izango dira.

GOIENA KLUBEKO BAZKIDEEI HONAKOAK DUGU ESKAINTZEKO EKAINEAN

KONTSOLA

Wii kotsola dugu zozketatzeko!



BASERRISAREA.COM

DEBAGOIENEN BAZERRI SAREARI esker baserriko produktuez osaturiko 4 otar zozketatuko ditugu.




ARRIKRUTZ

Hilero bezala, Arrikruz kobak bisitatzeneko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.



BAZEN BEHIN...

Bazen behin... bizitza joko irabaztea nahi? Bi joko ditugu zozketatzeko.



BERTIKAL.COM

Bertikal joko berria gazte zein helduentzako. 5 joko ditugu zozketatzeko.



LIBURUAK

Ipuinez osatutako umeentzako bost liburu sorta bikain.



Parte hartzeko

Wii
Baserrisarea
Arrikruz
Argia
Bertikal
Liburu sorta

SMS: KLUBA [SARIAREN IZENA] [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira | **Telefonoz:** 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com | **WhatsApp bidez:** KLUBA [SARIAREN IZENA] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioan. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ez ezatatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



Beste abantaila batzuk:


- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: 50 €.
943 25 05 05
kluba@goiena.com
goienakluba.com

Debagoieneko GREMIOAK



AROSZTEGIAK

AZKARATE AROSZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.

- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

ION LEIHOAK

Arrasate

Debagoiena Industrialdea 11.Pab

Tel.: 943 79 11 35

Faxa: 943 773 120

<http://www.ventaion.com>

LOREZAINNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

KULTURA



Bilboko liburu azokan aurkeztu zuten *Zinegotzia* 2013ko ekainaren 6an, kontakizunaren egun berean. | EREIN ARGITALETXEA

Errealitateari lotutako fikzioa

- ▶ 'Zinegotzia': Fermin Etxegoienek argitaratu berri duen bigarren eleberria
- ▶ Goiate herriko Bixen harakin eta zinegotziaren egun bat kontaktzen du

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI
*Eskumako zinegotzia berandu esnatu zen Euskal Herriaren independentzia bere eskutik etorri zen egunean. Esaldi horrekin abiatzen da Fermin Etxegoienek (Oñati, 1966) *Zinegotzia* (Erein) liburu argitaratu berria.*

Narratzaile baten ahotik jasoko dugu, hirugarren pertsonan kontatuta, 2013ko ekainaren 6an kokatutako trama. Goiate herri-

ko Bixen harakin eta zinegotzia du protagonista nagusia eta errealitatean oinarritutako fikziozko istorioa da. "Euskal Herrian bizi dugun egungo egoerari etengabeko keinuak egiten dizkiodan arren, asmatutakoa da kontakizuna, herria eta baita protagonista ere, nahiz eta azken hilabeteetako gertakariak bulztatu nauten aurrez idatzitakoa moldatzera", dio idazleak.

ESANAK

"Asmatutakoa da istorioa, herria eta zinegotziaren izena eta izana ere bai"

FERMIN ETXEGOIEN | IDAZLEA

Politikaren aitzakian idatzita

Autokarabana liburuaren gaineko elkarrizketa batean galde-tu zioten ea inoiz izan zuen politikaz idazteko asmoa; ezezkoa erantzun zuen arren, harra barruan sartu zitzaioala aitortzen du Etxegoienek eta horrela hasi zela *Zinegotzia* mamitzen. "Ez dut, baina, liburu politikoa egin gura izan, politikaz baliatu naiz literatura entretenigarri egiteko helburuaz".

Autoreak kontrakoa dioen arren, kontatzeko duen modu-gatik eta askorentzako tabua den gaia aukeratzeagatik ausarta da, kritikarien ahotan egunotan Etxegoieni buruz sarritan entzundako hitza; ez duela lagunak egiteko idazten esaten dute.

Hiru ataletan banatuta

Drama klasikoetan moduan, hiru ataletan banatzen du 24 ordu-tako trama: politika-jarduna du ardatz lehenengoak; esparru familiarra bigarrenak, eta azken atalean, berriz, zinegotziak agintutakoa nola betetzen duen jasotzen du. "Hasierako zirriborroak irakurri zituzten lagunak iritziak oinarri hartuta, lehenengo zatia- ren bertsio asko idatzi ditut, eta hirugarrenean akrobazia handiak egin behar izan ditut lehenengo esaldiarekin botatuko hordagoari eusteko. Esparru familiarren zatiak zuen sendotasunak bermatu zidan liburua idazten jarraitzea", dio idazleak.

Pamielatik Ereinera

Pamielan argitaratu zituen aurreko biak, baina, arrazoi narrati-boak tarteko, lehenbailehen argitaratzea komeni zitzaionez, Erein argitaletxearekin kaleratu du azkena. "Apirilean ekarri zidan manuskritoa, hasieratik iruditu zitzaidan liburu majoa; bereziki trama nola eraman duen dut gustuko", dio Erein argitaletxeko Iñaki Aldekoak.

Gustura daude idazlea eta baita argitaletxekoak ere. Fermin Etxegoienek, baina, lanean jarraitzen du; baditu dagoeneko pape-retan hainbat ideia apuntatuta, akaso, hurrengo liburu baten jasoko dituenak.

Idazlea eta kazetaria

EHUko Leioako campusean Kazetaritza ikasketak egin ondoren, EITBko *Katukale* eta *Dr Livingston supongo* saioetan jardun zuen.

Musika kronikak idatzi zituen irratian murgildu aurretik. Egun, Euskadi Irratian entzuten dugu egunero, *Musikate* saioan.

Saiakera bat eta eleberri bat ditu kalean. 2010ean *Autokarabana* eleberriarekin Euskadi Literatura Saria eta Kritika Saria eskuratu zituen.

Argitaratutako liburuak



NEURONA ETA ZEURONA

Generoa: Saiakera.

Argitaletxea: Pamiela, 2004.

Orrialdeak: 134 or.

Euskararen gaineko gogoeta-proposamena da. Zelaia Saria lehiaketan aipamen berezia jaso zuen.

AUTOKARABANA

Generoa: Eleberria.

Argitaletxea: Pamiela, 2009.

Orrialdeak: 324 or.

Liburua definitzeko orduan, "nire, gure, mundua" dela dio idazleak. Esperientzian oinarritutako literatura da, egungo familia eta laneo bizipenak jasotzen dituena. Modernitatearen metafora gisa du autokarabana. Euskaraz idatzitakoa eta gaztelerara itzulitakoa.

GOIENA, POLTSIKOAN

DESKARGA EZAZU APLIKAZIOA!



Gainerakoak:



m.goiena.net

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

Leo Harlem | Umorista eta monologista

"Aretxabaletan sarritan izan naiz oporrek pasatzen"

Egunerokotasuneko gai arruntak ditu oinarri Leo Harlemek maiatzean Madrilen arrakastaz estreinatutako '¿Qué hay de nuevo?' ikuskizunak

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE
Leonardo Gonzalez (Leon, 1962) *Leo Harlem* izenarekin ezagun den umorista ekainaren 29an Arrasaten izango da. Sergio Olalla monologista ere Amaia antzokiko taularen gainera igoko da. Sarrerak 24 eurotan salgai daude *Kutxasarrerak.net* atarian.

Arrasatera etorriko zara laster; izan zara inoiz?

Autoz pasatu nintzen orain gutxi, Eibarrerako bidean, baina, egia esan, aspalditik ezagutzen dut zuen ibarra, garai baten Aretxabaletara oporrek pasatzera joaten ginen-eta. Leintz bailarako txokoak ondo ezagutzen ditut, herriak eta baita Urkulu urtegi zoragarria ere.

Zer dela-eta Aretxabaletara?

Aretxabaletan jaiotako lagun bat nuen, orain hilda dagoena, eta haren familiaren etxera joan ginen hainbat alditan. Azkeneko aldiz orain 16 bat urte izan ginen. Oroitzapen politikak ditut; gustura asko ibiltzen ginen, besteak beste,

herrian txikiteoan eta baita duzuen ingurune paregabe ibilaldiak egiten ere. Kostaldea ere gertu eta ederra duzue; Getariara eta Mutrikura joaten ginen, besteak beste.

Oraingoan, ikuskizun berriarekin, lanera zatoz. Zelakoa da?

Maiatzean Madrilen estreinatu genuen *¿Qué hay de nuevo?* lanak egunerokotasuneko gaiak ditu oinarri. Orain arte egindakoaren bide beretik doa; hau da, jende arruntarentzako umorezko saioa da, baina inon argitaratu gabeko testuekin. Sergio Olallarekin joango naiz; nork bere zatia egingo du eta gero elkarrekin borbilduko dugu saioa.

Aurkez egiguzu Olalla.

Sarritan egin dugu elkarrekin lan; lankide jatorra eta dibertigarria da. Umore berezia duen sekulako profesionala da; niri gehien gustatzen zaidanetako bat. Askorentzako ezezaguna izango den arren, ziur nago harritu egingo zaituztela.

Nola sortzen dituzu gidoiak?

Gauza solteak idatzi eta gordezko ohitura dut eta apunte horietan oinarrituta osatzen dut hasierako gidoi orokorra. Ondoren, jendaurrean nagoenean, ikusleengandik jasotzen dudaren arabera, zuzenean moldatzen dut tokian tokiko kontakizuna.

Sarritan izan zara Euskal Herrian. Zelako ikusleak gara?

Ez dut inor lausengatu gura, baina umorea egiteko publiko onenetakoa zarete. Oso naturalak zarete eta sentitzen duzuen gaia adierazten duzue. Barre asko egiten duzue, ondo pasatzera etortzen zarete eta horrek energia handia ematen digu.

"Tipo arrunt eta klasikoa naiz, eta ni naiz antzezten dudana pertsonaia"



Leonardo Gonzalez *Leo Harlem* umorista . | DIVERTIA SMILE COMPANY

Zelako gaiekin egiten dugu bereziki barre?

Umorearen tokian tokiko ezaguriak dauden arren, orokorrean esango nuke ondo landutako edozein gai dutela askotariko ikusleek gustuko.

Gai guztiak dira umorea egiteko balekoak?

Eliza kontuak, adibidez, ez ditut sekula ukitzen; jendea oso sentibera da gaiarekiko eta ez dut uste inor mintzeko beharrik dagoenik. Egunerokotasunak nahiko aitzakia ematen dizkigu modu sanoan gure buruaz barre

egiteko. Lankide askok egiten badute ere, krisiaz ere ez dut berbarik egiten. Tipo arrunt eta klasikoa naiz eta ni neu naiz antzezten dudana pertsonaia.

Baduzu beste batzuen lanak ikustera joateko ohiturarik?

Ez naiz zinemara edo antzerkira sekula joaten eta lagunak ikustera, gutxiago. Aukeraketa egin beharko nuke, ezin-eta guztietara heldu, eta inor ez haserretzeko, ez noa inora, eta kito! Lagunekin trago batzuk jotzeko aprobetxatzen ditut libre ditudan une apurrak.



Itsas Museoko itsasontzia izango da piraten agertokia. | VALEN MOÑUX

'Peter Pan' musikalaren bertsio moldatua Bilbon

Ohiko ikuskizunaren laburpena hainbat alditan erakutsiko dute, debalde, Bilboko Itsas Museoa

A. A. | BERGARA

Bihar, zapatua, Bilboko *Gau zuria* egitarauaren barruan, Euskalduna ondoan dagoen Itsas Museoa erakutsiko dute Bergarako Musika Eskolakoek *Peter Pan* musika. Ez da ohiko emanaldia izango, zati musikalekin osatutako laburpen bat baizik. Sarre debalde da eta 20:25ean zabalduko dituzte ateak.

Jolasparkeetan erabiltzen duten formula oinarri hartuta, 20:30etik 00:30era, museoa ordu laurdenean behin sartuko den

ikusle-talde bakoitzak sei eszena ikusteko aukera izango du; bestela esanda, aktore bakoitzak bost minutuko lan-saioak eta hamar minutuko atsedendaldiak tartekatuko ditu. Bitxikeria moduan, esan behar da Aitor Agirianok (*Peter Pan*) musikalaren amaieran egiten duen hegaldia 12 aldiz egin beharko duela.

Sei gunetan banatuta

Museoko sei gunetan banatuko dira aktoreak taldeka, bakoitzak musikalaren zatitxo bat antzez-

tuta. Museoaren kanpoan dauden itsasontzi eta bestelako itsas-tresnen artean piratak izango dira, besteak beste, eta ikusleen ilara luzea entretenitzea izango dute helburu. Museoaren barruan, berriz, bakoitza areto batean kokatuta izango dira: Darling familia, ume galduak, sirenak, piratak eta indiarak. Aipagarria da Wendy pertsonaia bikoiztu egin behar izan dutela une berean bi gunetan antzezteko.

90 laguneko lantaldea

Goizean abiatuko da Bergaratik aktore eta talde teknikoak osatutako taldea autobusean Bilbora; oraingoan ez dira musikariak joango, aurrez grabatutako soinua izango du-eta musikalak oinarri. "Antzeppen aldetik zailtasun berezirik ez duen arren, formatu horrek duen ordu-tegi zurrunarekin, gune guztiak ondo koordinatzea da gakoa, eta horretan saiatuko gara goizetik joanda", dio Valen Moñuxek, musikaleko zuzendari artistikoak. Moñuxek gaineratu du muntaketa lan handirik ez dutela egingo eta Darling gela bakarrik eramango dutela: "Oraingoan, tramoariena lana ikusleak areto batetik bestera gidatzea izango da, eta normalean ezkutuan egiten badute lana, oraingoan bistara eta moztortuta izango dira".

Artistendako hegaldi berritua izango da, baina duten ilusioak eta eskarmentuak lagunduko die, seguru, bilbotarrak txunditzen!

Euskal Herriko dantzen erakustaldi zabala egingo dute Arrasaten

A. A. | ARRASATE

Lore Gazteak eta Arrostitz dantza taldeen eskutik, Haur Dantzarien Eguna izango da domekan Arrasaten. Bada, 5 eta 15 urte bitarteko 400 haur elkartuko dira.

Debagoieneko ordezkari zabalda izango da; Arrasatekoak, Aretxabaletakoak, Oñatikoak, Antzuolakoak eta Aramaiokoak egongo dira. Horrez gainera, Sorluzetik eta baita herrialde bakoitzetik ere: Bizkaitik, Portugaletekoak; Nafarroatik, Atarrabiakoak; eta Gipuzkoatik, Añorgakoak. Iparraldeko talde bat ekartzeko saiakera egin duten arren, ez dute lortu.

Erdigunean, lau dantzagune

Herriko Plazan hamaiketako eginda, erdiguneko lau gune bilakatuko dituzte dantzatoki: Herriko Plaza, Biteri plaza, Seber Altube eta Arbolapeta. Bina talde izango dira gune bakoitzean, ibarreko bat eta herrialdeen ordezkari bana. Herriko dantzari hasiberriek Zaldibarren eta Jokin Zaitegi plazan erakutsiko dute ikasitakoa.

17:15ean Herriko Plazan egingo dute saioa eta, besteak beste, elkarrekin dantzatuko dituzte hainbat doinu. Eguna bukatzeko, bestelako doinuekin DJ Amaiak dantzan jarriko ditu guztiak, 19:30ean.



lako Haur Dantzarien Eguneko dantza erakustaldia. | JUAN LUIS ELIZARAN

Vendetta talde nafarrak Olarako jaietan joko du gaur

I.E. | OÑATI

Vendetta talde iruindarrak kontzertua eskainiko du gaur gauean Olarako jaietan. Ska musika jotzen du taldeak eta duela bi urte egin zen ezagun *Puro Infierno* diskoarekin. *Begitara begira* kantua izan zen jendartean arrakasta handiena izan zuena.

Gaurko kontzertuko ardatza, ordea, ez da lan hori izango, disko haren ostean taldearen hirugarren lana izango zena kaleratu baitzuten: *Fuimos, somos y seremos*. Iazko urte amaieran, abenduan, argitaratu zuten disko hori.

Olarako jaietako emanaldia 22:00etan hasiko da eta Vendettarekin batera beste bi talde ariko dira: Herstura eta Ro oñatiarrak.

Vendetta eskualdean

Debagoienerako herri ezberdinetako jaiak hurbiltzen doaz eta kontzertuak ere ez dira faltako. Oñatiko ez da Vendetta ikusteko aukera bakarria izango, izan ere, Arrasaten joko du ekainaren 25ean eta Elgetan 28an.

Reggae gaua egingo dute bihar Elgetako Espaloia Antzokian

Reggae gaua ospatzeko 12 Tribu eta Akatz taldeak gonbidatu dituzte bihar Espaloia Kafe Antzokira. Kontzertua 22:30ean hasiko da eta reggaeren barruko hainbat estilo entzun ahalko dira, roots reggaea, adibidez. Sarrerak dagoeneko salgai daude eta kontzertu aurretik ere leihaitlan egingo dira.



Adin ezberdinetarako liburu eskaintza ikus daiteke gidan. | IURE EIZAGIRRE

Datorren astetik aurrera banatuko dute eskualdean 'Biblioporrak' gida

Azken urteetan moduan, liburuak, diskoak eta filmak gomendatu dituzte

IURE EIZAGIRRE | OÑATI

Liburuak urte osorako diren arren, udarekin lotzen dira askotan. Hondartzako giro lasaia, igerilekuan entretenitzeko beharra, aisialdian lasai egoteko aukera, guztiak bultzatzen du irakurtzera. Baina, sarritan, udan bestelako irakurketak egin nahi izaten dira eta lagungarriak dira besteen gomendioak. Ideia horrekin kaleratzen dute urtero Debagoienerako zenbait herritaro eta Legazpiko liburutegiek *Biblioporrak* gida.

Aurtengo gida prest dute dagoeneko eta egunotan inprentan dago. Ekainaren 18an jasoko dute eta aste horretan bertan hasiko dira banatzen eskualdeko herritarren artean.

Aurten berrikuntzak ditu, gainera, gidak. Gomendio bakoitzak iruzkin txiki bat du, generoa

eta proposamenaren gaia zehazteko. Oñatiko Udal Liburutegia arduratu da 2013ko *Biblioporrak* kudeatzeaz eta bertako arduradun Arantzazu Ibarrondok azaldu duenez: "Iruzkinek asko aberasten dute gida eta informazio gehiago jasotzean, jendearendako baliagarriagoa izango dela pentsatzen dugu".

Guztira, 39 liburu eta zazpina disko eta film proposatu dituzte, hainbat generotakoak. Tartean daude *Alkasoroko Benta*, *Ciudad de Huérfanos*, *Mondrago 1. proba handia*, *Altzor bat aurkituko dugu* eta *Bihotz-bihotzetik* liburuak eta *Amor* filma. Ibarrondok aitortu duenez, narratibak du arrakastarik handiena eta gidan agertzen diren liburu gehienak genero horretakoak dira.

Urtero moduan, adinaren arabera sailkapena egin dute

eta 0 urte baino gehiagokoendako, 6 urtetik gorakoendako, 9 urtetik gora dituztenendako, gazteendako eta helduendako liburuak daude. Azken horien dako da eskaintzarik zabalena; izan ere, gainerakoei zazpi proposamen egiten zaizkie eta eurei, aldiz, hamaika. Hala ere, gida

DATUA

39

LIBURU

Aurtengo *Biblioporrak*-en adinaren arabera, banatutako 39 liburu gomendatu dituzte, baita zazpina disko eta film ere.

gehien erabiltzen dutenak haurrak direla dio Oñatiko liburutegiko arduradunak.

Aurten gidaren 6.300 ale banatuko dituzte. Aramaioko, Aretxabaletako, Arrasateko, Bergarako, Eskoriatzako, Legazpiko eta Oñatiko udal liburutegiek hartu dute parte *Biblioporrak* gidaren prozesuan eta eurek erabakiko dute non banatu dagozkien aleak. Dena den, aurreko urteetan Lehen Hezkuntzako eskoletan, leku publikoetan eta liburutegietan egon izan dira eskuragarri.

Aldaketak aukeratzeko sisteman

Urteak dira *Biblioporrak* deitutako gida argitaratzen dutela. Aurtengo beste berrikuntza materiala aukeratzeko prozesuan egin dute: liburutegi bakoitzak sail bat landu beharrean, adin bakoitzerako proposamenak egin ditu. Lehen aukeraketa egiteko, kritikak jarraitu, dokumentuak erosi eta liburuak irakurri, diskoak entzun eta filmak ikusi dituzte liburutegietako arduradunek. Lanak hautatu ostean besteei aurkeztu dizkiete, eta, denak batuta, gidan zein gomendio azalduko diren erabaki dute.

Erabakiak hartzeko garaian hainbat irizpide zehaztuta dituzte; adibidez, gomendatutako materialarena kalitatea, genero aniztasuna eta argitaletxeen arteko oreka. Horrez gain, hizkuntzen arteko oreka mantendu dute eta liburuaren kasuan, adibidez, erdia inguru dira gaztelaniazkoak eta beste erdiak euskarazkoak.

Diseinua, Olaizolarena

Azken urteetako gidetan moduan, aurtengo *Biblioporrak*-en diseinua Iraide Olaizola diseinatzaile azpeitiarrak egin du. Liburuz osatutako lore bat irudikatu du Olaizolak eta inguruan hegan doazen txori itxurako liburuak ditu loreak.

Iaz *Hartu olatua* zuen lelotzat gidak, baina aurten lelorik ez jartzea erabaki dute. Horren ordez, *Adin guztiarentzako gomendioak* esaldia gehitu diote gorri kolorea nagusi duen eskuorriari.

Arantzazutik txangoa eginda, erromeria giroak alaituko ditu Urbiako zelaiak bihar

Aiko taldeak bere ohiko emanaldia antolatu du, beraz, ikasteko aukera dago

I.E. | OÑATI

Garai bateko itxura izango dute bihar Urbiako zelaiak, izan ere, Aiko taldeak erromeria antolatu du. Denbora luzez, plaza eta aretoetan ibili da taldea baina iaz erromerien jatorrizko paisaiara itzultzea erabaki zuten. Sabin Bikendi taldeko kideak azaldu duenez, "garai batean mendiko ermitetan eta inguruetan egiten ziren erromeriak". Eta, iazko moduan, Urbiara itzuliko dira.

Arantzazun jarri dituzte hitzordua, plan ezberdinak antolatu baitituzte. Hala nahi dutenak

09:00etan abiatuko dira eta mendi-txangoa egin ondoren hurbilduko dira Urbiako borda aurreko zelaira. Bigarren taldea, berriz, 11etan abiatuko da Arantzazutik, eguerdirako Urbiara heltzeko asmotan.

Iaz modu xumeagoan antolatu zuten erromeria eta koadrila polita batu zen Urbian. Bikendik aurten beste modu batera antolatu dutela adierazi du: "Autobusak jarri ditugu hainbat herritatik, gure zaleak eta ikasleak joateko". Horrela, Bilbo, Donostia, Iruñea, Errenteria, Zarautz eta

Durangotik pasako da autobusa. Itzulera 19:00etan izango da. Beraz, jendeak ondo erantzutea espero du taldeak, besteak beste, Urbirako bidea erraza delako.

Ohiko erromeria eskainiko du Aikok. Taldeak era guztietako dantzarako doinuak eskaintzen ditu. Badu, ordea, beste berezitasun bat: erromeriarako doinuak jotzeaz gain, bertaratzen direnei dantzako pausoak erakusten dizkie. Hala dio Bikendik: "Dantza egiteko klabeak ematen ditugu, ez dakiena gidatzen saiatzen gara, dantza errazteko eta dakienari,



Aiko taldekoak Otxandion egindako erromeria batean. | AIKO TALDEA

berriz, proposamen berriak egiten dizkiogu, probatzeko".

Disko berria

Aikok bere azken diskoa kalera tu berri du eta hori aurkeztuko

du Urbian. *Bilgua* izena jarri diote diskoari eta nafar Pirinioetako doinuak jaso dituzte, Irati eta Ossau bailaretakoak. Grabazioa estilo tradizionalako erromeria gisa egin dute.



Amaia Santamaria | Arte Ederretako ikaslea

Santamaria, artelanekin eta haiek sortzeko erabiltzen duen materialarekin.

JONE ALBENIZ

"Autobusean Arte Ederretakoak euren lanekin ikusteak inbidia ematen zidan"

JONE ALBENIZ | BERGARA

Amaia Santamariak (Bergara, 1992) Arte Ederak gradua egiten dihardu Leioan, EHU. Aurtengo bere lehenengo urtea izan da, joan den urtean Geologiako graduaren bigarren urtea amaitu eta alde batera utzi ostean. Ez da geldirik egoten, dantza ikastaroak eman eta jasotzen ditu. Gainera, surf-aula oparitu berri diote eta udan ikasteko irrikan dago.

Zer da artea eta nola definituko zenuke?

Oso zaila da galdera horri erantzutea, baina kontzienteki sortutako edozein aktibitate edo produktu izan daitekeela esango nuke. Betiere, helburu estetiko edo komunikatiboa duena eta emozionatzeko, gozarazte-

ko edo talka sorrarazteko gai dena.

Zerk bultzatuta hasi zara Arte Ederretako ikasten?

Txikitatik miresten dut arte ederren mundua. Betidanik gustatu izan zait margotzea, eskulanak egitea... Zazpi urtez ibili nintzen pinturan; bertan, marrazkiak eta koadroak pintatzen genituen.

Zergatik baztertu duzu Geologia eta Arte Ederretako ikasten hasi?

Inoiz bururatu zitzaidan Arte Ederretako ikastea, baina ez nuen serio hartu, beti entzun izan dudalako horrek irtenbiderik ez daukala. Geologian matrikulatu baino lehen, azkeneko momentuan dudatan egon nintzen, baina ez nintzen ausartu eta Geologia ere gustuko nuen, horretan hasi nintzen. Edozelan ere, ez nengoen

oso gustura, eta, gainera, autobusean Arte Ederretakoak euren lanekin ikusteak inbidia handia ematen zidan.

Zerk inspiratzen zaitu lanean zaudenean?

Musikak. Lanean jarraitzeko gogo handirik ez daukadanean ere, gogoko musikak animatu eta motibatu egiten nau.

Originala izatea zaila da?

Ez da erraza, ez. Askotan, jada eginda dauden gauzetan oinarritzeko joera izaten dugu, nahi gabe.

Zein da zure artista gogokoena?

Bat aukeratzekotan, Voka esango nuke. Pintore honen estiloa errealismo espontaneo da, aurrekusi gabekoa errepresentatzen du pintzelkada lodi eta koloretsuen bitartez.

Arte ederren munduan lehenengo pausoak egiten hasteaz gain, dantza ikastaroak jaso eta ematen dituzu; nolatan?

Bergarako gaztetxean salsa klaseak ematen ditugu lagun batek eta biok; iaz ere ibili ginen erakusten beste bi lagunekin batera. Salsa tailerra sortzeko proposamena irten zen, eta, irakaslerik topatu ez genuenez, gu hasi ginen klaseak ematen.

Aurten Bilbon hilabete batzuk eman ditut dantza latindarrak ikasten.

Egia da Arte Ederretako ikasle eta irakasleak harrikada daukazuela? Ala mitoa da?

Hori betiko kontua da. Nik uste dut orokorrean jendea irekiagoa dela estilo eta jokaera ezberdinetan. Joan den urtetik hona aldaketa horiek igarri ditut, bai. [Barre]

Izan ere, karrerarekin lotuta egon daiteke, ausartu egin behar

duzulako guztiarekin apurtzera zuzun nahi duzuna adierazteko.

Ze plan daukazu udarako?

Ekain bukaeran Galizia edo Portugal aldera joango gara egun batzuk; surf-aula bat oparitu didate eta surfean aritu eta ikasteko asmoz joango gara. Uztailean, berriz, udaleku irekietan egongo naiz begirale moduan.

Bestalde, oporretan lanak produzitzen jarraitu nahiko nuke.

Zer da aurtengo ikasturtean ikasi duzun garrantzitsuena?

Askotan, ideia perfektuaren zain egoten zara, inspirazioaren zain, ezer egin gabe, baina, aurrera egiteko, zerbait sortzen hasi behar da. Bestela, hor tratatuta gelditzen zara-eta.

Garrantzitsua da norberarentzat, baita ere, zein modutan lan egin nahi den jakitea eta gustatzen edo interesatzen zaizunaz jabetzen joatea.

PERTSONALA

Zure herriko txoko kuttunena: Gorla.

Janari gustukoena: Lasagna.

Kirola: Saskibaloiko talde baten ibili izan naiz beti, baina ikasketekin bateratzea zaila da.

Artista bat: Voka.

Egindako bidaiak politena: Menorca.

Bidaiatzeko toki bat: Kuba.

Bizi izateko toki bat: Gustura egonez gero, edonon.

Erronka: Noizbait honetatik bizi ahal izatea eta beti lanerako gogoz jarraitzea.

ASTEAGOIENAN



Bailarako iheslarien gaineko erreportajea

Gaurguko AsteOn saioan Julen Iriondok egindako erreportajea ikusgai erongo da. Arrazoi politikoek eraginda Debagoienetik kanpora joan behar izan dutenen egoera erakutsiko digu Iriondok. Jon Berezibarrek gidatuko du programa.

'AsteOn' Egubakoitza, 22:00



Gabez Takarran lasterketa, gertutik

Astelehenero saioan, Eskoria-tzako proba gertutik jarraituko dute; antolatzaileak platoan bertan izango dira. Horrez gain, Xabier Urzelaik aurkeztutako saioan Osintxuko nesken ziklismo-proba eta Patximatxin skate-jaia izango dira mintzagai.

'Harmailatik' Astelehena, 22:00

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA 14	ZAPATUA 15	DOMEKA 16	ASTELEHENA 17	MARTITZENA 18	EGUAZTENA 19	EGUENA 20
12:00 Planik bai?	10:00 28.Klip	10:00 Magazinea	12:00 Magazinea	12:00 Magazinea	12:00 Magazinea	12:00 Magazinea
12:20 Magazinea	10:30 Beranduegi.tv	11:00 Zorion Agurrak	13:00 Gurean gaur	12:45 Gurean gaur	12:45 Gurean gaur	12:45 Gurean gaur
13:05 Gurean gaur	10:55 Magazinea	11:05 Huhezinema	13:30 Zorion Agurrak	13:15 Zorion Agurrak	13:15 Harmailatik	13:10 Huhezinema
13:30 Onein	11:55 Ikusmira	11:35 Onein	13:36 Pedalka	13:22 Harmailatik	14:00 Pedalka	13:40 Atik Zra
13:57 Pedalka	12:18 Klaketa	12:13 AZK2012	14:03 Sakelekotik	14:07 Erreportajea	14:29 Sakelekotik	14:25 Onein
14:25 Planik bai?	12:58 Onein	13:13 Ikusi irratia	14:15 AsteON	14:37 Zorion Agurrak	14:41 Zorion Agurrak	14:55 Zorion Agurrak
14:45 Zorion Agurrak	13:25 Berriak	13:53 Onein	14:45 Berriak	14:45 Berriak	14:45 Berriak	14:58 Berriak
14:50 Berriak	13:40 AsteON	14:15 Magazinea	15:15 Eguraldia	15:10 Eguraldia	15:10 Eguraldia	15:23 Eguraldia
15:15 Eguraldia	14:10 Magazinea	15:15 AsteON	15:18 Zorion Agurrak	15:13 Harmailatik	15:13 Klaketa	15:26 Erreportajea
15:18 Planik bai?	15:10 Zorion Agurrak	15:45 Zorion Agurrak	15:23 AZK2012	16:36 AsteON	15:53 Onein	15:56 AZK2012
15:38 AZK2012	15:15 Onein	15:50 Ikusmira	16:23 Pedalka	17:06 Zorion Agurrak	16:31 Harmailatik	16:26 Berriak
16:08 Altxorren bila	15:45 Pedalka	16:13 Pedalka	16:53 Zorion Agurrak	17:11 Berriak	17:16 Huhezinema	16:51 Eguraldia
16:36 Beranduegi.tv	16:05 Huhezinema	16:43 Planik bai?	17:00 Berriak	17:36 Eguraldia	17:46 Zorion Agurrak	16:54 Onein
17:01 Zorion Agurrak	16:35 Altxorren bila	17:03 Beranduegi.tv	17:30 Eguraldia	17:39 AZK2012	17:51 Berriak	17:32 Planik bai?
17:07 Planik bai?	17:07 Onein	17:27 Klaketa	17:33 Onein	18:09 Altxorren bila	18:16 Eguraldia	17:52 Huhezinema
17:27 Berriak	17:29 Zorion Agurrak	18:07 Erreportajea	17:59 Erreportajea	18:41 Zorion Agurrak	18:18 Atik Zra	18:22 Ikusmira
17:52 Eguraldia	17:34 AZK2012	18:37 Magazinea	18:29 Atik Zra	18:46 Trikitilari gazteen txapelketa	19:03 Harmailatik	18:46 Zorion Agurrak
17:55 Planik bai?	17:58 Erreportajea	19:37 Berriak	19:14 Beranduegi.tv	19:48 Berriak	19:48 Zorion Agurrak	18:51 Planik bai?
18:15 Altxorren bila	18:28 Magazinea	19:52 Zorion Agurrak	19:42 Zorion Agurrak	20:13 Eguraldia	19:52 Berriak	19:16 Beranduegi.tv
18:43 Zorion Agurrak	19:28 Planik bai?	20:27 Magazinea	19:47 Berriak	20:15 Magazinea	20:17 Eguraldia	19:44 Zorion Agurrak
18:49 28.Klip	19:48 Berriak	21:27 Klaketa	20:12 Eguraldia	21:00 Gurean gaur	20:20 Magazinea	19:50 Berriak
19:19 Beranduegi.tv	20:03 AsteON	22:02 Beranduegi.tv	20:15 Magazinea	21:30 Huhezinema	21:05 Gurean gaur	20:15 Eguraldia
19:44 Zorion Agurrak	20:33 Beranduegi.tv	22:32 Magazinea	21:00 Gurean gaur	22:00 Berriak	21:35 AsteON	20:17 Magazinea
19:49 Berriak	20:58 Berriak	22:32 Magazinea	21:30 Berriak	22:25 Eguraldia	22:05 Berriak	21:07 Gurean gaur
20:19 Eguraldia	21:13 Pedalka	23:32 Erreportajea	21:55 Eguraldia	22:30 Magazinea	22:30 Eguraldia	21:37 Sakelekotik
20:22 Planik bai?	21:43 Magazinea	00:10 Eguraldia	22:00 Harmailatik	23:15 Klaketa	22:32 Magazinea	21:50 Pedalka
20:42 Gurean gaur	22:43 Berriak		22:45 Magazinea	23:55 Berriak	23:17 Harmailatik	22:20 Planik bai?
21:07 Ikusmira	22:58 AsteON		23:45 Berriak	00:02 Berriak	00:33 Berriak	22:40 Berriak
21:30 Pedalka	23:28 Planik bai?		00:20 Eguraldia	00:27 Eguraldia	00:58 Eguraldia	23:05 Eguraldia
22:00 AsteON	23:48 Berriak			00:30 Magazinea		23:08 Magazinea
22:30 Berriak						23:53 Klaketa
22:55 Eguraldia						00:13 Eguraldia
22:58 AsteON						
23:28 Planik bai?						
23:48 Berriak						

ARRASATE IRRATIA

Fermin Etxegoien oñatiarrari egindako elkarrizketa

Zinegotzia bere azken lanaren harira Arrasate Irratian egindako elkarrizketa entzuteko aukera izango da. Zapatuan eta domekan, 10:00etan. Euskal Herri independente baterantz garamatza idazlearen eleberriak; entzuleek Asteko gainbegiratu-n gertuagotik ezagutuko dute liburua.

Datorren asteko lehiaketako sariak 3D puzzleak dira

Euskal Inauterien puzzleak lortuko ditu ekainaren 21eko irabazleak. Horretarako, irratia@goiena.com helbidera idatzi edo 943 25 05 05 zenbakira deitu behar da. Kontatu behar duzue sanjuanetako egitaraua ikusita zer ekintza duzuen gogokoan. Parte hartu eta zorte on!


GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Egubakoitza, 14	ESPAÑOL MORALES	Araba etorbidea 14	943 79 18 65
Zapatua, 15	RUIZ	Nafarroa etorbidea 1	943 79 14 09
Domeka, 16	ETXEBERRIA	Zarugalde 38	943 77 16 30
Astelehena, 17	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias 1	943 79 15 15
Martitzena, 18	M.FCA AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
Eguaztena, 19	FERNANDEZ	Aranbarri maisua, 1	943 79 22 26
Eguena, 20	IRIZAR	Erguin 11	943 79 12 39
BERGARA			
Egubakoitza, 14	GUALLAR	San Antonio 5	943 76 11 05
Zapatua, 15	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Domeka, 16	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Astelehena, 17	ALVAREZ-MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Martitzena, 18	URRUTIKOETXEA	Oxirondo 4	943 76 11 74
Eguaztena, 19	ZABALA	Barrenkale 25	943 76 16 87
Eguena, 20	GUALLAR	San Antonio 5	943 76 11 05
OÑATI			
Egubakoitza, 14	JULDAIN	Kale Berria 6	943 78 11 28
Zapatua, 15	JULDAIN	Kale Berria 6	943 78 11 28
Domeka, 16	JULDAIN	Kale Berria 6	943 78 11 28
Astelehena, 17	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Martitzena, 18	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Eguaztena, 19	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguena, 20	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22

Farmazien eskuko telefonoetarako 2013 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altitria TICek kudeatuta (www.altitria.es).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA



ZAPATUA, 15
Giro eguzkitsua eta epela izango da zapatuan, ipar ukituko haize leunarekin. Arratsaldean, bero hodeiak sor daitezke.

DOMEKA, 16
Temperaturek apur bat gora egingo dute. Egunean zehar hodeiak ugartu egingo dira; haizea oso ahul ibiliko da.

HILDAKOAK

- M. Elena Otalora Galdos. Arrasaten, ekainaren 7an. 88 urte.
- Margarita Altuna Eguren. Arrasaten, ekainaren 7an. 77 urte.
- Karlos Ezkibel Urtaza. Oñatin, ekainaren 8an. 73 urte.
- Juan Carlos Igartua Moia. Oñatin, ekainaren 8an. 51 urte.
- Fabian Bermejo Montero. Oñatin, ekainaren 8an. 69 urte.
- Luis Etxeberria Luarizaristi. Bergaran, ekainaren 11n. 57 urte.
- Antonio Gomez Abad. Arrasaten, ekainaren 11n. 75 urte.
- Jose Antonio Zubillaga Zubia. Arrasaten, ekainaren 11n. 90 urte.
- Inazio Agirre Bollain. Oñatin, ekainaren 12an. 58 urte.
- Juan Zulueta Uribe. Arrasaten, ekainaren 12an. 88 urte.

ESKER ONA

Luis Etxeberria Luarizaristi

Bergaran hil zen 2013ko ekainaren 11n, 57 urte zituela.

Hileta-elizkizunera joandakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2013ko ekainaren 14an.

ESKER ONA

Karlos Ezkibel Urtaza

Arrasaten hil zen 2013ko ekainaren 8an.

Hileta-elizkizunera joandakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Oñatin, 2013ko ekainaren 14an.




Asier eta Amaia

Asier Lopez eta Amaia Boleas ekainaren 15ean ezkonduko dira Iruñean. "Zorionak, bikote, lagunen partetik. Ederto pasatu eguna eta zoriontsu izaten jarraitu!".



Javier eta Mari Carmen

Javier Agirreola eta Mari Carmen Leturia bergararrak 1963ko ekainaren 15ean ezkondu ziren. Urrezko ezteiak ospatzeko bihar familiakoekin elkartuko dira mahaiaren bueltan. Zorionak eta ondo pasatu!



Amaia eta Mikel

Amaia Flores eta Mikel Pereira aramaioarrak, bihar, ekainak 15, ezkonduko dira. "Zuekin batera egun berezi hau ospatzeko desiratzen gaude! Disfrutatu eta zoriontsu izaten jarraitu! Patxo bana lagun partetik".



Mainer eta Agus

Mainer Mayor eta Agus Palacios ekainaren 8an ezkondu ziren. "Ederto ospatu genuen denok. Goraintziak eta musu potolo bat, lagun eta familiako partetik. Ondo ibili eztei-bidaian!".




Jokin eta Marta


Jokin Manterola eta Marta Sevillano bihar, ekainak 15, ezkonduko dira Bergaran. "Zorionak, familiaren eta lagun partetik! Ondo pasatu eguna eta zoriontsu izaten jarraitu. Ondo ibili eztei-bidaian!".



URTEURRENA



Jabier Madariaga Ormazabal



Bergaran hil zen 2012ko maiatzaren 25ean, 78 urte zituela.

Lehen urteurrenoko meza domekan izango da, ekainaren 16an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean. Bergaran, 2013ko ekainaren 14an.

URTEURRENA

Carmen Zaloña Leanizbarrutia



Lehen urteurrenoko meza domekan izango da, ekainaren 16an, 11:30ean, Aretxabaletako Andra Mari parrokian.

Gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko bainan bizitzen garen artean ez zaitugu ez ahaztuko.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean. Aretxabaletan, 2013ko ekainaren 14an.

URTEURRENA



Miren Ojea Larrañaga



Arrasaten hil zen 2012ko ekainaren 10ean.

Zuk emandako maitasunak bizirik iraungo du gure bihotzean, amama maitia.

Bilobak: Miren eta Jon. Arrasaten, 2013ko ekainaren 14an.

OROIGARRIA

Luis Etxeberria Luarizaristi



Bergaran hil zen 2013ko ekainaren 11n, 57 urte zituela.

Joan zaren arren bertan zaitugu zure oroitzapenak gure bideak argituko ditu.

Emaztea eta alabak. Bergaran, 2013ko ekainaren 14an.

OROIGARRIA

Luis Etxeberria Luarizaristi



Bergaran hil zen 2013ko ekainaren 11n, 57 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.



Jardun euskara elkarte. Bergaran, 2013ko ekainaren 14an.

OROIGARRIA

Juan Carlos Igartua Moioa



Oñatin hil zen 2013ko ekainaren 8an, 51 urte zituela.

Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin, oroimenean izango zara zu beti gurekin.



Kalezaharra elkarte. Oñatin, 2013ko ekainaren 14an.

OROIGARRIA

Jesus Arregi Irastorza



2013ko ekainaren 7an hil zen, 67 urte zituela.

Eskerrik asko bizitzan eta gaixotasunean erakutsi duzun alaitasunagatik.

Zure familia eta lagunak. Antzuolan, 2013ko ekainaren 14an.

OROIGARRIA

Fabian Bermejo Montero



Oñatin hil zen 2013ko ekainaren 8an.

Azken arnasa eman duzu Durura begira Zure irribarreak eta zure bizipozak Beti jarraituko du bizirik gure bihotzetan.

Zure Duruko lagunak. Oñatin, 2013ko ekainaren 14an.

OROIGARRIA

Joxe Ugalde Alustiza



Pili Ugalde lankidearen aita

Legazpian hil zen 2013ko ekainaren 7an, 90 urte zituela.

Har beza familiak gure atsekabe-mina.



Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak. Leintz bailaran, 2013ko ekainaren 14an.

ELGETA 12 Tribu eta Akatz taldeen emanaldia

12 Tribu eta Akatz taldeek kontzertua egingo dute Espaloia Kafe Antzokian. Biek ala biek reggae musika jotzen dute. 12 Tribu taldeak *Freedom Sounds* diskoko abestiak joko ditu. Aldiz, Akatz talde bizkaitarrak *Rudo Bilbao* delako diskoaren aurkezpena egingo du.

Bihar, zapatua, Espaloia, 22:30ean.



GOIENA



GOIENA

BERGARA Kantaka abesbatza, orfeoi gaztea, orfeioia eta musika eskola elkarrekin

Lazkaoko Kantaka abesbatzaren, Bergarako orfeoi gaztearen, Bergarako orfeoiaren eta musika eskolako hainbat kantariren kontzertua Santa Marina parrokian.

Etzi, domeka, Santa Marina parrokian, 13:00etan.

MUSIKA**ARAMAIO** La Bossa Nostra taldearen kontzertua

Azken urteetako ohiturari eutsiz, Udaleko Kultura Sailak kontzertuak antolatu ditu ekaineko egubakoitz guztietarako. Helburua da denetariko zuzeneko doinuak eskaintzea, aire zabalean.

Gaur, egubakoitza, Sastifian, 20:00etan.

ARRASATE Heziketa bereziko ikasleen kontzertua

Arrasate Musikalen 40. urteurreneko ekitaldia da. Arduradunak Domentx Ucin eta Olaia dira.

Gaur, egubakoitza, Arrasate Musikalen, 18:30ean.

BERGARA DJ jaialdia

Humberto DJak gaztetxoendako emanaldi berezia egingo du Zabalotegi aretoan. Sarrera doan.

Bihar, zapatua, Zabalotegi aretoan, 18:30ean.

OÑATI Vendetta eta Herstura taldeak

Olakua auzoko jaietan zuzeneko egingo dute Herstura oñatiarrek eta bogan dagoen Vendetta taldeak. Eurekin batera Ro taldea igoko da oholtzara. Zapatuan, Jalisko Banda taldearen txanda izango da. Ordu eta leku berean.

Gaur, egubakoitza, Olakua auzoan, 22:00etan.

BERGARA Zakillers eta Sermonds

Txapa irrati librearen eskutik, Zakillers eta Sermonds taldeek Bergarako gaztetxean zuzeneko egingo dute. Zakillers Sixty Sexers taldearen anaia txikia da. Sermonds-ek, hilabete batzuetan isilik egon ondoren, 2008an hasi zuen ibilbide berria. Euren ondoren, Elvis Caino DJak emanaldia egingo du.

Bihar, zapatua, Bergarako gaztetxean, 22:30ean.

OÑATI Alex Caporuscio britaniarraren zuzeneko

Italiar abizena duen britaniarra musikari bikaina da. Gitarra gorputzaren atala balitz bezala erabiltzen du. Musikaren malabarista petoa, jotzen duen guztia aurrean ipintzen duen gogoa eta bizitasuna ukazina da. Musikari aparta. Gustu handiko konposizioek, eta bertsoiek –blues moldetik rock generora, funk atomikotik hard boogiera osatzen dute erreperitorioaren oinarria.

Etzi, domeka, Pako tabernan, 19:30ean.

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

EKAINA 14
EKAINA 20**ELGETA** Musika ikasleen ikuskizuna

Ikasturte amaierako ikuskizuna egingo dute musika eskolako ikasleek. Urtean zehar landutako piezak zuzenean joko dituzte. Ekainaren 16a, domeka Espaloia kafe antzokian. 12:30etan

OÑATI Aloña abesbatza eta musika eskolako ikasleak

Loli Ordokik zuzendutako kontzertua da. Erretiratuaren asteari hasiera emango diote emanaldi horrekin.

Ekainaren 17a, astelehena, Agustindarren eliza, 18:30ean.

ARRASATE Musika eskolako ikasleen kontzertua

Arrasate Musikalen 40. urteurreneko ekitaldia da.

Ekainaren 19a, eguaztena, Arrasate Musikalen, 18:30ean.

ARRASATE Klarinete ikasleen kontzertua

Arrasate Musikalen 40. urteurreneko ekitaldia da. Klarinete ikasleek ikasturtean zehar landutakoa erakutsiko dute lagunerekin eta etxeko aurrean.

Ekainaren 20a, eguna, Kulturateko areto nagusian, 18:30ean.

ARRASATE Haur Dantzarien Eguna

Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostitz dantza taldeen eskutik, Haur Dantzarien Eguna ospatuko dute domekan. Parte-hartzaileak Zaldibar frontoian elkartuko dira. Kale-rik kale dantza emanaldiak egin ondoren, alardea egingo dute Herriko Plaza Nagusian, 17:00etan.

Etzi, domeka, Zaldibar frontoitik, 10:00etan.

IKUSKIZUNAK**ARETXABALETA** Kidam magoa

Asier Kidam gasteiztarrek magia emanaldia egingo du. Sarrera, hiru euro.

Etzi, domeka, Zاراia aretoan, 17:00etan.

OÑATI Potxin eta Patxin pailazoak

Olakua auzoko jaietan emanaldia egingo dute Potxin eta Patxin pailazoak. *Txangoa* delako ikuskizunean, umeen eta helduen laguntza eskatuko dute bidaia bitxia eta misteriotsua egiteko.

Bihar, zapatua, Olakua auzoan, 17:30ean.

JAIK**OÑATI** Olakua auzoko jaiak

Gaurtik domekara arte jaietan murgilduta egongo dira Olakua auzoan. Askotariko ekitaldiak izango dituzte; besteak beste, triki-bertsu poteoa, auzo-bazkaria, mus txapelketa, haur jokoak, umeendako eta nagusiendako mendi bizikleta irteera, eta herri kirolen erakustaldia.

Gaurtik domekara, Olakua auzoan.

BERGARA San Antonio auzoko jaiak

San Antonio jaiak ospatuko dituzte zapatuan eta domekan Bergaran, izen bereko auzoan. Txikiendako zezentxoak eta poniak, auzo-bazkaria eta San Joxepeko abesbatzaren emanaldia izango dituzten hango bizilagunek.

Zapatua eta domeka, San Antonio auzoan.

ELGETA Meza San Adrian ermitan

Uriarte auzoko San Adrian ermitan esango du meza Elgetako parroko Juan Cruz Juaristik.

Etzi, domeka, Uriarte auzoan, 13:00etan.

UMEAK**ELGETA** Eskolako ikuskizuna

Ikasturte amaierako ikuskizuna egingo dute Elgetako umeek.

Ekainaren 14a, egubakoitza Espaloia kafe antzokian. 15:00etan.

OÑATI Haur eskolako eta Haur Hezkuntzako jaiak Elkar Hezin

Elkar Heziko txikienei eta haien gurasoei zuzendutako jaiak da. Besteak beste, Potx eta Motx pailazoaren emanaldia, magia ikuski-

zuna, gurasoek sukaldatutako txitxi-burduntzia eta afari-merienda egingo dituzte.

Gaur, egubakoitza, Elkar Hezin, 17:00etan.

ERAKUSKETAK**BERGARA** Jabier Sotoren pintura erakusketa

Jabier Sotoren pintura erakusketa. Ekainaren 14tik uztailearen 7ra dago ikusgai.

Gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan, 18:00etan.

OÑATI '%100 Afrika beltza'

David Vidarte afrikanistak bildutako pintura, maskara eta egurrean egindako lanak daude ikusgai Oñatiko kultura etxean.

Gaur, egubakoitza, kultura etxean, 18:30ean.

OÑATI Eskulturak Enpresagintza Fakultatean

Xabier Arlolozagarena da *La mar entre dos manos* delako erakusketa. Buztinarekin eta beira-zuntzarekin egindako eskulturak daude ikusgai ekain bukaera arte.

Gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan, 18:00etan.

ARRASATE Zezenen gaineko dokumentuak eta beste

Ana Isabel Ugaldek bildutako informazio zabala ikusgai dago Kulturateko klaustroan: dokumentuak, argazkiak, kronikak eta beste hainbat material.

Gaur, egubakoitza, Kulturaten, 17:30ean.

TOPAKETA**BERGARA** Irakurzaletasun astea

Irakurzaletasun astea egingo du Jardun euskara elkarteak hilaren 17tik 22ra.

Ekainaren 17a, astelehena, Jardunen egoitzan, 17:45ean.

IRTEERA**OÑATI** Saguzarrak ikustera

Juan Tomas Alcalde saguzarretan adituarekin, saguzarrak ikusteko irteera egingo dute Arrikruzetik. Hitzaldia egingo du, eta ondoren saguzarren bila ibiliko dira kobazuloaren kanpo aldean.

Gaur, egubakoitza, Arrikruzten, 19:30ean.



GOIENA



goiena

2013-06-14

BUKATZEKO

Arrasate abizena ez dator Arrasatetik

- ▶ Realeko entrenatzaile berriaren abizenak arreta eman du Debagoiengan, baina ez dator bertatik
- ▶ Mondragon abizena, ordea, seguruenik Arrasatetik datorrela diosku Euskaltzaindiko aditu batek

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Arrasate Realzale zintzo askoren herria izanda ere, zaletasunarengatik ez ezik, begi bistako beste arrazoi batengatik ere pozik hartuko zuten hurrengo entrenatzailea Jagoba Arrasate izango den albiste.

Dena dela, konexioa ez da dirudien modukoa; izan ere, Arrasate abizena ez dator Arrasate herriaren izenetik. Hori diosku Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeko idazkariak, Mikel Gorrotxategik: "Baserri baten izenetik dator. Hiru lekutatik dator abizena: Bizkaitik, Mendexatik; Nafarroatik, Eritzetik; edo Antzuolatik".

Jagoba Arrasateren kasuan, zehazki nondik datorren jakiteko, haren zuhaitz genealogikoa egin beharko litzatekeela dio Gorrotxategik. Baina Arrasateren aita Mutrikukoa dela jakiteak ematen du pista bat: "XVII. mendean, Arrasate deitzen ziren gehienak Mutriku eta Pasaian bizi ziren. Beraz, seguru asko, Mendexakoa izango da abizena, kasu honetan".

Arrasate herritik ez etortzearen azalpena hau da: "Arrasate hiribildua sortu zenean, Mondragon izena ipini zioten. Beraz,




Jagoba Arrasate. | REAL SOCIEDAD

oso-oso zaila da Arrasate abizena bertatik etortzea".

Espainiako Estatistika Erakundearen arabera, Hego Euskal Herrian eta Espainian 362 lagunek dute lehenengo abizena Arrasate eta 343k, bigarrena. Gehienak Bizkaian daude; gero, Nafarroan, Gipuzkoan eta Araban, hurrenkera horretan. Madrilen, Bartzelonan eta Kantabrian ere badaude batzuk.



Jorge Oñate musikaria. | GOIENA



Sofia Vergara aktorea. | GOIENA

Euskal leku-abizen asko

Kontrakoa gertatzen da Mondragon abizenarekin, ordea: hori "seguruenik" Mondragoetik datorrela esaten du Gorrotxategik.

Abizenak XVII. mendean sortu zirela azaltzen du Euskaltzaindiko adituak. Horren aurretik, beste sistema bat erabiltzen zuten: "Familia-izena eta, horri erantsita, norbera non bizi zen edo norberaren ezaugarri bat erabiltzen zuten", esaten du Mikel Gorrotxategik.

Leku-izenetan oinarritutako euskal patronimiko asko dago munduan zehar, eta batzuk, kasu ezagunak; tartean, Sofia Vergara aktorea eta Jorge Oñate musikaria, biak kolonbiarrak.

AZKEN BERBA

AINTZANE
OARBIDE



Imanol Bolinagaren ekarpena

Aste batzuk badira Imanolek utzi gintuela. Bergarara etorri nintzenetik esperientzia eta laguntasuna etengabe eskaini dizkit. Maitagarria zen oso, erabat gertukoa. Politikari bezala ezaguna izan bazen ere, ez naiz aspektu honetaz arituko oraingoan. Imanol pertsona zen. Letra guztiekin esan nahi dut, pertsona. Jendea lagundu bazezakeen ez zuen bi aldiz pentsatuko. Bere baliabide pertsonalak, bere insistentzia, sentsibiltatea, tinkotasuna erabiliko zituen edonor laguntzeko. Horietako kasu bat argitaratu nahi nuke gaurkoan. Berdin zitzaion arerio politikoa bazen ere, pertsona lehenesten zuten. Jose Luis Elkoro kartzelan zegoela, bera kale-ratzeko ekimenak sortu ziren. Bergarako beste alkate ohiak ere aritu ziren horretan lanean, Madrileran joan-etorriak... baina gaiarekin tinko, espetxe arduradunekin, ministro eta zuzendariarekin lana gogotik egin zuena Imanol bera izan zen. Justizia egitea da esatea bere tinkotasun eta harremanetarako gaitasuna oso garrantzitsuak izan zirela Elkoro etxeratzeke. Hau guztiontzat adibide da. Politikoki diferentzia handiak izanda ere, horien gainetik gizabanakoa lehenestea. Bihotzetik, eskerrik asko, Imanol.

ARRASATEKO BASERRIKO
PRODUKTUEN AZOKA


09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2013
ekainak 15

Uztailak 20
Irailak 21
Urriak 19
Azaroak 16

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Eragutegi eta Garapen
Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta
merkatariak konfiantza,
hurbiltasuna eta kalitateak
eskaintzen dituzte.

